

puntua

ETXAUZIA, BAIGORRIKO
EUSKAL BILGUNEAN
IZATEKO PROIEKTUA

Idoia Luzuriaga,
indarkeria
matxistari buruz



INDARKERIA MATXISTA AZALERA

Emakumeen kontrako indarkeria salatzeko ekimen ugari
—Debagoienean, aurtan, 61 kasu salatu dira— / 2-3 eta 'Herriak' saila

Antzuolako
Andramanuela
brigada feminista
talde sortu berriko
kideak.

XABIER URZELAI

**Musakolako
igerilekuaren
klimatizagailua
berritzeko, 67.000
euroko laguntza** / 14



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**Bergaran kokatuko
dute suhiltzaileen
etxe garrantzitsuena,
zerbitzua berriro
antolatu ostean** / 4

**Oñatiko Turismo
Bulegoak ospakizun
bereziak iragarri ditu,
zabaldututela 15
urte bete dira eta** / 35

SINADURAK

 AITZOL ITURBE / 8	 MARIE UGALDE / 26
 ITSASO ERRETOLATZA / 10	 AITOR UGALDE / 35
 IKER ELEXPURU / 17	 IDOIA ETXEBERRIA / 48

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta egun horren bueltan hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte bailaran, genero indarkeria eta emakumeen aurkako indarkeria salatzen. Baina erakundeetatik zer protokolo jarraitzen da indarkeria matxista sufritzen duen emakume baten berri dagoenean? Zer egin dezake indarkeria jasan duenak? Nora jo dezake?

Aipatu behar da behar izanez gero 900 84 01 11 telefonoan, 24 orduetan, berehala, konfidentzialki eta anonimotasunean profesionalekin hitz egiteko aukera eskaintzen duela Eusko Jaurlaritzak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan.

Gaur egun, erakundeen arteko koordinaziorako protokoloa zehaztuta du Eusko Jaurlaritzak, eta, horren ondorioz, Ertzaintzak, Osakidetzak, epaitegiek eta udaletako gizarte zerbitzuek elkarlanean dihardute. Xabier Legorburu Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak azaldu du badutela elkarlanerako protokoloa: "Guk gizarte zerbitzuetan ez dugu protokolo zehatzik zehaztuta genero indarkeria kasu bat antzematen dugunean, egoeraren arabera modu batera edo bestera tratatzen dugulako, gerturatu zaigun emakumearen nahiaren arabera. Hala ere, erakundeen arteko elkarlanerako badugu protokoloa zehaztuta. Ertzaintzan, epaitegietan edo anbulatorioetan salaketaren bat badago, hortik Gizarte Zerbitzuetara bideratzen dute pertsona hori, gainera. Beraz, lau erakundeen arteko koordinazioa badago".

Pertsona batek bere burua arriskuan ikusten badu, Eusko



Indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea, aurten, Arrastan. GOIENA

Aurten, 61 eraso dagoeneko

Ertzaintzak, Osakidetzak, epaitegiek eta udaletako gizarte zerbitzuek elkarlanerako protokoloa dute erasoak jasan dutenei laguntza eta babesa eskaintzeko. 2017an, Ertzaintzaren datuen arabera, ibarrean 61 emakumek jasan dute indarkeria matxista

Jaurlaritzak Ertzaintzarengana edo osasun zentro batera joatea gomendatzen du, baita 112 zenbakira deitzea. Gero, bertan, zehaztutako protokoloa jarraituko dute beti. Ertzaintzak, adibidez, artatu ostean, pertsona horri laguntza juridikoa

UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUEK INFORMAZIOA EMAN ETA DAUDEN AUKERAK ESKAINTZEN DITUZTE

eskainiko dio, salaketa jarri edo babes-agindua eskatu nahi badu. Ondoren, gizarte zerbitzuekin harremanetan jarriko da. Jarraipen pertsonalizatua eskaintzen du, eta arrisku-mailaren arabera babes-neurriak hartzen dituzte agenteek. Horrez gain, Bortxa izenarekin ezagutzen den mugikor bat eskaintzen dute, arriskuan egonez gero zuzenean Ertzaintzarekin harremanetan jartzeko. Mugikor horrek GPS zerbitzua ere badauka, pertsona hori non dagoen hobeto jakiteko.

Osasun zentroetan antzeko protokoloa jarraitzen dute Osakidetzak eta lurraldeko beste zentroek. Lesio fisiko edo psikikorik izanez gero, osasun zentro edo ospitale batera joatea gomendatzen du Eusko Jaurlaritzak. Bertan, artatzeaz gain,

DEBAGOIENEAN 61 EMAKUMEK JASAN DUTE INDARKERIA MATXISTA AURTEN; IAZ 102 EMAKUMEK

mediku-txostenaren kopia bat eskatzea gomendatzen du, gainera, gero salaketarik egonez gero. Osasun zentroetik dagokion epaitegira bidaliko dute lesio-partea, eta, behar izanez gero, gizarte zerbitzuekin harremanetan jarriko dute pertsona hori. Gainera, haren osotasun fisikoa arriskuan badago, osasun zentrori gerturatzeko eskatuko diote Ertzaintzari.

Udaletako gizarte zerbitzuetan, Debagoienekoetan ere bai, laguntza eta aholkua eskaintzen diete behar dutenei, Xabier Legorburuk azpimarratu duen moduan: "Gure lana informatzea eta aukera ezberdinak eskaintzea da. Baliabide batzuk tramitatzen erakundearen arabera bai eskatzen dute salaketa jartzea; adibidez, etxebizitza bat eskatzeko, Foru Aldundiak salaketa jartzearen beharra eskatzen du. Baina gizarte zerbitzuetara etortzeko ez dago salaketa jarri beharrik. Jendea informatzera dator eta beharren arabera guk bideratzen ditugu. Teknikariekin hitzordua jartzen dugu eta haiek egoera aztertzen dute. Dauden laguntza ezberdinen aukerak azaltzen zaizkio, eta dauden baliabide ekonomikoak eta laguntza juridikoa. Beharrezkoa ez bada, gu ez gara Ertzaintzarekin kontaktuak jartzen, pertsona horrek eskatzen ez badu, behintzat. Larritasunaren arabera erantzun bat ematen da, hain zuzen ere".

Aipatu behar da, gainera, beharra duten emakumeendako 301 plaza eskaintzen dituzten 30 zentro berezi dituela lurraldean banatuta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hala ere, horien kokapena ez da zehazten, artatutako en segurtasunagatik eta intimitatea gordetzeagatik.

IKUSTENDA

GOIENA TELEBISTA, DENBORALDI BERRIA

AZAROAREN 30EAN, EGUENEAN, 21:00ETAN

'KIROLA BIZI' SORTAKO ERREPORTAJEA

PROTAGONISTA: JOSU LARREATEGI, SASKIBALOI ENTRENATZAILEA
JULEN IRIONDO KAZETARIAREN ESKUTIK

goiena
Zu hemen zaude.



Oso datu kezagarriak

Deba-Urolako ertzain-etxeak emandako datuen arabera, 2017an, genero indarkeriazko 61 kasu izan dira Debagoiengan, orain arte –Soraluze barne–. Iaz, 102 kasu antzeman zituzten. Aipatu behar da datu horietan ez direla agertzen salaketarik jarri ez duten eta agian udale-tako gizarte zerbitzuetara hurbildu diren emakume guztiak; beraz, eraso jasan dutenen zifra handiagoa izan liteke.

Jaurilaritzako Segurtasun Sailak aditza eman duenez, Er-tzaintzaren erregistroen arabera, 2017an 4.519 emakume jasan dute indarkeria matxista EAEn –iaz, 4.352–. Gipuzkoan, 1.370 emakume jasan dute indarkeria aurtan. 901 emakume jaso dute Bortxa mugikorra babes moduan –Gipuzkoan 291 emakume–, eta 52 emakumeri eskolta jarri diete –Gipuzkoan, 14 emakumeri–.

**ERASOA
JASAN DUTENEN
ARRETARAKO
TELEFONOA:
900 84 01 11**

Salaketei dagokienez, aurtan, lehenengo hiruhilekoan Gipuzkoako epaitegiek %21 kasu gehiago jaso zituzten, iazko datuekin alderatuta. 359 salaketa aurkeztu ziren guztira –iaz, berriz, 296–. Bada, datu horren arabera, egunean eraso matxistaren bat dela eta lau salaketa jartzen dira.

Gipuzkoari dagokionez, salaketen %60 eraso jasan zutenek jarri zituzten, eta %3 familiako beste kide batek. %27,5 poliziak ezarri zituen, eta babesa emateko ordenek ere gora egin dute.

Iaz baino %13,8 gehiago, hain zuzen ere. Hala ere, 2016ko datuen arabera, eraso jasan zutenek eskatutako babes aginduetako %60 baino apur bat gehiago ezeztatuak izan ziren.

Eusko Jaurilaritzako Segurtasun Sailak kaleratu dituen datuei erreparatu gero, kezkatzekoa da, baita ere, adingabeko gehiagok jasan dutela eraso matxistaren bat, 48 kasutik 62ra pasa baita kopurua urteko lehen hiruhilekoan.

Euskal Kazetariak saria jaso du Ane Irazabalek

Freelance moduan nazioarteko gatazketan egin duen lanagatik jaso zuen Arrasateko kazetariak Euskal Kazetarien Elkartek eta Kazetarien Euskal Elkargoak banatzen duten saria. "Euskal kazetarien lana" goraipatu zuen Irazabalek sari banaketan

J.B. DEBAGOIENA

Astelehenean banatu zituzten, Bilbon, Euskal Kazetarien Elkartek eta Kazetarien Euskal Elkargoak urtero ematen dituzten Euskal Kazetaritza sariak. Ane Irazabal arrasatearrak "freelance moduan nazioarteko gatazketan egin duen lanagatik" jaso zuen aitortza.

Aurreko edizioetan, besteak beste, Jon Sistiagarentzat, Iñaki Gabilondorentzat eta Mikel Ayestaranentzat izan zen sari bera jaso du arrasatearrak.

Saria jasotzean, aitortza ezusteko ona izan dela adierazi zuen Ane Irazabalek, eta hasieran lana eman zioten hedabideak



Ane Irazabal, saria jasotzen. EITB

izan zituen gogoan, baita une oro babestu eta animatu duen familia ere. Era berean, euskal kazetarien lana goraipatu zuen arrasatearrak, eta euren beldurak eta ametsak kontatu dizkieten pertsona guztiei eskaini zien saria; batez ere, haren esanetan, "geroago eta insolidarioago den Europaren eta ahanzturaren biktimak diren errefuxiatuei".

Sari banaketan, Gervasio Sanchezen ibilbide profesionala ere saritu zuten, eta Mariano Ferrer eta Iñaki Iriarte nabarmendu zituzten, baita Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ere.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN

EKONOMIA SUSTAPENA

Zibersegurtasun zentro aurreratua Donostian

Gipuzkoako Zibersegurtasun Industrialeko Zentro Aurreratuaren egoitza Zuatzuko enpresa parkean kokatuko da, Donostian. Horrek, besteak beste, lurraldeko enpresei zerbitzua eskainiko dien zibersegurtasun industrialeko laborategia hartuko du, non enpresa horien produktu eta zerbitzuak frogatzeko aukera eskainiko den.

1,5 milioiko finantzaketa

Proiektuaren azken diseinua amaitu da dagoeneko, eta fundazio publiko gisa hezurramituko da urte amaieran, zeinetan Donostiako Udalaren parte hartzea aurreikusten den. Modu operatiboan, berriz, datorren urte hasieran egongo da martxan, bokazio industrial garbiarekin, eta zibersegurtasunaren desafioan industria gipuzkoarrari laguntzeko eta eremu horretan ekonomia aktibitate berria sortzeko helburuarekin.

Foru Aldundia *Etorkizuna eraikiz* egitasmoaren testuinguruan bultzatzen ari den proiektu estrategikoetako bat da hau, eta foru erakundearengandik 1,5 milioi euroko finantzaketa jasoko du ekimena abian jartzeko.



Goia, Donostiako alkatea; Olano, diputatu nagusia; eta Aizpuru, Ekonomia Sustapen diputatua.

Gipuzkoako diputatu nagusiak, Markel Olanok, adierazi du egitasmo horrek Foru Aldundiaaren estrategia ekonomikoaren bi helburu nagusiak batzen dituela: batetik, Gipuzkoako industriaren "lehiakortasuna bultzatzeko" konpromisoa; eta, bestetik, enplegua eta lanpostu berriak sortzeko "etorkizuneko sektoreetan Gipuzkoa kokatzeko" ahalegina. Eta gaineratu du: "Lurraldeko enpresek erakutsi diguten kezka edo ezinegon bati erantzun nahi diogu

Zibersegurtasun Industrialeko Zentro Aurreratuarekin. Hori egingo dugu, gainera, gure lurraldeko industriaren berezitasunei arreta eskainiz". Izan ere, zibererasoak jaso izana aitortu dute enpresen erdiek.

Zentroaren ezaugarriak

Zentroaren helburu nagusiak honako hauek izango dira: ezagutza sustatu zibersegurtasun industriaren arloan lurraldeko enpresei zerbitzua emango dien I+G+b-ko laborategi baten bitartez, ekoizpen sistemak eta ekoizten dituzten produktuak egiaztatzea posible izanda; sentsibilizazioa eta formakuntza, talentua sustatzea xede izanik; enpresetan zabaldu zibersegurtasunarekin lotura duten ohitura eta praktika onak, teknologia behatoki baten laguntzarekin; enpresentzako aurre hartze eta esku hartze erreminten garapena eta bultzada; eta ekintzailetasun eta zibersegurtasun sektoreak indartzea, hain zuzen ere.

Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko diputatu Ainhoa Aizpuruk azaldu duenez, zentroak "punta-puntako" azpiegiturak izango ditu. Horri esker, "gaitasun handiko baliabideak" jarriko dira lurraldeko enpresen eskura. Gainera, "sektoreko enpresen eta eragileen artean elkarlanerako eremua" sortzea ahalbidetuko du azpiegiturak.

ORAIN GIPUZKOA



Informazio gehiagorako, eskaneatu QR kode hau.



Bi suhiltzaile lanean, Zubillagako etxean. GOIENA

Suhiltzaile zerbitzua, hobe eta azkarragoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako suhiltzaile zerbitzua eguneratuko du, eta larrialdien arreta "nabarmen hobetuko" da lurralde osoan. Bi gune zentral egongo dira, lehenengoa Donostian, eta bigarrena, Bergaran

Miren Arregi ARRASATE

1980ko hamarkadan diseinatuakoa da gaur egungo suhiltzaile zerbitzua, eta urte hauetan guztietan izandako aldaketak direla-eta zaharkituta gelditu da hori: "Suteak asko gutxitu dira, istripuak gehitu, enpresen egoera ere desberdina da, eta, gainera, errepide sarea asko aldatu da", dio Gipuzkoako Foru

Aldundiko Gobernantza eta Komunikazio diputatu Imanol Lasak. Hala, eguneratu egingo da lurraldeko suhiltzaile zerbitzuen antolaketa eredua.

Zerbitzua zaharkituta

30 urtetik gorako zerbitzuan egindako esku-hartzeetatik jasotako datu estatistikoak erabiltuta, lurralde osoko larrialdien

arretaren kalitateari buruzko diagnostikoa egin dute Foru Aldundiko teknikariek. Gaur egungo Gipuzkoako bi suhiltzaile zerbitzuek –Donostiako Udaleko suhiltzaile zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak– Gipuzkoako 89 udalerrietako bakoitzean dituzten erantzun denboren azterketa zehatza egin ondoren, Gipuzkoako larrialdien

arreta planteamendu orokor eta berria egin da, eta Gipuzkoa Babestu 2.030 planean neurri batzuk jaso dira. Lurraldeko larrialdien ikuspegi integral eta funtzional berriak eta bi suhiltzaile zerbitzuen jarduera bateratzeak aukera emango du estaldura eremuen antolaketa sistemaren antolamendua sinplifikatzeko, lurralde osoan eredu bakar bat ezarritik, bi jardueraren eremu bereziturekin: Ekialdea eta Mendebaldea.

Zerbitzuak batera jardutea

Zerbitzuaren berrantolaketak bi gune zentral sortuko ditu: "Alde batetik, Donostia; eta bestetik, Bergara. Bi horiek izango dira bihotzak. Zerbitzua sinplifikatu egingo da, eta hobetu eta azkartu egingo da", dio diputatu Imanol Lasak. Hala, Donostiako suhiltzaile etxeak eta mugakide diren Zarautz, Tolosa eta Irungo suhiltzaile etxeek osatuko dute Ekialdea eremua. Mendebaldeko bihotza Bergaran egingo den parke berria izango da, eta, harekin batera, Elgoibarko, Ordiziako eta Azpeitiko suhiltzaile etxeek osatuko dute eremua. Oñatiko parkea desagertu egingo da.

Suhiltzaile etxe batzuen kokapen berriak eta bi suhiltzaile etxe berri –horietako bat da Bergarako– eremu estrategikoan irekitzeak aukera emango du zenbait suhiltzaile etxeren arteko laguntza denborak murrizteko, "gaur egun handiak baitira", adierazi dute suhiltzaileen departamentutik.

Bergarako, etxe zentrala

Esan bezala, jarduera eremu horietako bakoitza –Mendebaldea eta Ekialdea– suhiltzaile etxe zentral baten inguruan

antolatuko da, "zeina erreferente izango den eremu horretako gainerako suhiltzaile etxeentzat". Ekialdea eremuko suhiltzaile etxe zentrala Garberan dagoen Donostialdeko suhiltzaile etxea izango da eta Mendebaldekoa, berriz, Bergaran kokatuko den Debagoieneko suhiltzaile etxe berria. Hain zuzen ere, Bergarako etxe berria Foru Aldundiko suhiltzaile etxe garrantzitsuena bihurtuko da, zerbitzuak izango dituen baliabide eta bitarteko kopuruari dagokionez.

Modu estrategikoan kokatuta

Suhiltzaile etxe zentralak –Garberakoa eta Bergarakoa– modu estrategikoan kokatuta egongo dira lurraldearen barruan; izan ere, errepide lotuneen ondoan kokatuta egoteaz gain, simetriko bantatuta daude lurraldearen mutur bakoitzean, eta populazio eta industria kopuru handia biltzen dute inguruan.

Lurraldearen azaleraren %40 hartzen duen Ekialdea eremua barruan ia milioi erdi biztanle egongo dira; hau da, Gipuzkoako biztanleriaren %70 inguru. Oraingo datuen arabera, eremu horretan urtean 3.000-3.500 larrialdiri erantzun beharko litzaieke. Mendebaldeko eremuak Gipuzkoako azaleraren gaineko %60a hartuko luke, eta biztanleriaren %30 batuko litzaiteke bertan. Hain zuzen ere, kalkuluen arabera, urtean 1.200-1.800 larrialdiri erantzun beharko litzaieke.

BERGARAKO ETXE BERRIA IZANGO DA FORU ALDUNDIKO SUHILTZAILE ETXE GARRANTZITSUENA

Errekuntza sistema berritzailea, Debagoienean diseinatu

Kanporako gas barbakoen errekkuntza sistema berritzailea diseinatu dute IK4-Ikerlanek eta Coprecik

M.A ARRASATE

IK4-Ikerlan zentro teknologikoa eta Copreci kooperatibak lagundu dute kanporako gas barbakoen errekkuntza sistema berritzailea garatzen, Weber erraldoi iparramerikararentzat. Bar-

bakoen pizte prozesua eta errekkuntza baldintzak hobetu dituzte, eta segurtasuna areagotu. Sisteman sartutako berritasunek eta hobekuntzek diseinu berria patentatzera eraman dute fabrikatzaile amerikarra; paten-

te eskaeran onartzen da IK4-Ikerlan zentro teknologikoa eta Copreci euskal kooperatiba izan direla diseinu berriaren asmatzaileak.

Prototipoak –industrializazio fasean baitago– barbakoren pizte prozesua, aire eta gas nahasketa eta barbakoren segurtasuna hobetzen ditu.

Garapenari esker, Coprecik sendotu egin du bezero garrantzitsu horrekin duen harremana eta handitu egin du harekin fakturatzen duena.



Argazkian, Weber etxearen barbakoa bat. WEBER



RENAULT
Passion for life

Renault KADJAR

Crossover by Renault



Serie mugatua TECH ROAD TCe 97kW (130ZP)

17.900€ -tik aurrera*

8. EASYIDEA

ABANTAILAK GEHITZEN DIZKIOGU
AURREZPENA GEHITZEN DIOZU

17,8 cm-ko (7") ukimen-pantaila, Smartphone Connection eta guzti

Trakzio-kontrola Extended Grip sistemaren bidez

Kanpoko kirol-diseinu dotorea

Renault Kadjar gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,8tik 6,2ra bitartean. CO₂ isuriak (g/km) 99tik 139ra bitartean. *Eskaintza honek Penintsulan eta Balearretan balio du, partikularrentzat eta autonomoentzat, 2017ko azaroaren 1etik 30era bitartean eskatutako eta matrikulatutako Renault Kadjar Tech Road TCe 97kW (130ZP) autoentzat, RCI Banque SA Sucursal en España-rekin finantzatuz gero, eta erositako Renault berriaren truke edozein markatako ibilgailua entregatuz gero. Borne daude zergak, garraioa, RECSAK eskainitako promozioak eta Acción Reprise. Finantza beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. Gubiernezko epea: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Irudiko modeloa: Renault Kadjar Zen Energy TCe 97kW (130ZP), desira-gorriko pintura metalizatu berezia, eta 48 cm-ko (19") aleazko haguneak. Extended Grip aukerakoa. PSP gomendatua (zergak, promozioak eta Acción Reprise berriz hartuta): 20.650€.

Renaultk gomendatzen du **elf**

renault.es

AUTOBERRI San Andrés Auzoa, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE

"Sistema kapitalistaren kolapsoa etor liteke"


CARLOS TAIBO IDAZLEA

Egungo bizi eredua izan du aztergai idazle madrildarrak. 'Colapso. Capitalismo terminal, transición ecosocial, ecofascismo' liburua da haren ikerketaren emaitza

Iker Oñate DEBAGOIENA

Azken lana esku artean, horren inguruan jardun zuen Carlos Taibo (Madril, 1956) idazleak eguaztenean, Arrasateko Jai Zale elkartearen. Hain zuzen, *Colapso. Capitalismo terminal, transición ecosocial, ecofascismo* bataiatu du liburua; eta horren bueltako berbaldiak eskaintzen dihardu. Aukera aprobetxatuz, lan horri buruz jardun du Taibok. **Kolapsoaz diharduzu liburuan. Bada, zer da kolapsoa?**

Prozesu bat litzateke kolapsoa, gizartearen eraldaketa bortitza eragingo lukeena. Horrek ondorio nabarmenak izango lituzke: erakundearen hondorik gabeko krisia eta ekonomiaren zein gizartearen funtzionamenduaren desitxuratzeara, besteak beste. Horiek atzera bueltarik gabeko aldaketak lirateke, nolabait; batez ere, gizarte ereduak gero eta zailago egiten duelako gisako arazoei aurre egitea. Sistema beraren kolapsoa letorke, beraz.



Carlos Taibo idazlea, liburua eskuan duela. IKER OÑATE

Azaldu egiguzu.

Gaur-gaurkoz nagusi den sistema kapitalista dominatzailea kolapsora bidean dela esango nuke. Hor, bada, bi faktore gailenduko lirateke: lehengaien agortzea eta klima aldaketa.

Aipatu beharra dago, dena den, horiek ez liratekeela faktore bakarrak; besteak beste, krisi demografikoa, soziala eta finantzarioa ere aipatu beharrekoak ditugu; zelan ez, kolapsoari aurre egitea zailduko lukete horiek.

Klima aldaketa aipatu duzu...

Teoria orokorrak dio klima aldaketak tenperaturaren gorakada eragingo duela. Iberiar Penintsulan, esaterako, batez ere hegoaldean eta mediterraneoaren kostaldeko herrietan gertatuko litzateke hori. Horri lotuta, zientzialariek diote planetaren batez besteko tenperaturak bi graduren bueltan egingo duela gora -industriaurreko datuekin alderatuta-. Hori gertatzean, inork ez daki zer etorriko den; baina ziur naiz ezer onik ez dugula izango.

Munduko agintariak denbora daroate klima aldaketaren kontrako neurriak adosten.

Hori dirudi. Azkenaldian, oso entzuna da Parisko akordioa. Dena den, nire ustez, irudia garbitzeko eta arazoa konpontzeko zerbaitean dihardutenaren itxura emateko besterik ez dihardute horretan. Alegia, errealtatearen azterketa egin duen edozein talde ekologistak daki adostu dituzten erantzunerako neurri horiek oso murrizak direla; ez dira aski, inolaz ere. Eta ez hori bakarrik: zalantza dago herrialde guztiek bertan adostutakoa beteko duten. Berdina gertatu zen Kyotoko Protokoloarekin.

Orduan, gertatzekotan. zein eragin izango luke kolapsoak?

Sistemaren zutabe asko jarriko lirateke hankaz gora. Esaterako, nabarmen egingo luke behera energiaren eskaintzak, horrek

dakarrenarekin. Bestetik, krisi ekonomiko latza etorriko litzateke, eta, horrekin batera, lan esplotazioa, enpresen itxiera eta langabeziaren gorakada. Horrez gain, bestalde, finantza arazo latzak agertuko lirateke; hainbaten artean, osasun publikoaren eta hezkuntza alorraren arrakala ekarriko luke horrek. Beraz, dudarik ez larria litzatekeela egoera.

Eta, bada konponbiderik?

Kolapsoa ezingo litzateke saihestu. Gertatzekotan, horren ondorioak leuntzea besterik ez genuke izango. Oro har, uneko panorama ez da eroso izango. Tartean, ahalmen mugatua duten botere tradizionalen eta neurri alternatiboak proposatzen dituztenen arteko lehia aurreikusi daiteke. Bada, zentzuzkoena, egitasmo berritzaileak behetik antolatzea litzateke, autogestioz, demokrazia zuzenaz eta ikuspegi solidarioz. Horrez gain, soluzioaz mintzo, ekofaxismoa aipatzen duenik ere bada. Hori, biztanleriaren zati baten deuseztatzea litzateke, soberan legokeenarena. Finean, naziak Alemanian egin zutenaren tankerako zerbaite litzateke.

"EZINGO LITZATEKE KOLAPSOA SAIHESTU; HORREN ONDORIOAK LEUNTZEA BESTERIK EZ GENUKE IZANGO"

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORRIATZA

- Iturgintza eta gasa

- Berogailuak eta petrolio-produktuak

- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

GUTUNAK

Bergaran zinemarik gabe

IÑIGO GARITANO
BERGARA

Zinema maite dugun bergararrok zapuztuta, eta haserre, egoteko arrazoiak baditugu.

Novedades itxi zigutenetik pelikulak ikusteko herritik atera beharra izan dugunok, tamalez, berdin jarraitu beharko dugu.

Ez dut jarraitu Seminarioko kultur ekipamenduaren proiektua, baina zalantzarik ez nuen zinema eskaintza berreskuratuko genuela oraingoan.

Baina zurrumurruak heldu zitzaizkidan esanez zine programaziorik ez dela aurreikusten.

Zuzenean galdetu eta, susmo txarrenak konfirmatu egin dira: badirudi azpiegitura prestatu dutela edozein momentutan zinema emateko, baina ekipoa eskuratzeko ez omen du gure Udalak gaitasun ekonomikorik. Udalak ez duena da zinema bere lehentasunen artean.

Ekipoa eskuratzeta eta zine komertzial programazioa mantentzea posible da gurea moduko herri baten.

Ikustea besterik ez dago inguruko hainbat eta hainbat herritan udalek mantendutako areto eta programazioa badutela – Arrasate, Eibar, Oñati,

Tolosa, Zarautz, Zumaia, Villabona, eta abar–.

Badakit zinea ikusteko era aldatzen ari dela azken urteetan, eta aretoetara ez doala jende uholdea. Baina pantaila handi baten pelikula bat ikustean plazera sentitzen dugun bergararron nahiak ere aintzat hartu beharko dira noizbait, ez?

Urte gehiegi daramatzagu zinema aretorik gabe herrian. Noiz arte?

Zorionak Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari

ENEO BARBERENA MONDRAGON
ARRASATE

Asteburuan, zarzuela ikusteko parada izan dut Amaia antzokian, eta ekimena txalogarria dela iruditzen zait. Hasteko, izugarrizko auzolana eta herrilana delako horrelako obra bat taularatu eta plazaratzeta. Maite dut Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren ekiteko kemena, bene-benetan. Irudikatuz bakarrik zenbat lanordu boluntario dauden jantziak egiten, atrezkoa, antzerki entseguak, musika, eta abar, izugarria da lana. Are gehiago, horrenbeste urtez jarraian egiten dela aintzat hartuz. Behar du Arrasate horrelakorik.

Guridi maisuaren musika ere ederra da. Lagun batek esan zidan arreta jartzeko horretan, eta benetan arrazoa du. Antzezle eta abeslariak ere duin,

txukun, elegante. Ziur nago herri gutxi dutela horrelako obra bat prestatu eta taularatzeko gaitasuna eta adorea.

Baina bat jartzekotan, obraren libretoari da. Badakit *El caserío* 1926ko obra dela eta orduko begiekin begiratu behar dela, baina emakumeen trataera, euskalduntasuna edota klase sozial aspektuak oso nabarmenak egin zaizkit. Niri, pastoralen adibidea etorri zait burura, oso genero tradizionala Xiberuan, baina azken urteotan obra moderno eta berritzaileak planteatzeko gai izan dena. Iruditzen zait interesgarria izango litzatekeela zarzuelak ere tematika zein ikuspuntu garaikideak txertatzea bere obran. Kultur generoa biziko bada, berritasuna da gakoa, Jon Maiak bertsolaritzari buruzko bere azken lanean errepikatzen duen moduan.

Halere, nire iritzi xumea besterik ez da azken hau. Oro har, zoriontzeko moduko lana iruditzen zait Izaskun Murgia Elkarte Lirikoarena. Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi Amaia Udal Antzokiko lantaldea. Oso harro egon behar ginateke udal kultur ekipamenduetan lanean ari diren langileez. Lan profesional eta hurbila egiten dute, bejondeiela! Oraindik beste asteburu batez dago zarzuela antzokian, nik ez nuke aukera pasatzen utziko.

HANDIK ETA HEMENDIK

Dardara

JOKIN LABAIEN
HTTPS://LABUR.EUS/OMKA5
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ematen diot garrantzia neure buruari, baina neurrian.

Horregatik, ulertzen dut hitzoi besteez ere kasu askorik ez egitea. Badira, ordea, gaiak zilegitasun handiz mintzo direnak, zimenduak dar-dar jarri behar lituzketenak.

Hona adibide bi: Elixabete Garmendiak, udan: "Ni sartu nintzenean, ETB bakarra zen. Sartu eta berehala sortu zuen Gorordok ETB2. Hasieran gogoan dut oso prekarioa zela. Hori hala da. Baina gerora ETB2k hartu zuen indarra, eta hor jarraitzen du. Ez dago orekarik. ETB2k ditu mimo guztiak, garrantzia eta aurrekontua. ETB1 subsidiarioa da. Hori barruan gaudenok horrela bizi dugu. Begirune falta izugarria dago ikusleekiko eta kazetariokiko. Baina hori baino okerragoa da erreferentzialtasuna deitzen zaion horrena. Non daukazu zuk zentroa? Norengana zuzentzen zara eta zer motatako albisteak kontatuz? ETBk gaur egun erreferentzialtasuna Espainian dauka. Tele5ri begiratzeko dio, eta jendeak, horretarako, nahiago du originala. Tele5 ikusten du, eta ez ETB. Telebista akonplejatu bat da. 30 urteotan ETBn egon diren buru gehienak izan dira euskal mundua interesatzen ez zitzaienak. Interesatu ez

eta, gainera, euskal munduari mesfidantzaz begiratu eta gutxietsi. Oso profil baxuan jarrita". Inma Erreak, berriki: "ETBn egiten nuen kazetaritza motara ez nintzateke itzuliko. Esperientzia ona izan zen, baina une txarrak ere pasatu nituen. Orduan hasi zen kazetaritza aldatzen. Ikuskizunari gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion, eta hala da orain ere. Kazetaritza ikastea hautatu nuen idaztea gustuko nuelako, baina badira gauza asko jasaten ez ditudanak, ikuspegi sexista, esate baterako. Aurkezleak ezkontza batera joanen balira bezala doaz jantzita. Negu gorrian, tirantedun soineko dotoreekin, izugarrizko takoiekin... Eta hori gizartearendako eredua da. Horrek ez ditu emakumeak ahaltsuago bihurtzen, ahulago baizik. Mezua da irudia oso inportantea dela, agian inportanteena. Telebista frantsesean ez da hain muturrekoa, jantziak soilagoak dira, esate baterako, eta Ingalaterran berdin. ETB jarraitzen ari zaio Estatuko beste telebisten ereduari, eta ez zait gustatzen. Azken boladan, TV3 ikusten dut. Telebista konbentzionalen artean, duinena iruditzen zait".

Badirudi, baina, ez dela ezer gertatzen.

Ez da dardararik sumatzen.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

AITZOL ITURBE BERISTAIN

Preso politikoak etxera!

Sarritan entzuten da Euskal Herrian dagoeneko ez dagoela gatazkarik, baina egia dena da gatazkak berak bizirik jarraitzeaz gain –Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen ukapenaz ari naiz, beste hainbat badauden arren, gehienak injustizietatik eratorriak, denak ez esatearren–, gatazkako konfrontazio armatuaren ondorioek ere bizirik dirautela, dagoeneko konfrontazio armaturik ez badago ere. Komeni da aipatzea konfrontazio armaturik ezak ez duela armen erabilerarik eza bermatzen, eta, Estatuak beti egin duen bezala, bere lege injustuak armekin inposatzen jarraitzen duela.

Orain aste batzuk, Puigdemontek iradoki zuen "azkenaldian ez bezala" preso politikoak daudela Espainiako Estatuan. Euskaldunok eta Kataluniako zein Espainiako Estatuko hainbat eta hainbat militante abertzale eta ezkertiarrek badakigu preso politikoak 78tik hona etengabe egon direla; armak erabili

dituztenak, eta armarik erabili ez dutenak.

Herri zapalduontzat batere fidatzekoa ez den Amnistia Internacional erakundeak hala aitortzen du, preso politikoak dela arrazoi politikoaren harira egindako ekintzengatik espetxeratua dena (*Naiz*,

EGIA DA GATAZKAKO KONFRONTAZIO ARMATUAREN ONDORIOEK ERE BIZIRIK DIRAUTELA

2013ko apirilaren 4a).

EITBk ere hobe luke bere jarduna zuzendu eta egun *ETAk* presoak deitzen dienei, *euskal preso politiko* deituko balie, denak ez baitziren *ETAk* kide izan. Agerikoa da gatazkaren erroak ezkutatzeko asmoa dagoela terminologia hautu horretan.

Baieztape horien ostean, hainbat datu kezkarri eman nahi nituzke. Euskal Herriak dauzka:

309 preso politiko.

Horietatik 13, gaixotasun larriekin.


Horietatik 34, hogeitertetik gora espetxean daramatenak –tartean, Antzuolako *Eltzikorta*–.

Pausoz pauso denak ekarri beharko ditugu Euskal Herrira, lehenik, eta etxera, ondoren, gaixotasun larriak dituztenak lehenasunez.

Bakean bizi nahi dugula esaten dugu; ba, preso politikorik ez egotea bakerako ezinbesteko baldintza da, nahikoa ez den arren. Abenduaren 9an Parisen izango naiz ni ere.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Hauspoa

ANDONI EGAÑA

[HTTPS://LABUR.EUS/3WJMB](https://labur.eus/3WJMB)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

San Blas, anix zaporeko opilak noiz jango egoten ginelako.

Aingeru Guardakoa, askotan entzuna izateaz gain Joxe Anjel Iribarren jaiotze data delako.

San Antonio, Urkiolako harriari bueltaka ibiltzearenak grazia egiten zidalako.

San Joan, ("batailatzailea" irakurri nuen behin) oporrak hartzen ziren garaia zelako.

San Pelaio, herriko jaiak direlako.

San Inazio, Alba etxeko dukesak ere ereserkia kantatzen zekielako, "nahiz betor" deszifragaitz hori barne.

San Frantzisko Xabier, ikastolan jai ematen zigutelako.

Santa Barbara, gorantz begiratzean huraxe ikusi izan dudalako betidanik.

Santo Tomas, aitonaarekin goroldiotara joaten ginelako trenbidean aurrera.

Nire santu-santa faboritoen zerrenda osatzeko bat behar nuen.

Atzokoa.

Santa Zezilia, musikarien patroia.

Eta atzo jakin nuen Santa Zezilia musikarien patroia izan

daitekeela itzulpen akats bat dela medio.

Ez zen, nonbait gerora norbaitek ulertu zuen gisan, organoa jotzen aritzen.

Martiri izan zen III. mendeko Erroman eta bere etxea kez beteta ito nahi izan zuten.

Organis hura ez zen orduko musika tresna, kea zabaltzeko hauspo erraldoia baizik.

Musika eta tortura.

Bi kontzeptu uztargaitz. Batean isilaldia omen da ederren.

Besteak ez du horrelakorik onartzen.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administratzaile zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailatako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administratzaile

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Gure hizkuntza aktibatuko duen dinamika izango da"

ELENA LAKA EUSKALTZALEEN TOPAGUNEN PRESIDENTEA

Mireia Bikuña ARRASATE

Hizkuntza aktibaziorako helburu duen dinamika berria aurkeztu dute: Euskaraldia. Hainbat erakundek eta euskaltzale taldek parte hartuko dute dinamikan. Tartean, Euskaltzaleek Topaguneak, Elena Laka presidentea buru duela.

Euskaraldia, dinamika bat dela argi utzi gura duzue. Alegia, ez da kanpaina bat.

Hori da. Ez da momentu jakin bateko kanpaina, ospakizun bat. Hizkuntza ohituretan eragingo duen dinamika bat da. Epe luzerako emaitzak eta ondorioak emango dituena. Gizarte dinamika bat da. Egunerokoan txertatzeko dinamika izango da.

Zeintzuk dira helburu nagusiak?

Hizkuntza-ohiturak aldatzea. Bereziki, euskaraz dakitenei eta euskara ulertzeko gai direnei zuzentzen gara. Taldean gaudenean, pertsona batek euskaraz hitz egiten ez badu, hizkuntza aldatzeko joera daukagu. Hori da aldatu



Euskaltzaleen Topaguneko presidente Elena Laka. GOIENA

beharrekoa: euskara izatea gure arteko lehenengo eta azkenengo berba.

Zer-nolako ekintzak egingo dituzue?

Herri mailatik abiatuko dugun dinamika da. Pertsona

batzuk izango dira *belarri-prest*. Hau da, euskaraz berba egiteko gai ez direnak, baina euskaraz berba egitea oztokatuko ez dutenak. Eta, euskaraz jardungo dutenak izango dira *ahokiak*.

Ze esparrutan eragin nahiko zenukete?

Nork bere ohiko esparruetan. Hau da, kuadrillan, lagunartean, lanean, kirol eremuetan, aisialdi taldeetan, guraso taldeetan, kultura esparruan...

Atzo aurkeztutako Euskaraldia dinamika lehen pausoak bakarrik eman ditu.

Urtebeteko lanketa egin beharko dugu, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, *11 egun euskaraz* ekimena egin ahal izateko. Egundorietan ahalik eta herritar gehien ipini gura ditugu euskaraz jarduten, eta, erraza dirudien arren, lanketa sakona eskatzen du aurretik. **Herri batzuetan egin izan dituzte halako dinamika.**

Hala da. Eta horietan ikusitako erantzunak eta emaitzak bultzatu gaitu Euskal Herri mailako dinamika hasiera ematera. Lekuaren arabera, egundorietan edo gutxiagotan jardun dute euskaraz. Gu, hamaika egunekin hasiko gara.

Hasi, bakarrik.

Hori izango da 2018rako erronka. 2019rako gurako gure erakunde publiko eta pribatuei beste aurrerapauso bat eman dezaten eskatzea. Euskararekiko pausoak.

HAU BE BADOGU!

Udalerri euskaldunen '#erronkak' aztergai



Arnasguneen eta udalerri euskaldunen erronkak aztertu dituzte asteon Uemak eta EHUK bultzatutako jardunaldietan. Gaia *trending topic* izan da euskal erabiltzaileen artean.

@mertxemugika: "Udalerri euskaldunen *#erronkak*. Ahal dela indarguneei eutsi eta ahal dela galbideak ekiditea".

@skluster: "Euskararentzako konponbiderik ez da kanpotik (Europatik) etorriko. Hemen landu behar dugu", Iñaki Agirreazkuenaga *#erronkak*".

Maialen Aulestia haurrari laguntza

Hainbat hedabidetan Maialen Aulestia bilbotarraren kasua irten ostean, sarean *#gomaialen* traolarekin babesa erakutsi nahi izan diete erabiltzaileek. Maialenek 6 urte ditu eta Donohue sindromea duen Europako pertsona bakarra da munduan hiru kasu daude.

Bilboko haurrari babesa eta laguntza eskaintzeko, hain zuzen ere, *#gomaialen* webgunea eta traola sortu dute haren gurasoek eta ingurukoek.

Durango Azokaren aurkezpenean hizpide

Abenduaren 6tik 10era egingo den Azoka *trending topic* izan da asteon *#52DA* traolarekin, bertan izango diren beritasunak aurkeztu ostean.

@durangokoazoka: "*#52DA* @ahotsenea-k 2017ko diskoen eta liburuen aurkezpenak hartuko ditu. Zuzenekoan karpan 70 musikari eta solasaldien gunean, aldiz, 53 aurkezpen izango dira!".

@anboto: "Bost eguneko bidaia sormenaren lurraldean zehar. @durangokoazoka *#52DA*".

ITURRI ONETIK

Gabonetako argiak piztuko ditu Ointxek

Ointxe Arrasate saskibaloia elkartea albiste da azkenaldian, sortu zuteneko 50. urteurrena ospatzen diharduen denboraldian: dela Josu Larreategik utzi egin diolako talde nagusiko entrenatzaile izateari; dela zalaparta handiz aurkeztu dutelako Justin Satchell iparramerikarraren fitxaketa. Baina kirolek kanpo ere protagonista da Ointxe: urrezko ezteiak ospatzen dituela-eta, Arrasateko Gabonetako argiak piztuko ditu abenduaren 6an, Herriko Plazan, 18:30ean.

GORA ETA BEHERA



"Arduraz jokatu eta neurriak hartzeko" eskaria

Arrasateko Ferrerías kalean. Olarte kalearekin lotzen duen pasabidean. 08:50ean. Ikastolara bidean. Umeak, karroan. Eta ezin pasa; buelta eman, eta beste kale batetik eskolara. "Errespetu falta handia da oinezkoentzako kalean, pasabidean, furgoneta horrela uztea", dio herritarrek. Furgonetakoari arduraz jokatzeko eta udaltzaiei neurriak hartzeko eskatu die.



2019an 114 etxebizitza egiten hasteko akordioa

Guztira, babes ofizialeko 184 etxebizitza egingo dira; hasieran 114 eta gero 70. Hasierako 114 horietatik 63 salmentara eta 51 alokairura bideratzea jasotzen du Udal Gobernuak eta Visesa etxebizitza sustatzaileak egin berri duten akordioak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hamar urteko blokeo egoeraren ondoren, ospitale ondoko putzua arrasatearren etxebizitza behararak asetzeko bidean dago. Agintaldi honetan, egoera desblokeatzeko bilerak egin dituzte Udal Gobernuak kideek eta Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, eta elkarlan horren ondorengo etorri da konponbidea.

Maria Ubarretxena alkateak eta Visesak zuzendari Carlos Quindosek eman zuten akordioaren berri, martitzenean egindako prentsa agerraldian.

Hain zuzen, Quindosek alkatea eta bere taldea zoriondu zituen, behin eta berriz Visesak akordioa lortzeko izan duten "borondateagatik eta malguta-sunagatik".

Maria Ubarretxena, aldiz, bi aldeek konponbidea lortzeko egindako ahalegina azpimarratu zuen. "Egia da Jaurlaritzak eta Udalak, alde biek eman dugula amore puntu batean edo bestean, baina irtenbide bat behar zuen arazo honek, eta horretan ahalegindu gara".

Visesa enpresa sustatzailearekin lortutako akordioak gaur egun zona horrek pairatzen duen degradazio egoerari konponbidea emango diola azaldu du Udal Gobernuak. "Hamar urteren ostean, gure ardura, eginkizuna eta, bereziki, gure helburua izan da egungo egoerari behin betiko irtenbidea ematea, eta denbora honetan guztian proiektu hori lortzeko lanean aritu gara".

184 etxebizitza, bi txandatan

Bi aldeko akordioan jasotzen denez, guztira, babes ofizialeko 184 etxebizitza egingo dira, bi txandatan banatuta. Fase horietako lehena 2019an hasiko da eta 114 etxebizitza hartuko ditu bere gain.

Visesak zuzendariak azaldu duenez, falta diren 70 etxebizitzak beste fase batean egingo lirate-



Ospitale ondoko putzuan etxebizitzak egiten hasiko dira 2019an. XABI GOROSTIDI

ARRASATEN ERROLDATUTA IZATEA BEHARREZKOA IZANGO DA ALOKAIRUKO ETXEBIZITZETARAKO

ke, "beharren eta egoeraren arabera".

63 saltzeko eta 51 alokatzeko

Salmentarako 216 etxebizitza egitea jasotzen zuen 2007an Visesak eta ANV buru zuen Udal Gobernuak sinatutako akordioak.

Ordutik hona, proiektua ez atzera ez aurrera ibili da. Arrasateko azken bi udal gobernuek alokairurako etxebizitzak egitea eskatzen zioten Visesari, besteak beste, krisi ekonomikoaren eraginez alokairu eskaria handiagoa zela sumatzen zutelako. Gaur egun ere, Etxebiden izena emanda daukaten arrasatearren gehiengoak (%82,2) alokairua nahiago du; 439 eskatzailetik, 361ek, hain zuzen ere.

Hala, lehen faseko 114 etxebizitzetatik 51 (%45) alokairura bideratzea jasotzen du Visesaren eta Udal Gobernuaren arteko

akordioak. Horietatik, 33 bi gelakoak izango dira eta 18, hiru gelakoak. Salmentako 63 etxebizitzetatik, 43 hiru gelakoak izango dira eta 20, bi gelakoak.

Alokairu kupoa

Lehen fasean alokairura bideratuko diren 51 etxebizitzak asignatzeko, Udalak kupo sistema bat ezarriko du, herritarren beharren arabera banaketa egiteko, eta Arrasaten erroldatuta egotea beharrezkoa izango da. "2015eko Etxebizitza Legeak jasotzen duenez, udalek etxebizitzak banatzeko irizpideak ezar ditzakete. Hala, Etxebiden izena eman duten Arrasateko eskatzaileen ikerketa egingo dugu, zein eskatzaile mota dagoen identifikatzeko, eta mota guztietako biztanleek aukerak izateko".

Garajeak: solairu bakarra

Bloke berri horrek lurpeko apartamentuak solairu bakarra izango du, 199 plazako edukierarekin. "Inguruko etxebizitzetan beste 136 garaje daude libre, azken hamar urte hauetan saldu ez direnak, eta uste dugu 199 eginda eskaera beteko dela", adierazi du alkateak.

Biolentzia matxistaren aurkako ekintzak bihar

Goizean grafiti parte hartzailea egingo dute eta 19:30ean manifestazioa, Seber Altubetik irtenda

X.G. ARRASATE

Emakumeen Mundu Martxak, Emakume Txokoak, Pottogorriak elkarteak eta Udaleko Berritasun Sailak ekintza sorta antolatu dute, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren baitan.

Biharko, bi ekintza antolatu dituzte: lehena Kalealdea kalean Joana Mancisidorrek gidatuko duen grafiti parte hartzailea izango da. "10:00etan hasiko gara murala egiten, eta 17:00ak arte ez da amaituko. Beraz, tarte horretan hobekien datorkien momentuan pasa daitezke parte hartu nahi duten herritarrak. Eurria eginez gero, bertan beharra geratuko da grafitia", jakinarazi du Emakumeen Mundu Martxako Jasone Giraldek.

Ondoren, 19:30ean, Seber Altubetik manifestazio isila abiatuko da. "Emakumeen aurkako biolentziari buruz hausnartzeko egin dugu manifestazio isilaren alde, horren aurka gaudenon artean gaiari buruz patxadaz jarduteko", azaldu du Emakumeen Mundu Martxa Plataformako Maitane Igartuak.

"Garrantzitsua da ahalik eta emakume eta gizon gehien elkartzea, gizartearen gehiengoak aurka gaudela irudikatzen".

Hildakoen hutsunea gainditzeko laguntzeko hitzaldia asteartean

San Felipe Apostol Elkarlaguntza Elkartek antolatutako ekimena da. Doluan aditu Maite Urzain erizain geriatrikoak gidatuko du saioa eta aipamen berezia egingo dio ezusteko heriotzek eragiten duten doluari.

18:30ean izango da, Kulturatego areto nagusian, eta Iratzen eta Ainararen zuzeneko musikaren amaituko da.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Bota pilota!

Esfera borobilak badu garrantzirik munduan, hari emanez gozatzen baitugu sarritan, ostikoka, eskusartak emanez, edo eraginez... jokorako aukera anitz eskainiz.

Jokoa kirol taldean bada, fisikoaz gain, lidergoa, ekintzailetasuna, elkartasuna, parte-hartzea... denak batera jorratzen dira, taldearen onuraren helburuari jarraiki, erkidegoan murgil egin eta motibazioz blai ateratzeko.

Taldean aritzea, bizitzan bezalatsu, gizarte sarean murgiltzea baita. Pertsona ororen erronka da, bakunak ez baitauka zentzurik, ez bada familian, lagun artean, lanean, eskolan, auzoan... jende artean erroldatzea.

Gurean eskubaloiak du presentziarik, eskuz esku pasatu eta gola sari bilakatu arteko baloi jokoak. Tamalez, nire gaztetako garaian ez bezala, neska taldea gaur ez dago bermaturik. Hala ere, seguru nago gura izatea ez dela arazoa.

#sportwithvalues mugimenduak baliatzen dituen legez, animatu gura nituzke neska-mutil oro edozein talde-kirol egitearen onurak dastatzera. Etorkizunerako prestakuntza makala baita, coach-aren laguntzarekin, gaztetatik talde izaera lantzea.

OHARRAK

Zuzenketa

Zuberoako ikastolen saskiak eskatzeko ez joan Ereindajana; erabili www.ikaskoli.eu webgunea.

Auto-istripua

"Azaroaren 16an, 08:00etan, auto bat kolpatu nuen Epeleko biribilgunean. Kalteak erreklamatzeko, nire datuak Udaltzaingoa daude".



ZINEMASTE BURUA

ZINEMAKO SARRERA

LOR DEZAKEZU

CARREFOUR GORBEIAN

3€

-AN

EGIN 20€ EDO GEHIAGOKO EROSKETA CARREFOUR GORBEIAN



Gehienez ere zinemarako 2 sarrera eskuratu ahal izango dituzu 3€-ren truke bakoitza, Gorbeia Zinemetan 2017ko abenduaren 17ra arte ikusgai izango den edozein filmetarako.



EZINGO DA BESTELAKO ESKAINTZA EDO TA PROMOZIOREKIN PILATU, KONTSULTATU BALDINTZAK HEMEN:

CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM

LORTU ZURE

ZinemaBonua

★ EDOZEINENTZAT ETA ESKUALDAGARRIA ★

ZATOZ BAKARRIK,
LAGUNEKIN, TALDEAN,
ASTEKO EDOZEIN EGUNETAN
ETA EDOZEIN SAIOTARA

Eskuratu zure bonua 2017ko azaroaren 24tik abenduaren 31ra arte edo izakinak amaitu arte. Sarrera horiek 2018ko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango dituzu. Ez da bestelako promozioekin pilatuko.



BAKOITZA

4€

-AN



Aurrekontu "ahulei", emendakinak aurkeztuta

Adjektibo hori erabili dute Udal Gobernuaren aurrekontu proposamena baloratzeko. Guztira, 50 emendakin aurkeztu dituzte, "justizia sozialean aurrerapausoak eman ahal izateko", eta Udal Gobernuak planteamendua prentsa bidez jasotzea kritikatu dute

Txomin Madina ARRASATE

Udal Gobernuak egindako aurrekontu proposamenaren irakurketa egiteko eta aurkeztu dizkieten emendakinen berri emateko EH Bilduko zinegotziek egindako agerraldian, azpimarratu dute aurreko urteetan bezala Udal Gobernuak ez duela aurkeztu aurrekontuen memoriarik. "Normalean, legeak dio aurrekontuen asmoak idatziz jasota agertzen diren testu bat egon behar dela. Ez dute halakorik egin, eta prentsez izan dugu egitasmo batzuen berri. Guretzat, garrantzitsua da asmoak hasieratik garbi jasotzea", azaldu du EH Bilduren bozemaile Eneko Barberenak.

Hark gaineratu du Udal Gobernuaren aurrekontuak "ahulak" direla: "Egitasmo gutxi batzuek eroaten dute aurrekontuaren zati garrantzitsuenak, eta guretzat zentralak diren sail batzuetan, esaterako, kulturean, euskarari, enpleguan, hezkuntzan edo gazterian, ia ez dago ezer berririk". Horren harira, Barberenak dio aurrekontu "motelak" direla, Ekobulebarra bezalako proiektu batzuk "inbentibaren alorrean" kokatu daitezkeelako. Era berean, aurrekontu "kontserbadoreak" dira, Barberenaren iritziz: "Alternatibak egon diren egitasmoetan, beti hautu kontserbadoreenaren alde egin dute. Arrasateko Udalak aurrekontu ausartagoak behar ditu".

Hileta zibilak

Hileta zibilak egiteko gune bat, "goxoa eta estalia" izango dena egitea proposatzen dute EH Bilduko ordezkariak: "Aste honetan amaituko dugu egiten gabiltzan sinadura bilketa, eta eskaria badagoela uste dugu".

Kirol ekipamenduak

Arlo horretan inbertsio gehiago egitea eskatzen dute, besteak



EH Bilduko kideak, emendakinak aurkezteko prentsaurrekoan. TXOMIN MADINA

"UDAL GOBERNUAK EZ DU EZER BERRIRIK PROPOSATZEN GURETZAT ZENTRALAK DIREN SAILETAN"

beste, Mojatetik belar artifizialeko futbol zelaia, Iturripe kiroldegiko lurra, judoko tatamia eta boulderrerrako ekipamendua hobetzea lortzeko.

Alokairu-laguntzak hobetzea

EH Bilduren ustez, iaz martxan jarritako ekimenak ez ditu kontuan hartzen kolektibo jakin batzuek dituzten beharrak. Horretarako, Azpeitiko ereduari jarraiki, bigarren poltsa bat sortzea planteatzen dute kolektibo horientzako. "Honen bidez, beste herri batzuetan arrakastaz darabilten programa bultzatu nahi dugu. Hala, gazteez gain, mugikortasun urriko pertsonen, ezgaitasun absolutua dutenei, bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonen, 70 urtetik gorako pertsonen edo alargunen laguntzea lortu nahi dugu", azaldu du Eneko Barberenak.

EH Bilduren 10 emendakin nagusiak

Egin dituzten 50 emendakinetatik, honako hauek nabarmendu dituzte

- Hileta zibilak egiteko gunea
- Alokairuko laguntzetan bigarren poltsa sortzea
- Drogen prebentziorako laguntza igotzea
- Ekonomia soziala eta solidarioa bultzatzea
- Kiroldegiko inbertsioen partida handitzea
- Arrasatek hezi egitasmoarako diru partida
- Azoka proiektua 2018an egiteko partida
- Andradetan egitasmoa gauzatzeko diru partida
- Markulete auto garbigunearen zerbitzua mankomunatzea
- Alderdi politikoen finantziarioari buruzko eztabaida

Herriko langabeak kontratatzeagatik diru laguntzak

Programaren laugarren edizioa da hau. Oraingoan, diru laguntzak eskuratu ahal izateko, kontratuak 2017ko ekainaren 1etik aurrera eta abenduaren 31 baino lehen hasitakoak izan behar dute.

Bestalde, langabeek, gutxienez, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera Arrasaten erroldatuta egon beharko dute, eta enpresa onu-

radunek Arrasaten kokatuta egon beharko dute.

Diru laguntzen zenbatekoa kontratu bakoitzeko aldagarria da, lan jardunaren arabera: %50eko jardunetarako 1.125 euro eta %100eko jardunetarako, berriaz, 2.250 euro.

Bestalde, kontratuak iraupen mugagabeak diren kasuetan, %20ko diru laguntza gehigarria jasoko dute.

Informazio zehatzagoa nahi dutenek udal webgunean eta BAZen jaso dezakete.

Eibarko Hizkuntza Eskolako gela desplazatua, ikasturte berrirako

Ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko aukera izango da Arrasaten bertan, Eibarrera joan beharrik izan gabe

X.G. ARRASATE

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialaren hiru gela desplazatu Arrasatera ekartzeko akordioa egin berri du Udal Gobernuak. Hain zuzen, frantsesa, ingelesa eta alemana ikasteko aukera izango dute arrasatearrak, baina ez eurek bakarrik, baita bialarako biztanleek ere.

"Hizkuntza Eskola Ofiziala izatea urteetan eskari historiko bat izan da Arrasaten. Bide horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Sailarekin bildu eta hitz egin ostean, datorren ikas-

turteari begira Eibarko Hizkuntza Eskolako hiru gela desplazatu Arrasatera ekartzea lortu dugu", adierazi du Udal gobernuak.

Horretarako, Udalak azaldu duenaren arabera, datozen hila bateotan gela horiek kokatzeko lekurik proposena bilatuko dute.

"Aurrerapauso honekin Udalaren nahia izan da hizkuntzak ikasteko aukera Arrasate zein inguruko herrietako biztanleei hurbiltzea eta horretarako ahalik eta erraztasun gehien ematea".

EAJ eta EH Bildu aurrez aurre politika egiteko moduengatik

Azaroaren 10eko GOIENA aldizkarian Ibon Arrupek idatzitako artikuluak eragin du alderdien arteko talka

X. G. ARRASATE

Eneko Barberenaren liberazioak utzitako itzala luzea da oraindik. Urriko osoko bilkuran, EAJk liberazio proposamenaren aurka egin zuen, eta Barberenak harridura erakutsi zuen EAJk erabilitako tonuagatik. Hori dela eta, hurrengo astean, gertatutakoari buruzko hausnarketak plazaratu zituzten bi alderdiek, zauriak ixteko asmoz.

Baina azaroaren 10ean gaiari heldu zion berriz EAJko Ibon Arrupek, iritzi zutabe bidez, liberazioaren aurkako argudioak

emanez. Horren aurrean, Arrasateko EH Bilduk oharra argitaratu zuen, harridura eta kezka azalduta, eta galdera hau egin zioten Arrasateko EAJri: "Politika eraikitzailea egin nahi duzue, ala zuenak egiten dituzue alkateordearen hitzak?"

EAJk bi adibiderek erantzun zuen: "Elkarbizitza, errespetua eta tolerantzia lehenbizi norberak landu beharreko balioak dira. Batzokiko pintaketak ez gaitzestea eta EH Bilduren esku orrietan alkatea eta EAJko zinegotziak iraintzea".

Kulturartekotasuna eta bizikidetza kezka iturri

Gizarte zerbitzu ikuspegitik arrasatearrak kezkatzen dituzten gaiak ikertu dituzte Deustuko Unibertsitateko kideek. Herritarrekin eta 24 eragilerekin batzartuta egin dute txostena, eta orain, hamabi partaideko mahai bat eratu da gai horiei buruz jarduteko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gizarte ongizatean egiten diren ekintzak ahalik eta eraginkorrenak izateko, Udaleko Gizarte Sailak ikerketa bat enkargatu zion Deustuko Unibertsitateari. Helburua garbia zen: arrasatearrak gehien arduratzen dituzten gaiak identifikatzea, eta konponbideak bilatzea.

Hiru hilabeteko ikerketa

Apiriletik ekainera aritu ziren Deustuko ikertzaileak herritarren kezkak identifikatzen, berrituz, gizarte zerbitzuetako premiekin lotuta.

Horretarako, herritarrekin eta Arrasaten lan egiten duten 24 eragilerekin elkartu dira. Behin hori eginda, jasotako kezka guztiak gaika sailkatu, eta zortzi elementuko zerrenda bat osatu dute. Horren arabera, kezka gehien eragiten duen arazoa kulturartekotasuna eta bizikidetza da, pobrezia eta langabeziari alde txikia aterata. Osean, hauek lirateke kezka eragiten duten beste sei nagusiak, hurrenez hurren: droga-menpekotasuna, gazteen egoera, balioen galera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gizarte zerbitzuak eta etxebizitza.

Gaiak definituta, konponbideak bilatzea da hurrengo urratsa.



Deustuko unibertsitateko kideak txostena aurkezten. MIREIA BIKUÑA

Ikertzaileek irtenbide orokor batzuk zehaztu dituzte, baina, horrez gain, herriko hamabi eragilerekin mahai bat eratu da konponbideak bilatzeko.

Amaia Azpiazu Gizarte Ongizateko zinegotziak adierazi duenez, kulturartekotasuna eta bizikidetza arazoak lantzeko, bazegoen aurretik lantalde bat eratuta. "Harrera protokoloa hobetzeko asmoz sortu zen taldea. Hala, hamabi partaideko talde berrian, gai hori ez da landuko, eta gainontzeko zazpiekin hasi-ko gara lanean".

Gastu igoera 2018an

Udal Gobernuaren 2018rako aurrekontu proposamenean igoera aurreikusten da Gizarte Ongizate Sailean. "Gizarte larrialdiko laguntzetan pobrezia energetikorako laguntzak ematen hasi gara aurten, eta horrek gastua handitu du".

Babesgabetasun egoerako adingabeen laguntza ere handitu egingo da. "Kasu hauen detektatze goiztiarra lantzen hasi gara, ikastetxeekin eta osasun zentroekin, eta horrek kasu kopurua handitzea eragin du".



Grupo San Juan inguruan zegoen Sola jauregia. J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

Kubako azukrearen mozkinekin Arrasaten egindako jauregia

Arrasatear jatorriko Francisco Solak Kuban egindako diruarekin jauregia eraiki zuen bere sendiaren sorterrian

X.G. ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartearen *Iragana astintzen* zikloari azken geltokia falta zaio, eta erbestean aberastu zen Arrasateko familia bati buruz jardungo dute: Sola familiari buruz, hain zuzen.

Horretarako, Jon Ander Ramos EHUKo irakaslea gonbidatu dute, Kubako euskal kolektiboari buruzko doktoretza tesia egin duen EHUKo irakaslea.

"Solatarrek harreman oso estua izan zuten lekeitiar jatorriko Goitisoloko familiarekin. Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean ikerketak egin zituzten goitisolotarrei buruz, eta bertatik dator solatarrei buruz dauden erreferentzia gehienak", azaldu du Ramosek.

"Solatarrak ez dakigu zehatz-mehatz noiz joan ziren Kubara, baina Francisco bigarren belau-naldikoa dela badakigu. 1813an jaio zen, Kuban bertan, eta 60ko

hamarkadara arte Kuban bizi izan zen".

Azukrearen urterik oparoenak

Solatarrak eta goitisolotarrak hainbat negoziotan sartuta zeuden, baina, batez ere, azukrearekin lotutakoekin egin ziren aberats. "30, 40 eta 50eko hamarkadak izan ziren alor horretan errentagarrienak, eta Francisco Solak bete-betean baliatu zituen".

XIX. mendeko 60ko hamarkadan hasi ziren Kubako lehen independentzia aldarriak, 10 urteko gerra 1868an hasi baitzen. Hain zuzen, 1965ean, bere kapitalaren zati handiena atera, eta Bartzelonara joan zen urtebete geroago.

"Indianoen artean ohikoa zen euren sorterrian inbertsioak egitea. Hala, 1968an, Sola jauregia eraiki zuen bere arbasoen sorterrian, gaur egun Grupo San Juan dagoen eremuan".

Arrasatearren kezka nagusiak

Puntuazio altuena izan dutenak, hurrenez hurren:

- Kulturartekotasuna
- Pobrezia, langabezia
- Drogak
- Gazteen egoera
- Balioen galera
- Sexu berdintasuna
- Gizarte zerbitzuak
- Etxebizitza

Gaiak lantzeko lantaldea

Hamabi eragile hauek osatzen dute mahaia:

- Caritas, Duintasuna,
- Ekin Emakumeak,
- Saharaldeba, Gurutze Gorria, Emaus, Elkar
- Hezitzen, Lanbide, Udaleko
- Gizarte Saila, AGAKO,
- Emakume Txokoa eta ELA sindikatua.

carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA

ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82

scarrasc_1@infonegocio.com

Igerilekua klimatizatzeko laguntza "garrantzitsua"

Musakolako barruko igerilekua klimatizatzeko beharko den 133.289 euroko inbertsioaren erdia baino gehiago jarriko du Diputazioak –67.500 euro–; eta kiroldegian beste zaharberritze batzuk egiteko lankidetzan segitzeko atek zabalik utzi zituzten bi aldeek

Jokin Bereziartua ARRASATE

Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak hitzarmena sinatu zuten, atzo, Musakolako barruko igerilekuen klimatizazio sistema berritzeko. Lan horiek 133.289 euroko aurrekontua dute eta Aldundiak bere gain hartuko du erdia baino gehiago, 67.500 euro. "Guretzat, oso ekarpen garrantzitsua da Aldundiarena, eskerrak eman nahi dizkiogu", adierazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Udalak eta Aldundiak lankidetzat hitzarmenaren balorazio positiboa egin zuten, garai hauetan "inoiz baino beharrezkoagoa delako baliabide publikoak modu eraginkorrean eta jasangarrian erabiltzea", erakundeen arteko lankidetzatik abiatuta.

Egunero, 800 abonatu

Diputazioak hamaika milioi euro inguru bideratuko ditu aurtun Gipuzkoako kirol instalazioetan hobekuntza lanak egitera; Musakolako udal igerilekua klimatizatzeko bideratutako laguntza, hain zuzen, kirol ekipamenduak birmoldatu, berritu, ordeztu eta lekualdatzeko 2017-2020 urte aldiko planaren barruan kokatu beharra dago. Bestalde, gogora ekarri behar da Musa-



Garcia, Ubarretxena, Itxaso, Garai eta Alvarez, atzo, kiroldegia atarian. LARRAITZ ZEBERIO

kolakoa Gipuzkoako kiroldegi zaharren artean dagoela.

Eta atzoko agerraldian aditza eman zuten, igerilekuak 5.465 abonatu ditu eta horietatik 800 bat dira eguneroko erabiltzaileak dutenak. Abonatuen artean, 2.329 emakume eta 3.136 gizonezko daude.

"Ahalik eta mantenu onena"

Bestalde, diru laguntzak ematerakoan foru arduradunek hainbat irizpide izan dituzte kontuan; besteak beste, irisgarritasunarekin edo efizientzia

energetikoarekin lotutako lanak izatea. "Kiroldegiak erabilera maila oso handia dauka, Arrasaten berebiziko kirol tradizioa dago. Gure politiketan kokatzen da oinarritzeko kirol ekintzak egiteko behar diren azpiegiturak ahalik eta mantenu onenarekin izatea", gaineratu zuen, atzo, Arrasatera egindako bisitan, Denis Itxaso diputatuak.

Ateak zabalik etorkizunerako

Izan ere, Maria Ubarretxena alkatearekin eta Itxasorekin batera Musakolako kiroldegia



Eguaztenean 08:30ean ireki zuten berriro ere barruko igerileku handia. A.U.

Desagertu da 'pseudomona' bakterioa

Bereziki axiletan eta genitalen egoten den *pseudomona* izeneko bakterioaren presentziatik, astebetetz itxita egon da Musakolako barruko igerileku handia. Leku hezeak oso aproposak dira gizakiak barreiatzen duen bakterio hori hazteko eta ugaltzeko, eta, Kirol Zerbitzuaren arabera, berez ez da arriskutsua, gizakiak gaixotasun larriren bat ez badauka. "*Pseudomona* ohikoa den bakterio bat da, oso erresistentea. Ekiditea ez da batere erraza, baina oso lagungarria da igerilekura sartu aurretik dutxa on bat hartzea, batez ere, izerdituta iritsiz gero –kirola egin ondoren edota saunan egon ostean, adibidez–. Igerilekura sartzerakoan gorputza zenbat eta garbiago izan, bakterioak sartzeko orduan eta aukera gutxiago", gaineratu dute. Horrez aparte, erabiltzaileendako kanpaina txiki bat abiatuko dute, dutxa on bat hartzeak duen garrantzia jabetzeko.

bertatik bertara bisitatzen izan ziren Foru Aldundiko Kirol zuzendari Oihana Alvarez, Arrasateko Kirol zinegotzi Ander Garay eta Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Oscar Garcia.

Era berean, etorkizuneko lankidetzarako atek zabalik utzi zituen diputatuak: "Jakin badaikit behar handiak dituen kiroldegia dela Arrasatekoa, eta litekeena da, datozen plangintzetan oinarrituta, berriro ere elkartzea beharrezkoak izan daitezkeen zaharberritze lanetan kolaboratzeko".

Hasi, urtea amaitu aurretik

Igerilekua klimatizatzeko lanak urtea amaitu aurretik hasiko dira eta Udalaren ardura izango da 2018ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egotea; izan ere, Udalarena izango da obrak gauzatzeko prozesua garatzea.

ITXASO: "JAKIN BADAKIT BEHAR HANDIAK DITUEN KIROLDEGIA DELA ARRASATEKOA"

Aurkari zuzena izan daitekeena hartuko du ARTk Mojategin

Marzola Rioja taldearen kontra jokatu dute bihar Igor Isasiren mutilek (16:30); irabazi beharreko lehia da

J.B. BERGARA

Zazpigarren sailkatua den Arrasate Rugby Taldeak bederatzigarren postuan dagoen Marzola Rioja taldea hartuko du bihar Mojategin (16:30). Denboraldiko helburua mailari eustea izango

dela aintzat hartuta, Igor Isasiren mutilek aurrean izango duten taldea aurkari zuzena izango da, seguruenik. Izan ere, orain arte jokatuak sei partiduetatik bakarria irabazita, Errioxa azken-aurrekoa da, sei

punturekin. Logroñoko taldearen atzetik beste bat baino ez dago, bi puntu soilik batu dituen Menditarrak. Baztandarren kontra lortu du, hain justu ere, denboraldi honetako garaipen bakarra Errioxak; Nafarroa aldean izan zen, laugarren jardunaldian, 32-35eko emaitzarekin. Hori guztia aintzat hartuta, errioxarren kontra lau puntu baino gehiago egongo dira jokoan biharko partiduan. Intentsitate handiarekin jokatu beharko dute partidua irabazi ahal izateko.

Ligako lehen puntuak lortzeko asmoz joango da Bilbora Mondrate

Etxean Gora Bilbao taldearen aurka 2-5 galdu ostean, Mondratek Bilboko San Ignacio kiroldegian jokatu du bihar (16:15), seigarrena den Elorrietako FS AD Aerolink taldearen aurka. Jokatuak zazpi partidua galdu ostean, arrasatearrak azken sailkatuak dira, eta lehen garaiaren bila joango dira; maila berrira ezin egokitu dabilta.



Aurreko asteburuko partidua. I.S.

"Oso gogotsu gaude zuzenekoekin hasteko"

JON ZUBIAGA 'OSORON' ANITA PARKER TALDEKO KIDEA

Pasa den astean aurkeztu zuten Anita Parker taldea, Bilbon, eta abenduaren 1ean eskainiko dute zuzeneko lehenengo kontzertua, Markinako Uhagon Kulturgunean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gose taldeko kide Iñaki Bengoak eta Jon Zubiagak ibilbide berri bat abiatu dute. Nagusiki swing doinuak lantzen dituen Anita Parker taldea osatu dute, beste bi kidearekin batera.

Anita Parker taldea sortu duzue Iñaki Bengoak, Olatz Anduezak, Ane Martinezek eta zuk. Nola batu zarete laurok?

Iñaki eta biok abestiak egiten hasi ginen. Iñakik Ane Martinez ezagutzen zuen, eta, ondo abesten duenez, taldea osatzeko proposamena egin genion. Bestalde, ni orain Lakuntzan bizi naiz eta Olatz gertukoa dut. Beraz, teklatu lanak egiteko proposatu nion. Biek baiezkua eman ziguten, eta taldea osatu dugu.

Esperientzia handiko musikariak zarete guztiak ere.

Bai. Nork bere ibilbide musikal dauka eta esperientzia, behintzat, badaukagu. Ikusi egin behar zenbat balio digun horrek talde berriarekin.

Anita Parker. Zer dela eta?

Iñaki bere kontsultore batekin izen posiblea pentsatzen hasi zen. Halako batean, Anita Parker izena etorri zitzaion burura. Izen ezaguna egin zitzaion, pertsonaia ospetsuren bat izango zelakoan. Baina, Interneten bilatzen ibili ostean, konturatu ziren ez dagoela pertsonaia famaturik izen horrekin. Beraz, horrekin egin dugu aurrera. Lehen diskoari ere izen bera jarri diogu, gure aurkezpen gisa. **Nola definituko zenuke egiten duen musika?**

Azken finean, konbinazio bat da. Elektronika, gitarra, baxua, teklatura, eta abar. Swing estiloa gailentzen dela esango nuke, baina dantzagarria den guztia sartu daiteke Anita Parkerren nortasun eta filosofia horretan. **Musika dantzagarria egitea zenuten helburu?**

Ez dakit lehenago zein gertatzen den, intentzioa edo mekanika,



Jon Zubiaga *Osoron*. DAVID HERRANZ

"DANTZAGARRIA DEN GUZTIA SARTU DAITEKE ANITA PARKERREN NORTASUNEAN"

elkar kutsatzen dira. Guk sekuentziak eta jolasten dugunez, beti eramaten zaitu dantzagarri izatera. Finean, bilatzen duguna da gure gustukoa izatea, ez daukagu parametririk finkatuta. Sortzen goazen heinean, ikusten dugu bidea dagoen edo ez. Espero dugu jendea gustatzea. **Sei abesti ditu lehen diskoak, baina beste sei gorde dituzue, sorpresa modura, zuzenekoetarako.**

Ikusten genuen diskoa borobilagoa geratzen zela sei abesti horiekin. Gainontzeko abestiak zuzenekoetarako utzi ditugu, eta abesti horietan Anita Parkerren beste nortasun batzuk ere azaleratuko dira. Erreperitorio aldetik ere aberatsagoa ikusten genuen misterio hori gordetzea, zuzenekoetarako morbo hori sortzeko. Gainera, Anita Parker sortzen doan heinean, abesti berriak ere bidean datoz.

Aurkezpen ofiziala Bilbon egin zenuen. Nola harrera izan zuen aurkezpenak?

Hori da. Karola garabiaren azpian egin genuen aurkezpena. Bi abesti eskaini genituen, *Michelle* eta *Izar Gorria*. Egia esan, polita izan zen. Guretako ere lehen agerpen publikoa izan zen, jendarean inoiz jo barik geunden elkarrekin. Hasieran ez dakizu zuk gorpuzten duzun horrek ze harrera edukiko duen, eta zalanza hori bagenuen. Baina pozik geratu ginen izan zuen harrerarekin.

Zuzenekoak egiten hasteko gogotsu egongo zarete.

Zalantzarik gabe. Abenduaren 1ean eskainiko dugu lehen kontzertua, Markinako Uhagon Kulturgunean. Nogen taldearekin batera. Hori izango da gure zuzeneko lehen kontzertua, eta ondoren Durangoko Azokan ere izango gara, hilaren 9an.

Debagoienean baduzue kontzerturik lotuta?

Hasiera batean, ez. Abenduaren 16an Hatortxu Rocken izango gara eta 29an Tolosako Bonberenean. Bailaran ez dugu ezer lotuta, baina gogotsu gaude hemen ere gure burua aurkezteko.



GOIKOBALU ABESBATZA

Santa Zezilia egunez, kantuan

Musikarien eguna izan zen eguaztenean –azaroaren 22a–, Santa Zezilia eguna. Hori dela eta, Goikobalu Abesbatzako kide nagusienek kantua Arrasateko kaleetara atera zuten eguaztenean bertan.

Atzo, eguna, abesbatzako txikien txanda izan zen, eta Trikitixa Eskolako kideekin batera kantuan aritu ziren, kalerik kale.

The Riff Truckers talde gernikarra, azaroko azken gonbidatua

The Riff Truckers izango da Kooltur Ostegunetara datorren hurrengo taldea. Kontzertua azaroaren 30ean izango da, gartetxean, 22:00etan –sarrera bost eurotan, ohi bezala–.

Rock-and-roll, blues eta country doinuak lantzen dituzte gernikarrek, eta euren bigarren diskoarekin –*Healing the soul*– egiten ari diren bira amaitzen ari

dira. Bira horretako azken kontzertuetako bat izango da Arrasaten eskainiko dutena.

Orain, gainera, hirugarren diskoa kaleratzekotan dira. "Ia grabaketa guztiak amaitu ditugu, eta abendurako edo urtarrierako kaleratzea espero dugu", adierazi du Gorka Roman *Osa-ma-k*, taldeko abeslariak.

Orain arteko bi diskoak linealagoak edo jarraikortasun handiagoak izan direla dio. "Hirugarrena musikalki antzekoa da, baina desordenatuagoa", dio.

Arrasate Musikalek bi ekintza, Santa Zeziliaren omenez

Gaur, egubakoitza, izango da lehenengo ekintza. 17:30ean, Arrasate Musikaleko Banda Gazteak kalejira egingo du Arrasateko alde zaharreko kaleetan zehar. Banda Gaztearen proiektua sortu zenetik, 1996tik, egiten duen lehen kalejira. Izan ere, "musikari gazteak dira eta ez da erraza izaten kalejira bat prestatzea adin horretan". Gero, 18:00etan, txokolate-jana izango da, plazan, eta, inguruan, Arrasate Musikaleko gaiteroek pieza batzuk interpretatuko dituzte.

Domekan, Arrasate Musikaleko Bandak Santa Zezilia kontzertua eskainiko du, ohikoa den moduan, San Frantzisko elizan, 12:30ean.

Elaia abesbatza eta parrokiako korua, 'Fair Saturday'-rekin bat

Elkartasun festarekin bat egin-go dute Elaia eta parrokiako koruak, eta kontzertu solidarioa eskainiko dute bihar, zapatua, 12:30ean, parrokian. Batutako dirua Arrasateko Caritasera bideratuko da –sarrera doakoa izango da, baina jendeak borondatea emateko aukera izango du–. Berritasun modura, abeslariak parrokiako bigarren solairutik kantatuko dute. Bestalde, domekako mezan ere abestuko du parrokiako koruak, Santa Zezilia egunaren harira.

Azkenik, datorren egunean, azaroaren 30ean, Gasteizko San Andres parrokian abestuko du koruak, 19:30ean, San Andres eguna ospatzeko.



San Martin jaietako kontzertu batean atera zuen argazki irabazlea Eider Ballinak. EIDER BALLINA

Eider Ballinaren argazkia, onena

65 lan aurkeztu dira aurtengo Argazki Lehiaketara, eta, epaimahaiko kide izan den Cristina Etxenausiaren esanetan, "oso lan zaila" izan da irabazlea aukeratzea. "Argazki bikainak aurkeztu dituzte parte-hartzaileek, kostatu egin zaigu erabakitzea"

Eneko Azurmendi ARAMAIO

65 argazki aurkeztu diren arren, horietatik bost ezin izan dira kontuan hartu, oso kalitate txikia zutelako. Beraz, epaimahaiak 60 argazkiren artean hartu behar izan du erabakia.

Lehiaketako argazki irabazlea Eider Ballinak San Martin jaietako kontzertu batean ateratakoa izan da, epaimahaiak hala erabakita. "Musikariak *selfie* bat ateratzen ari ziren kontzertua amaitzean, eta nik hori baliatu nuen argazkia ateratzeko. Gainera, euria zen, eta aterkiak ere efektu polita egiten du irudian", azaldu du Ballinak.

Irabazle nagusiaz gain, beste lau kategoria ere bereizi dira: neguko argazki onena Aitor Aranarena izan da; udaberriko onena Asier Castellanorena, udako onena Eider Ballinaren beste argazki bat eta udazkene-

ko onena, Asier Castellanoren beste bat.

Bost argazki horiekin eta beste batzuekin 2018ko egutegia osatuko du Udalak.

Udaberriko irabazlea

Asier Castellanok Uribarri auzoan drone batekin ateratako argazkia izan da udaberriko onena. "Traktorea belarra mozteten zebilela ikusi nuen eta pentsatu nuen goitik polita ikusiko zela. Halaxe egin nuen, eta konturatu nintzen belarra forma bitxian zegoela moztuta".

BOST ARGAZKI HORIEKIN ETA BESTE BATZUEKIN 2018KO EGUTEGIA OSATUKO DU UDALAK

Udako irabazlea

Eskolako ikasturte amaieran atera zuen Ballinak argazkia. "Ni leihoan nengoen, eta, umeak paretara hurbildu zirenean, argazki polita ikusi nuen", dio.

Udazkeneko irabazlea

Oriolera bidean ateratako argazkia da, Santikurtzeko txabolatik. Argazki horrek badu gauza kurioso bat; izan ere, egilea –Castellano– irudiaren ezker aldean agertzen den txabolan zegoen une hartan, eta dronearekin atera zuen argazkia, hura zegoen tokirantz.

Neguko irabazlea


Aitor Aranek Santikurtzetik ateratako irudi bat izan da neguko onena. "Urtarrilaren 1a zen. Hotz egiten zuen, eta laino artean zegoen izotzak kontraste polita egiten zuen", dio Aranek.




Uribarri auzoan, belarra modu bitxian moztuta, udaberrian. ASIER CASTELLANO



San Martin eskolako leiho batetik ateratako irudia. Haurrak patioan. EIDER BALLINA



Santikurtzeko txabolatik ateratako argazkia. ASIER CASTELLANO



Urtarrilaren 1ean, Santikurtzeko txabolatik ateratako irudia. AITOR ARANA

Aurten ere martxan jarri dute Euskal Ginkana

Euskararen Jarraipen Batzordeak duela lau urte antolatu zuen lehenengoz Euskal Ginkana, Euskararen Egunaren harira, eta, herrian duen arrakasta handia ikusita, urtez urte errepikatzen dute; bi kategoriatan banatuta dago: umeak eta helduak

Eneko Azurmendi ARAMAIO

"Euskararen Eguna ospatzeko antolatzen hasi ginen eta gura izan genuen zerbait berria egin, herri mailan oihartzuna edukiko zukeena, herritarrek inplikatzeko eta euskararekin nola-bait jolas egiteko. Arrakasta handia izan du hasieratik". azaldu du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak.

Euskal Ginkanaren baitan, hainbat galdera egiten zaizkie herritarrei, euskara, beste hainbat hizkuntza gutxitu eta Aramaio ardatz hartuta.

Esan bezala, bi kategoriatan banatuko da Euskal Ginkana: haurrena -14 urte baino gutxiago dutenentzat- eta helduena -14 urtetik gorakoak-.

Haurrena

Kategoria bakoitzean, bi txandatan egongo dira eskuragai galderak. Haurren kategorian, kultura etxean eta kiroldegian eskuratu ahal izango dira galderak. Martitzen honetan hasi da lehenengo txanda, eta gaur bukatuko da. Bigarren txanda, berriz, azaroaren 28tik -martitzena- abenduaren 1era -egubakoitza- bitartean izango da.

Egun bakoitzean lau galdera egongo dira gune horietan -guztira, hamasei galdera-, eta parte-hartzaileek galdera guztiak erantzun beharko dituzte, behin bakarrik. Erantzunak kaxa batean sartu beharko dituzte parte-hartzaileek, euren datuekin.

Astelehenetan irabazleen rankinga egingo da eta Udalaren webgunean publikatuko dira.

Rankingaren irabazlea izango da hamasei galdera horietatik gehien asmatzen dituenak. Berdinketa gertatzen bada, zozketa egingo dute.

Horrez gain, zortzi puntu -zortzi galdera asmatuta- baino gehiago dituztenen parte-hartzaile artean, sari berezia zozketatuko dute.



2015eko Euskal Ginkanako galdera bat. GOIENA

EUSKARA, BESTE ZENBAIT HIZKUNTZA GUTXITU ETA ARAMAIO IZANGO DIRA ARDATZAK

Helduena

Helduen kategoriako lehenengo txanda eguaztenean hasi da, eta domekan bukatuko da. Bigarrena, berriz, azaroaren 30etik abenduaren 3ra arte izango da.

Honako establezimendu hauek egongo dira eskuragai galderak: Arrandegia, Arbel, Anus, Añai, Anboto, Botika, Dukiena, Eki, Harategia, Kintelena, Okindegia eta Unzueta.

Kasu horretan ere, aste bakoitzean lau galderako ginkana izango da establezimendu bakoitzean. Beraz, 96 galdera izango dira -48 asteburu bakoitzean-.

Ez da derrigorrezkoa izango galdera guztiak erantzutea, baina bai ahalik eta gehien, txanda eta establezimendu bakoitzean behin bakarrik.

Kategoria horretako rankinga eguaztenean egingo dute eta hori ere Udalaren webgunean

publikatuko dute. Irabazlea galdera gehien erantzuten dituen izango da; berdinketa gertatzen bada, zozketa egingo dute.

40 puntu -40 galdera asmatuta- baino gehiago dituzten parte-hartzaileen artean, sari berezia zozketatuko dute.

Sariak

Haurren kategoriako Euskal Ginkanako irabazleak Hontzaextrem abentura parkera joateko bost sarrera eramango ditu. Bigarren sailkatuak, berriz, 30 euroko bonua.

Helduen kategoriako irabazleak bi lagunentzako afaria izango du sari moduan. Bigarren eta hirugarren sailkatuek Aramaio-ko produktuekin osatutako otarra eramango dute etxera.

Azkenik, aurten ere parte-hartzailearen saria egongo da. Haurren kategorian, 30 euroko bonua zozketatuko dute parte-hartzaile guztien artean eta helduen kategorian, berriz, Aramaio-ko produktuekin osatutako otarra.

Iaz eman zen lehenengoz sari hori, "jende askok" hartzen duela parte, eta, "nolabait, parte-hartze hori saritzeko".



NIRE USTEZ

IKER ELEXPURU

Hizkuntza eta herria

Hizkuntza bat komunikatzeko tresna bat baino gehiago dela esango nuke nik. Herri baten izaera, nortasuna, identitatea ezartzen duena. Bere kode genetikoan ehunka, milaka urte jaso dituen izaera, nortasun eta berezitasunak jasotzen dituen. Eta bai, aitortzen dut, kezkatu nago. Badirudi azken urteetan jakintza maila bermatua dagoela. Baina jakintza hori nahikoa da?

Zer da euskara herri bat gabe? Zertarako nahi dugu euskaradun herri bat, euskarak barnean duen identitate gabe? Ze ekarpen egiten dio ezagutzak herriari, egunerokoan haur, gazte eta adinekoek gaztelania badute bihotzean eta ahoan?

Badugu zer pentsatu, hausnartu. Gure norabide eta erronkak birdefinitu beharra ikusten dut. Euskararen herrian, Aramaion gauza hauek bizitzea benetan gogorra da. Sinesgaitza, ulertezina eta mingarria da, era berean, euskara ezaguturik, ohitura lege bihurtuz, erdara mingainean naturalki erabiltzen ikustea.

Oharkabea, kontziente izan gabe, galbidera goaz. Batek zion eran, "sofritzen egoiten naiz horien erdian, aunitz maite duenak aunitz sofritzen du".



OILGOR ELKARTEA

Enrique Gardoki txapeladun

Azkene urteetako ohiturari jarraituz, Oilagor Txapelketa jokatu zuten pasa den zapatuan -azaroak 18- Aramaio-ko ehiza-barrutian, Oilagor Elkarteak antolatuta. Irabazlea Enrique Gardoki aramaioarra izan zen, hiru oilagor ehizatuta. Guztira, 32 parte-hartzaile izan ziren. Txapelketaren ostean, bazkaria egin zuten, eta ondoren banatu zituzten sariak.

Bixente Goikoetxea abesbatzaren kontzertua domekan

Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko du domekan Bixente Goikoetxea abesbatzak, elizan, 12:30etan.

Bestalde, Gabonetan egingo duten kantaldirako entseguak gaur, egubakoitza, hasiko dituzte, 19:00etan, Sastiñan. Abenduaren 1ean, 8an eta 15ean ere egingo dituzte entseguak, ordu eta leku berean.

Bi plaza gehiago Aretxabaletako egoitzan

Apirilean jakin zen aramaioarrek bi plaza izango zituztela Aretxabaletako zaharren egoitzan. Aurrerantzean, beste bi plaza izango dituzte, Udalak eta Arabako Foru Aldundiak hala hitzartu zutelako. Udalak herrian egoitza baten beharra ikusten du, baina, hori lortu bitartean, ontzat jotzen du Aretxabaletan lau plaza edukitzea.

Indarkeria matxistatik libre bizi izateko aldarria

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira; besteak beste, autodefentsa feminista tailerra, elkarretaratzea eta antzerkia. Guztietara gonbidatu dituzte herritarrak

Mirari Altube ARETXABALETA

Azaroaren 25a hurreratzearekin batera, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako aldarrikapenek eta salaketek bat egiten dute, eta Aretxabaletan ere hala izango da. Udalak herritarrak gonbidatu ditu ekitaldiokina bat egitera.

Elkarretaratzea bihar, plazan

Eguna hasteko, autodefentsa feminista tailerra egingo dute bihar, kiroldegian –09:00-14:00 eta 16:00-18:00–, Emagin ikerkuntza zentro feministako kideek gidatuta. Bizipen eta emozioak konpartituz erasoei aurre egiteko estrategiak landu izenarekin, autoestimua, emakumeen arteko sarea eta beste hainbat kontu landuko dituzte.

Iluntzean, azken urteotan legez, elkarretaratzea izango da Herriko Plazan (19:00). Eta ondoren, Plataforma Tirante konpainiak *La máquina del Dueño* antzezlan eskainiko du Arkupen (19:30). Antzezlan bukatutakoan, mokadutxo izango dute elkartutakoek, kontu-kontari jarduteko.

Bestetik, herriko tabernetan ezpainzapiak banatu dituzte, egunotan, honako lelo honekin: *Aretxabaletan ez dugu emakumeen aurkako indarkeriarik onartzen*. Erasoren bat jasanez gero jakin beharreko telefono zenbakien berri dakarte ezpainzapi horiek, eta *Ez beti da ezetz* leloa gogorarazten dute.

Udalaren konpromisoak

Udalbatzak, bestetik, adierazpen instituzional bateratua onartu du biharko egunari begira, Eudelen adierazpena oinarri hartuta eta EH Bilduk egindako hainbat ekarpen sartuta: *Indarkeria matxistatik libre egongo den gizartearen alde*. "Puntu garrantzitsuena da erreparazio-eskubidea aitortzea indarkeriaren biktima direnei", adierazi du Karmele Uribarrik, Ongiza-



Tabernetan banatu dituzten ezpainzapiak. MIRARI ALTUBE

te Saileko zinegotziak. Bestetik, *indarkeria matxista* adiera erabiltzea adostu dute: *"Emakumeen aurkako indarkeria* esaldiari zehaztasuna falta zaio, eta *indarkeria matxista* esatea ego-kiagoa dela uste dugu".

Kezkatuta agertu da Uribarri azken datuak jakinik: "Euskal Autonomia Erkidegoan igoera izan da; bereziki, jaietan dabil-tza ugaritzen halako kasuak, eta arduratzekoa da hori. Eta mikromatxismoa ere hor dago; oinarri-oinarrian dagoen indarkeria mota bat da –etxean, eskoletan, publizitatean...–, eta hor esku hartuz gero ondorio asko saihestuko lirarteke".

Adierazpen instituzional horren bidez hainbat konpromiso hartu ditu Udalak: horri aurre egiteko plan eta neurri estrukturalak garatzen jarraitzea; gizar-tean aldaketa bultzatzea; beharrezkoak diren baliabideak eskura jartzea; eta 2018ko aurrekontua definitzerakoan, berdintasun-unitatei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea. Ildo horretatik, ordezkari politikoei berdintasun politiken gaineko trebakuntza saioa jaso dute astean.

Areantza eta Arkarazo ezagutzeko bisita gidatua

Herriko auzoetara bisita gidatuak egiten jarraitzen du Aitor Antxia Leturiak, eta domekan, Areantza eta Arkarazo auzoetara joango da. Hango historia kontuak eta istorioak kontatuko dizkie elkartzen direnei. Interesa dutenek aurrez eman behar dute izena, Arkupen, eta plazak mugatuak direla iragarri dute. Areantzako elizan elkartuko dira, 10:30ean.



Palazio baserria, Arkarazon. GOIENA

OHARRAK

Lupe Lekuonaren ipuin kontaketa

Zergatik daude harriak ibaiaren hondoan? galdera berbetarako gai hartuta hainbat ipuin kontatuko ditu Lupe Lekuonak bihar, zapatua, liburutegian (11:30).

Joseba Egibarren dokumentala

Egibar argazkilari aretxabaletarrak Patagoniaren gaineko dokumentala eskainiko du martitzenean, Arkupen (19:00).

Bertso-liburuaren aurkezpena

Lekaixoka bertso eskolak 2016an jaiotako umeei bertso-liburua egin die, eta hori banatuko die eguaztenean, Arkupen (18:30).



Txarapea erdigunetik aldenduta dagoen kezka

Txarapea ibilbideko etxebizitza asko Aretxabaleta erdigunetik urruntxo eta behar bezalako loturarik gabe daudela uste du EH Bilduk. Bizilagun horien beharrak ezagutzeko galdeketa egin du eta haien ekarpenak jaso dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAK

Txarapeako mugikortasun ohiturek kezka eragin diete EH Bilduko kideei agintaldi hasiera ezker; hala adierazi du Ion Albizuk komunikabideen aurrean: "Azpiegiturak ez zelako pentsatu, erdigunearekin lotura falta dago". Bizilagun horien iritzia eta beharrak jakin guran galdeketa egin diete; hiru helbururekin: mugikortasun ohi-turak ezagutu, Txarapea azpiko berdegunea definitu eta bizilagunen beharrak ezagutu. 250 etxetara jo dute, eta 81 lagunen erantzunak jaso dituzte.

Eskailera mekanikoen alde

Bost galdera nagusi egin dizkiete. Etxetik herriko beste gune batzuetara zelan joaten diren galdetuta, zera jaso dute: autoan joaten dela lanera gehiengo; kiroldegira eta aisialdiguneetara oinez; eta eskolara eta erosketak egitera, autoan zein oinez. Herriaren erdigunera oinez joateko bide egoki eta zuzenik ez dagoela erantzun dutenak gehiago izan dira; eta irisgarritasunari dagokionez ez dagoela egokituta esan dute 30 lagunek baino gehiagok.

Txarapea erdigunearekin lotzeko azpiegitura berririen bat beharrezkoa ikusten duten ere galdetu dute, eta lau proposamen eskaini dizkiete EH Bildukoek: eskailera mekanikoa izan da hautatuena; ondoren geratu da igogailua; eta hirugarren postuan, oso parekatuta, arrapala eta eskailera batzuk komentu parean.

Txarapea azpiko berdegunean zer egin galdetuta, ia 60 lagunek adierazi dute parkea sortzea; ondoren daude lorategia lantzea gura dutenak; gero, eraikin publikoak egitea; eta dagoenetan uztea izan da azken aukera.

Txarapeako parke horretan jarriko luketenaren gainean sei proposamen eginda, hautatuena izan da zuhaitzak jartzea; on-



Olaia Etxenautia eta Ion Albizu, Txarapea azpiko berdegunean. MIRARI ALTUBE

HERRITARREI AURKEZTUKO DIETE BERDEGUNERAKO PROPOSAMENA EGUENEAN

doren, txintxaunak; kirol instalazioak; kultur azpiegiturak; eta gero, txakurrak askatzeko gunea izatea.

Ezpondaren gaineko kezka

Erantzunekin batera ekarpen mordoa jaso dituztela jakinarazi du Albizuk. Batetik, kexak agertu dituzte bizilagunek, bukatu gabeko eraikinen gainekoak eta garraioari buruzkoak: autobus ibilbidea, aparkaleku falta, Loramendi kalera jaisten den aldapan zebra-bideak jartzea, aldapa noranzko bakarrekoa egin eta aparkalekuak sortzea...

Bestetik, herriaren erdigunearekin lotura hobetzea eskatu dute –bizikletak kalean uzteko leku bat egokitzea–, garbitasuna hobetzea –garbitzaileak gutxi pasatzen direla, zakarrontzi gehiago...– eta eserleku gehiago jartzea.

Eta hirugarrenik, parkearen gaineko ekarpenak izan dira: plangintza orokorra egitea, zuhaitzak landatzea, lasai egoteko lekuak egokitzea, umeendako azpiegiturak, padeleko pistak... "Egiten diren obren gaineko informazio gutxi ematen dela adierazi digute, eta Txarapea osteko ezpondarekin kezkatuta agertu dira hainbat lagun", dio.

Berdegunerako proposamena

Horren guztiaren berri jasota, kexak eta hobetzeko kontuak Hirigintza Sailera bideratuko dituztela adierazi du EH Bilduko zinegotziak.

Txarapea azpiko berdegunearen edo parkearen gainean, oster, proposamen zehatza lantzen dabilzala argitu du: "Gure nahia da plangintza zehaztuta uztea eta gero lanak hainbat fasetan banatuta egitea. Inbertsio nagusia bi zonen lotura ziurtatzeko azpiegiturarendako izan beharko litzatekeela uste dugu". Horren guztiaren berri herritarrei emateko, aurkezpene egingo dute datorren egunean, azaroak 30, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:30). "Herriar guztiak daude gonbidatuta".



Eneko Haritza munduko ipuinak kontatzen, martitzenean. M.A.

Baltistango umei elkartasuna adierazteko jaialdia gaur

Pakistango herrialde horretan ikasteko eskubidea dutela aldarrikatuko dute, eta laguntzeko dirua batu

M.A. ARETXABALETAK

Haurren eta nerabeen eskubideen gainean jardun dute lanean azken egunotan herriko neska-mutikoek, azaroaren 20ko Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira. Guraso Foroaren proposamena izan da, eta ikasteko eskubidea hartu dute lanketarako oinarri. Hain zuzen, horren gaineko bertsioak eta marrazkiak egin dituzte Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoek, eta lan onenak martitzenean saritu zituzten. Komentuan egindako ekitaldia Eneko Haritza kontalariak munduko ipuinak kontatuta bukatu zuten.

50 euroko bonuak

Aretxabaletako Guraso Foroak Baltistan Fundazioarekin lan egitea erabaki du, jakinik Baltistanen oraindik ere erronka dela neskatoen hezkuntza esku-

bidea. Hori aldarrikatzeko eta haiendako laguntza batzeko Elkartasun Jaia egingo dute gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 17:00etan hasita.

Umeendako eskulanak eta muralak egiteko –euro baten truke– mahaiak gertatuko dituzte ludotekako kideek, eta, ondoren, txokolate beroa eta bizkotxoa eskainiko dituzte bi euroren truke –bizkotxoak egiteko boluntarioak behar dituzte; horiek 17:00etarako plazara eraman behar dira–. Eta Txurru DJak girotuta, haurrendako dantzaldia izango da, 18:30ean hasita.

Dirua batzeko itsulapikoak jarriko dituzte eta 50 euroko bonuak ere izango dira. Bonu bakoitzarekin neskato baten urte osoko eskola gastuak estaltzen direla jakinarazi dute Guraso Foroak kideek. Elkartasun Jaian jasotako dirua, hain zuzen, bonuak erosteko erabiliko dute.

Udazkenari agur esateko jaia egingo dute Kurtzebarrikoek

Udazkenari agur eta neguari kaixo esango diote datorren eguaztenean, hilaren 29an, Kurtzebarri eskolako kideek, Iturrigorri pilotalekuan (17:30).

Beste behin, txalapartariekin egingo dute jairako deia, eta, ondoren, lekaio saioa izango da ikasleen eskutik. Bien bitartean, taloak egingo dituzte seigarren mailakoek amandreen laguntza-

rekin, eta beste herrialde batzuetako gutuziak ere izango dituztela dastatzeko iragarri dute eskolako kideek.

Udazkeneko abestia kantatu eta *Polak pik* dantza saioa izango dute gero; ikasleek, irakasleek eta gurasoek elkarrekin jardungo dute, musikak lagunduta.

Ondo janda bukatuko dute jaia; mahaiaren bueltan izango dituzte, azken urteetan lez, buzkantzak eta gaztaina-erreak, baita sagardo kupela ere, eztarria bustitzeko.

Euskara indartzeko lan ildoak abiarazteko gertu

Aretxabaleta euskalduntzeko zein lan egin zehazteko 'Hitz egin' ekimena jarri zuen abian Loramendi elkarteak; hiru zapatutan herriko 35en bat ordezkari jardun dute lanean, eta, behin saioak bukatuta, bi dinamika berri abiaraztea erabaki dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Zein dinamika garatu behar ditugu Aretxabaletan euskararen erabilera indartzeko? galderari erantzuteko *Hitz egin* ekimena abiarazi zuen Loramendi elkarteak, Euskaltzaleen Topagunearen laguntzarekin eta Udalaren babesarekin. Hainbat taldetako eta elkartetako 35en bat ordezkari elkartu dituzte hiru zapatutan, eta, behin jardunaldia bukatuta, datorren urtera begira bi dinamika berri martxan jartzea erabaki dute.

Herritarrek aktibatu

Gazteak, helduak eta nagusiak elkartu dira; emakumeak eta gizonak; ikasleak, langileak eta langabeak. Eta kontu bakarrak batu ditu hiru astetan: euskarak. "Horren gaineko kezka egon badago, baina, batez ere, lane-rako gogotsu igarri dugu jendea; eta hori da interesgarriena", dio Iñigo Iñurrategik, Loramendiko presidentea.



Azken saioan elkartutako herritarrek ekimenari bukaera ematen. MIRARI ALTUBE

Topaguneko dinamizatzaile Mikel Ozaitak gidatu ditu lan saioak: "Aktibazio ekimenak abian jartzea izan da helburua, eta dinamika ezberdinen bitartez herritarrek ahaldundu egin dira". Antolatzaileak oso pozik

agertu dira herritarren erantzunarekin: "Ilusio handiarekin ikusi dugu jendea eta batzuek jarraitzeko gogoia erakutsi dute". Parte-hartzaileek, oster, ekimenaren garrantzia nabarmendu dute: "Garrantzitsua da ha-

lako dinamiketan parte hartzea, euskararen erabilera bultzatu, horren gaineko kontzientzia hartu... Eta gazteok ere hor ego-tea ezinbestekoa da", adierazi du Maddi Garrok: "Orain etorriko dena herritarrek batzea oso garrantzitsua da, bestela ez du zentzurik guk egindako lanak".

'365' ekimen nazionala

Datorren urtean argia ikusiko duten ekintzak zehaztu zituzten joan den zapatuan: "Bi lantalde berri sortu dira. Bata izango da 365 ekimena martxan jartzeko; 2018an, ekintza zehatzak antolatuko dituzte urtaroz urtaro, azaro bukaeran egingo den ekimen nazionalen borobiltzeko", esan du Iñurrategik, eta gaineratu: "365 ekimena, baina, ez da izango hamaika eguneko kontua, ezta urtebetekoa ere; euskalgintza eta euskararen erabilera aktibatzeke izango da". Bigarren lan ildoak herriko elkarteak izango ditu helburu: hizkuntza erabilera indartu gura da elkarrekin. "Horren barruan, kontu interesgarria mahaigaineratu da: zelan landu enpatia hizkuntza ohitura ezberdinak dituztenekin. Hortik abiatuta, langintza berezia egin ahal izango da".

Aitor Gabilondo Euskara zinegotzia ere pozik agertu da egindako lanarekin: "Oso interesgarria izan da; inertiak egunerokotasunera garamatza eta halako saioek perspektiba berria ematen dute".



IÑIGO IÑURRATEGI
LORAMENDIKO PRESIDENTEA

"Parte-hartzea aktibatu nahi genuen, herritarrekin batera definitu, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Lanerako gogoia badagoela erakutsi dute eta horri esker datorren urterako plangintza indartsu bat ia zehaztuta bukatu dugu".



AITOR GABILONDO
EUSKARA ZINEGOTZIA

"Jardunaldi emankorra izan da. Diagnosi bat eman digute, eta datorren urteko 365 ekimenari bultzada handia eman dio honek. Kuadrilla galanta elkartu gara, gainera, gogoia badagoela ikusi da; hortaz, aurrera!".

Hirugarren taldekoek hartu dute 'e!' txapa, euskaraz jarduteko

'E! Guraso' ekimeneko azken kideek hartu dute lekukoa; datorren astean guztiek elkarrekin jardungo dute

M.A. ARETXABALETA

Astean euskaraz berbetan jarraitzen dute gurasoek, eta *E! Guraso* ekimenari hirugarren taldekoek ekin zioten astelehenean. Txapak hartu eta paparrean jarri zituzten, "ondo ikusteko moduan"; bigarren taldekoek, oster, astearen balorazio orriak eroan zituzten beteta.

Datorren astelehenean bilera

150 aretxabaletarrek baino gehiagok egin dute bat ekimenarekin, eta 50 laguneko hiru taldetan banatuta jardun dute astebetean

euskaraz, *e!* txapak paparrean hartuta. Guraso horiei balorazioak eta bizi izandakoaren azalpenak eskatu dizkiete antolatzaileek, eta behin guztiak jasota horien berri emateko elkartuko dira. Bilera egingo dute astelehenean, hilaren 27an, 18:00etan, udaletxeko ganbaran: "Ekimenak eman duenaren berri emango diegu, deskargua egin, eta azken aste horren gaineko argibideak eman. Izan ere, asmoa da bukaera ematea guztiok elkarrekin". Azken astean guztiek izango dute txapa jantzita.

Zelan moldatu zara astean?



ANE MIREN ALDAI
GURASOA

"Samurra izan da, ez dut zailtasunik izan eta gustura egin dut. Txapa dela-eta euskaraz egiteko eskatu dit lagun batek, ulertu bai baina egiteko gaitasunik ez duenak, eta halaxe jardun dut; horri esker, hemendik aurrera beti egingo diot euskaraz".



ASIER ZUBIA
GURASOA

"Gaztelaraz zebiltzan ezagun batzuekin egin nuen tril txapa hartzearekin batera. Azalpenak ematen hasi beharrean, alde egin nuen, eta horrek zer pentsatua eman dit. Ekimena interesgarria da ohituren gainean kontzientzia hartzeko eta gaia kalera ateratzeko".

Gabonetako bideoklipa grabatuko du Aretxartek domekan

Aretxarte merkatarien elkarteak Gabonetako jaiak zorionduko dizkie herritarrei, beste urte batez, bideoklip bidez. Hori domekan grabatuko dute, AZ Gaubelak-eko kideekin, eta protagonista nagusia Kepa Errasti aktore aretxabaletarra izango da. Herritarrek ere ezinbestekoak izango dira bideo horretan eta horien parte-hartzea eskatu dute antolatzaileek. "Durana kalean elkartuko gara, 18:00etan, eta zuen laguntza behar dugu. Gabonetako osagarriren bat hartu aldean -bolak, kriseiluak, kape-lak...-, dantzan egiteko gogoarekin etorri, eta ondo baino hobeto pasatuko duzue!", jakinarazi dute Aretxarteko kideek.

Martxoaren 8an egindako elkarretaratzean, *Emakumeen aurkako indarkeria ez mezuarekin* irten ziren plazara. IMANOL BELOKI

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, Eskoriatzan hainbat ekintza egingo dituzte: elkarretaratzea, 'Duma' dokumentalaren proiektzioa eta ikus-entzunezkoan ikusitakoarekin Maite Iturrarte abokatuarekin solasaldia

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zapatu honetan izango da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta, egunerako egitarau zabala antolatuta bada ere, beste hainbat ekintza ere izan dira asteen Eskoriatzan.

Eguaztenean, esaterako, *Emakumeenganako indarkeria: Eta honen aurrean zer?* hitzaldia

izan zen kultura etxean. Hezi2de berdintasunerako formazio eta aholkularitza zerbitzuko Miren Josu Aranburuk eta Idoia Luzuriagak gidatu zuten saioa.

Besteak beste, egunerokotasuneko adibide praktikoekin bidez indarkeria matxistaren erroa jo zutela adierazi du Idoia Luzuriagak: "Bi zatitan banatu

genuen saioa: batetik, indarkeria matxistaren erroa jo genuen; gizonen eta emakumeen arteko berdintasunetik ezera. Eta egunerokotasuneko adibide praktikoekin bidez ikusarazi genuen hori. Indarkeriaren termino egokiak definitzeari garrantzia ematen diogu, eta hori behin ondo definitu ostean, indarkeria mota

ezberdinak ere aztertu genituen. Gero, indarkeria matxistari aurre egiten laguntzeko modu ezberdinen inguruan hitz egin genuen. Esaterako: erantzunkidetasuna, kontziliazioa, hezikidetzatza...". Prebentzioaren garrantzia ere azpimarratu zuten saioan, eta prebentziorako garrantzi handiena hezikidetzari eman behar zaiola adierazi zuten, besteak beste. "Prebenitzeko erreminta batzuk zeintzuk izan daitezkeen adierazi genituen: tratu onak, ahalduntzea..., eta hainbat gai jorratu ostean, hitzaldiari gazteen ikuspegiak, eta mikromatxismoak hitz eginez amaitu genuen saioa. Aberatsa izan zena".

Elkarretaratzea eta proiektzioa

Zapatuan, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, aldiz, 18:30ean, elkarretaratzea egingo dute Fernando Eskoriatza plazan. Eta amaitzean, 18:45ean, *Duma* dokumentala proiektatuko dute Zaldibar antzokian.

Abeer Zeibak Haddad zinema-gile israeldarrak arabiar gizartearen gertatutako sexu abusuen salaketa ausarta egin du lan horretan. Hain zuzen, Palestinako adingabeek eta emakumeek jasaten dituzten sexu abusua. *Duma* hitzak *panpina* esan nahi du arabiarrez, eta ikus-entzunezkoan, hainbat emakume arabiarrek haurrak zirenean jasan zituzten sexu abusua

kontakutako dituzte. Hain zuzen ere, gizarteak eta familiak ezarritako isiltasun sistema apurtzeko helburuarekin.

Antzokian solasaldia

Duma dokumentalaren proiektzioa amaitzen denean, Clara Campoamor elkarteak Maite Iturrarte abokatuak dokumentalean ikusitakoaren gaiari buruzko solasaldia bideratuko du; zuzenbide penalean eta genero indarkeriaren inguruan aditua da hura.

Azaroaren 25a: egitaraua

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean Eskoriatzan izango diren ekintzak.

Azaroak 25, zapatua

- **18:30** Elkarretaratzea, Fernando Eskoriatza plazan.
- **18:45** *Duma* dokumentalaren proiektzioa, Zaldibar antzokian.
- **19:40** Clara Campoamor elkarteak Maite Iturrartekin, dokumentalean ikusitakoaren gaiari buruzko solasaldia.



IMANOL SORIANO

Hotzari aurre egiteko, ardoa

Atxorrotx Kultura Elkarrekin pasa den zapatarako antolatutako hamaikagarren ardo dastaketa arrakastatsua izan zen. Ardo onduak eta kanpoko ardo bereziak probatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek: bertakoak, Euskal Herrikoak eta

Kataluniakoak. Hala, giro aparta izan zen Fernando Eskoriatza plazan, eta aurreikusitako helburu guztiak bete zituzten; izan ere, 210 botila ardo edan ziren, eta egunerako prestatuta zituzten foie pintxoak ere saldu zituzten, lau kilo.

Domeka honetan Inkernun azken jaia egingo dute

Inkernu taberna alokatuta dutenei amaitu egiten zaie kontratua, eta domekan azken jaia egingo dute, ibilbideari agur esateko. Dena den, ez da behin betiko itxiko; izan ere, lokalaren jabe diren Atxorrotx Kultura Elkarrekin kudeatuko dute, alokairuan sartzeko ez dagoelako beste inor, eta gaur egun dauden zerbitzariak mantenduko dituzte.

Hala ere, astelehenetik Gabonetara bitartean, egun batzuez, itxita egongo da. Honela azaldu du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarrekin kideak: "Argiteria berria jarri nahi dugu, eta lokala margotu egin dugu, aldaketa bat behar du eta...".

'Arte sormena familian' tailerra izango da abenduaren 16an

Abenduaren 16rako *Arte sormena familian* tailerra antolatuta du Eskoriatzako Hezkuntza Foroak; kultura etxean izango da.

Tailer horren helburua da familian, haurrekin artearen inguruan gozatzea eta artearekin jolasteko esperientzia bat eskaintzea. Horretarako, ipuin baten esperientzia artistikoa egingo dute, irudimenaren, jolasaren eta marrazketaren bidez. Marrazteko teknika berriak irakatsiko dituzte, eta nagusiak eta haurrak elkarrekin arituko dira. Laia Bedosek dinamizatu du, eta tailerrean izena emateko azken eguna abenduaren 13a izango da, kultura etxean; sei euro kostatzen da.

Eskoriatzarrak, euskararekin bat

Abenduaren 1etik 3ra bitartean ekintza ugari antolatu dituzte herriko elkarte eta eragile ezberdinek. Adibidez, zapatuan izango den 'Zuk ekarri, zuk jan' kantu bazkaria; txartelak dagoeneko salgai daude Goxo Txiki eta Hotela tabernetan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Abenduaren 3an, domekan, izango da Euskararen Eguna, baina antolatzen aritu diren herriko elkarte eta eragile ezberdinek ez dute Eskoriatzako ospakizuna egun bakarrera mugatu; izan ere, egubakoitzetik domekara bitartean, hiru egunez, ekintza ugari antolatu dituzte.

Egubakoitzean, abenduaren leian, haurrei zuzendutako ekintzak nagusituko dira Eskoriatzan. Izan ere, ikastetxetako haurrek beteko dituzte kaleak, eta, urteko ohiturari jarraituz, Fernando Eskoriatza plaza apaintzera joango dira, arratsaldean, gaztaina erreak jateko aukera izango da Luis Ezeiza ikastetxe aurrean, eta buruhandiak ere izango dira herriko kaleetan zehar.

'Euskarazko hitzik politenak'

18:30ean, gaztelekuko nerabeek orri zuri bat ipiniko dute plazan, eta nahi duenak euskarazko hitz gustukoena idatziko du bertan. Asteburu osoan egongo da horiek idatzeko aukera, eta, asteburua pasatutakoan, hitz guztiak batu eta murla egingo dute herriko bi gaztek Santa Marinako kiosko azpian.

Bazkarirako txartelak salgai

Abenduaren 2an, zapatuan, berriaz, eguneko plater nagusia *Zuk ekarri, zuk jan* formatuan egingo den Euskararen Eguna-bueltako bazkaria izango da –plazako karpan izango da–. Norbanako bakoitzak txartela erosi beharko du; izan ere, hotz egin dezakeenez, salda beroa eta txistorra egongo dira, eta, horrenbestez, bazkaltzeko lekua, salda, txistorra eta kantu liburua hiru eurotan erosi beharko da –txartelak, Goxo Txiki eta Hotela–.

Bestalde, lekua erreserbatu nahi duenak aukera izango du horretarako kultura etxean, edo



Iaz, ikastetxeko haurrak euskararen aldeko mezuekin. ANDER LARRAÑAGA

'EUSKARAZKO HITZIK POLITENAK' BATUKO DITUZTE, ETA GERO, SANTA MARINAN MURLA EGINGO DUTE

636 78 59 71 telefonora *whatsapp*-a bidaliz.

Horrekin batera, aurten, berrikuntza moduan, *Zuk ekarri, zuk jan* kantu bazkaria izango da. Herriko lau gaztek eguneko sortutako musika talde batek gidatuko du bazkalostea, eta euskal kantu tradizional eta modernoak eskainiko dituzte.

Horren ondoren, plazako giroa herri osora zabaltzeko asmoz, Orkestra elektrotxaranga izango da.

Bisita, txapelketa eta antzerkia

Euskararen Egunean, abenduaren 3an, *Eskoriatzako Ezkutuko altxorak* bisita gidatua egingo dute, 12:00etan, museotik irten da. 18:00etan, Mihiluze txapelketa egingo dute gaztelekuan. Eta 19:00etan, Nomofobikoak antzerkia izango da Zaldibar antzokian.

Ekintza ugari, euskararen bueltan

Abenduak 1, ostirala

- **10:00** Haurren ospakizuna eta plazaren apainketa.
- **16:15** Gaztaina erreak Luis Ezeizan.
- **17:30** Buruhandiak plazan.
- **18:30** *Euskarazko hitzik politenak*.

Abenduak 2, zapatua

- **12:30** Taloak plazan.
- **13:00** Euskal dantzak.
- **14:30** Kantu bazkaria: *Zuk ekarri, zuk jan*.
- **19:00** Orkestra elektrotxaranga.

Abenduak 3, domeka

- **12:00** *Ezkutuko altxorak* bisita gidatua.
- **18:00** Gaztelekuan Mihiluze txapelketa.
- **19:00** Antzerkia: *Nomofobikoak* antzokian.



Eskoitzara Egunean, lehen edizioan ateratako talde argazkia. GARTXOT ZUBIZARRETA

Herriko presoei eta senideei elkartasuna adierazteko jaia

Ekintzez betetako Eskoitzara Eguna antolatu dute, zaturako, Eskoriatzako Presoen Lagunek

I.B ESKORIATZA

Iaz ez bazen egin ere, zapatu honetan, hirugarren urtez, herriko presoei eta senideei elkartasuna adierazteko jaia antolatu dute Eskoriatzako Presoen Lagunek taldeko kideek. Hala, egitarau zabala prestatu dute.

Aldarrikapen egunari hasiera emateko, 12:30etan, triki-poteoa izango da Fernando Eskoriatza plazatik hasita. Ondoren, bazkaria Egokiena elkartean izango da. Menua berriaz, baba-jana izango da, urtero moduan, eta bertaratze txartelak hamabi eurotan erosi daitezke Inkernu tabernan; gaur da azken eguna horretarako.

Mosaiko erraldoia

Bazkalostean, 17:30ean, mosaiko erraldoia egingo dute plazan. Honela adierazi dute Eskoriatzako Presoen Lagunek taldeko kideek: "Herriko plazan Euskal

Herriko mapa jarriko dugu bi geziekin. Bertaratzen garenon artean, kartelak erabiliz. Hala ere, ea euririk ez duen egiten... Hala bada, goitik argazkia aterako dugu". Ekintza gauzatzeko, elkartasuna adierazi nahi duen edonori bertaratze dei egin diote antolatzaileek. Eguna amaitzeko, berriaz, musika izango da nagusi: DJ Makala izango da Inkernu tabernan, 23:00etan.

Maixolen inguruko erakusketa

Zaturako prestatu duten egitarauaz gain, Inkernu tabernan, Reau Sud Francilien preso dagoen Maixol Iparragirre eskoriatzarraren kartzela-ibilbidea adierazten duen erakusketa izango da ikusgai. Iparragirre Espainiarako estradizioaren zain dago, eta hari elkartasuna adierazteko antolatu dute panel informatibo bidezko erakusketa.

Hiru egunetan euskarazko jostailu erakusketa izango da

Eskoriatzako Udalak antolatuta, azaroaren 30etik abenduaren 2ra bitartean, euskarazko jostailu erakusketa izango da kultura etxean, 17:00etatik 19:30era bitartean.

Gabonak gerturatzen ari dira, eta, sarritan, jostailuak aukeratzeko telebistako iragarkietan soilik oinarritzen dira asko. Hala, euskarazko jostailu eta

produktuak daudela azpimarratzeko eta horiek ezagutzeko antolatu dute euskarazko jostailu erakusketa.

Adinaren arabera sailkatuta, gurasoei eta haurrei zuzendutako jostailu berriak egongo dira. Gainera, euskaraz argitaratzen diren jostailuez gain, jostailu kooperatiboak ere egongo dira bertan, eta jostailu mota bakoitzarekin landu daitezkeen arloen inguruko azalpenak jasotzeko aukera ere izango du bertaratzen denak.

Konponketa lanak hasi dituzte skate parkean

Estazio zaharraren alboko skate parkeko lanak hasita, abenduko zubirako amaituko dituztela aurreikusten da. Horrez gain, San Pedro auzoko goiko parkean 'Street work out' eremua egingo dute eta Olaetan, berriz, haurrentzako eremua konponduko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udala estazio zahararren alboan dagoen skate parke zirkuitua berritzen hasi da, Aingeru Guarda pasealekuko ibilbidean. Lanek 13.000 euro inguruko kostua izango dute, eta abenduko zubirako amaituta egotea aurreikusten da. Bertan, egoera txarrean dauden eremuen konponketa lanak egiteaz batera, berrikuntzak ere egingo dira.

"Skate parkea hondatuta eta arriskutsu zegoen, eta, hasiera batean, berria jartzea pentsatu genuen, baina oso garestia zen. Horregatik, hondatuta dagoena konpondu egingo dugu; oinarriak mantendu ditzakegu, eta elementu berri bat jarriko dugu. Estazio zaharreko eraikuntza pareko U formako jaitzieratik ondoko gunera *transfer* izeneko beste arrapala bat jarriko da, berrikuntza moduan, zirkuitua forma borobilean jartzeko asmoz", adierazi du Josu Ezkurdiak,



Estazio zaharreko skate parkea. I.B

Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

Olaetan ere berrikuntzak

Olaeta auzoan ere konponketa lanak eta berrikuntzak izango dira haur txikien eremuetan.

Bertan dauden jokoak berritu, eta *osasun parkea* deritzen bi elementu berri jarriko dituzte. Ping-pong mahai bat ere jarriko dute, xake-mahaiaren alboan.

San Pedroko parkea biziberritu

"San Pedro auzoan dagoen goiko parkea utzita egon da, ez dago ezer bertan, eta, herriko gazte talde baten eskaerari erantzunez, *street work out* izeneko eremua jarriko dugu. Modu batera esanda, kanpoko gimnasioa ezarriko da, altuera batera barrak... dituen". Urtea amaitu aurretik, edo urtarrilerako, 15.000 euro inguruko kostua duten lanak amaituta egongo direla aurreikusten dute Udaletik.

Kiroldegiko lanak hasita

Manuel Muñoz kiroldegia eraerbitzeko lanak ere aste honetan hasi dituzte, eta gimnasioaren azalera bikoiztuko da lan horiekin, besteak beste.

Bandaren Santa Zeziliako kontzertua, gaur, Zaldibarren

Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolako musika bandak kontzertua eskainiko du gaur, Zaldibar antzokian. Santa Zezilia eguna ospatzeko antolatzen den emanaldia, aurten, egubakoitzean izango da, eta 20:00etan hasiko da.

Guztira, bost pieza joko dituzte Eskoriatzako banda osatzen duten musikariek, Angel Bañares zuzendariaren gidaritzapean, eta hauek eskaini ostean sorpresaren bat ere egingo da. Pasodoblea, ABBA taldearen kanta ezberdinak... izango dira, besteak beste. Sarrera doakoa izango da, eta herritarrei bertara joateko gonbidapena egiten dute musika eskolatik.



IMANOL SORIANO

Kiroldegia bete dute pailazoek

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek *Borobilean* ikuskizun berria eroan zuten Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegira. Hain zuzen ere, Marimori, Maribel andereñoa, Jeronimo eta beste hainbat lagunekin izan ziren pailazo ezagunak, eta, kiroldegia beteta, ikuskizunarekin gozatu zuten umeez eta helduek.



'Volar' dokumentaleko lantaldea Donostiako Zinemaldian. ULISES PROUST

Kultura etxean 'Volar' dokumentala izango da ikusgai

Indarkeria matxista jasan duten bederatzi emakumeren testigantzak batzen ditu Bertha Gaztelumendiren lanak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Egunaren harira, Bertha Gaztelumendi zine-magileak egindako *Volar* dokumentala izango da ikusgai gaur, kultura etxean, 18:30ean. Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, sustatutako lana da, eta Donostiako 65. Zinemaldian aurkeztutako lana ere bada *Volar* dokumentala.

Leintz Gatzagako Udalak eta Bideberrik antolatutako proiektioan, indarkeria matxista jasan duten bederatzi emakumeren testigantzak biltzen dituen lana ikusteko aukera izango dute gatzagarrek.

Sufrimendu gogorra

Iraganean indarkeria matxista bizi izan duten bederatzi emakumek asteburu bat elkarrekin emango dute landa-eremuan, eguneroko bizitzatik urrun. As-

kotariko adinak eta lanbideak dituzten emakumeak badira ere, gai dira hitzen beharrik gabe elkar ulertzeko. Indarkeria horren infernuari aurre egiteko izan duten adorea elkartzen ditu, baita hortik bizirik irten izanak eta jasandako sufrimenduari zentzua eman nahiak ere. Gainera, beste emakume batzuen eta gizartearen esku jartzen dute euren bizitzako ibilbidea, biktimismorik gabe.

Helburua, gizarteratzea

Lan horren helburua da, testigantzen bitartez, indarkeriazko jokaerak aldatzea; zer dagoen horien atzean adieraztea, nola eragiten dien emakumeei, zein ondorio izan ditzaketen helaraztea... Hala, gizartea ez delako jabetzen tratatu txarrak jasan dituen pertsona bat nola sentitzen den, eta hori erakutsi nahi izan da.

Gipuzkoako urre zuria ezagutzeko bisita abenduaren 10ean

Ezkutuko altxorrak egitasmoaren barruan, bisita gidatua egingo dute abenduaren 10ean Leintz Gatzagan.

Gipuzkoako urre zuria, Leintz Gatzagako gatza izenburupean egingo dute bisita gidatua, 12:00etan hasita. Hala, bertara joan nahi duenak aldeztu aurretik eskatu beharko du: turismo@debagoiena.eus helbidera ida-

tzita edo 943 79 64 63 telefonora deituta. Mendeetan zehar ur gaziaren iturriaren inguruko jardura izan zen Leintz Gatzagako bizigarria, eta herriari izena eman ziona. *Urre zuria* izenez ezagutu izan da gatza, estimu handia izan duelako historian zehar, eta oraindik ere askorentzat pizgarria eta pozgarria ere bada. Bisitan, gatz ekoizleen historia ezagutzeko aukera izango da gatza ekoizten zen leku berean. 2,5 euro kostako da.

Urrats irmoak indarkeria matxista bako herrirantz

Berdintasun teknikaria berehala kontratatzeko eta Gizarte Zerbitzuen laguntza osatzeko konpromisoa hartu du Udalak, herritarrei kasuak salatzeko eskatzeaz gainera; biharko, elkarretaratzea (12:00) eta akelarre feminista antolatu dituzte, San Martin plazan (20:00)

Jokin Bereziartua BERGARA

Martitzenean egindako prentsa agerraldian ezagutzera emandako datuen arabera, urtea hasi zenetik Udaleko Gizarte Zerbitzuetan emakumeen kontrako hamahiru kasu artatu dituzte, eta, ildo horretatik, garbi utzi nahi izan dute sail horretara laguntza eske jotzeko ez dela beharrezkoa salaketa jarri izana eta balitekeela Ertzaintzan eta epaitegietan beste kasu batzuen berri izatea. "Errealitate zati bati dagozkion datuak dira guk esku artean ditugunak", azaldu dute. 2015ean, zortzi izan ziren artatutako kasuak; eta 2016an, berri, hamasei kasu.

Adina, "deigarriena"

2017ko datuetara etorrira, erasoak jasandako guztiak emakumezkoak dira, %54 erkidegokoak edo Espainiakoak eta %46 beste herrialde batzuetakoak. Euren adina da, ordea, udal ordezkarien arabera, "daturik deigarriena", 18 eta 30 urte bitarteko adin tartean dago-eta kopuru handiena: %32. 41-50 adin tartea dago ondoren (%23).

Indarkeria motari dagokionez, gehiengo zabalak (%77) eraso fisikoa eta psikologikoa, biak, jasan ditu; %15ek eraso sexualak jasan dituzte; eta %8k tratu txar



Asteleheneko irakurketa foro feminista, gaztetxean: *Una entre muchas*. MARTXANTERAK

psikologikoa jaso dute. Eraso-tzailea bikotekidea edo bikotekide ohia da hamar kasutatik zazpitan, eta, jatorriari dagokionez, %54 erkidegokoak edo Espainiakoak dira.

Herritarren konpromiso bila

Gizarte Zerbitzuek laguntza psikologikoa, ostatua, aholkularitza juridikoa, diru laguntzak... eskaintzen dizkiete erasoak jasan dutenei, beharraren arabera; haurrak dituzten kasuan, horien babeserako laguntza ere eskaintzen zaie; kanpotarrei, dokumen-

tazioa erregulatzeko orientazioa. Gainera, indarkeria matxistari aurre egiteko herritarren konpromisoa eskatu dute eta salatzera animatzeko dei egin diete, erasoak jasan dutenei ez ezik, kasuren baten ezagutza izan dezakeen edonori. Bi telefono zenbaki ipini dituzte herritarren eskura: 900 840 111 eta 112.

Berdintasun teknikaria, berehala

Berdintasun zinegotzi Maite Agirrek dio Bergarako Udala "irmo" ari dela lanean indarkeria matxistatik libre egongo den

gizarte baten alde, elkarbizitza eta berdintasuna ardatz hartuta: "Udalak ezinbestekotzat du biktimen eta haien albokoei laguntza-zerbitzua ematearekin bat, prebentzioa, detekzioa, arretoa, babesa, koordinazioa, justizia eta erreparazioa bermatzea".

Hain justu, azaroaren 15eko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak Bergara biolentzia matxistaz libre aitoritzea, udalbatzak indarkeria matxistaren kontrako konpromiso guztiak gauzatzeko plangintza garatzea eta Berdintasun teknikaria berehala kontratatzeko prozesua martxan jartzea.

Horrez gain, asteon ohar bidez aditzera eman duenez, Bergarako Irabazik uste du ahotsa eta protagonismoa indarkeria matxista jasan dutenei eta horien elkargune diren elkarteei eman behar zaiela, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortzeko. Erakundeen aldetik "benetako konpromisoa" ere eskatu du koalizioak.

"Borroka eta saretze feminista"

Martxanterak talde feministak hainbat ekintza antolatu ditu egunotan, aldarrikapenerako eta kontzientziak pizteko. Irakurketa foro feminista izan zuten gaztetxean –argazkian– astelehenean, *Una entre muchas* komikiaren bueltan. Eguaztenean, berri, *Sorgin ehiza eta indarkeria matxistari aurre egiten* izeneko hitzaldia izan zuten, Barakaldoko Argitan elkarte feministaren eskutik. Indarkeria matxistari aurre egiteko esperientziak eta estrategia zehatzak izan zituzten berba, besteak beste: "Sanferminetan eta Hollywooden ez ezik, Bergaran ere gertatzen delako. Indarkeria matxistaren aurrean,

Azaroaren 25a: egitaraua

Azaroak 24, egubakoitza

- **20:00** Zabalotegin. *Koaderno zuria*. Helduei zuzendutako obra, Hika Teatroa taldearen eskutik. Antolatzailea: Udala.

Azaroak 25, zapatua

- **12:00** Elkarretaratzea San Martin plazan. Antolatzailea: Udala.
- **20:00** Akelarre feminista San Martin plazan: Antolatzailea: Martxanterak.

Azaroak 29, eguaztena

- **20:00** *Todos están muertos* filma Zabalotegin. Antolatzailea: Udala.

borroka, elkartasuna eta saretze feminista!". Eta biharko, azaroak 25, akelarre feminista antolatu dute: "Ekintza herrikoia da. Emakumeon gorputzen gainean erabakitze, gure bizitzaren alde, erasoaren aurrean erantzun kolektibo bat emateko, mugak zabaltzearen alde, instituzioei ardura eskatzeko... Finean, gure aldarrikapenak kalera ateratzeko, ekimen bat abiatuko dugu suaren bueltan", aurreratu dute.

Era berean, Udalak deituta, elkarretaratzea egingo dute bihar San Martin plazan, 12:00etan.

GIZARTE ZERBITZUEK ARTATUTAKO KASUEN ARTEAN, 18 ETA 30 URTE ARTEKOAK DIRA GEHIENAK

Eliz atariko lurrean lanean

Paso handiko gunea den Santa Marina eliz atariko harlauzak konpontzen dihardute eta lanok bizpahiru aste iraungo dute. Apurtutako harlauzak kendu, berriak jarri, hutsuneak ondo lotu eta irtendako zatiak leunduko dituzte, estropezuak ekiditeko. Udalaren eta Elizaren arteko akordio bati esker –Goi Auzoko bide tramua hobetzeko lagapena dela-eta– egingo dira lanak.



B.U.

Bazkide kanpaina abiatuko dugu elkarte eta eragileei begira

Goiena komunitatea

Jardun Euskara Elkarte / BERGARA

Aurreko ikasturtean norbanakoen bazkidekanpaina jarri genuen martxan. Erantzun ona izan zuen eta esan dezakegu Jardun Euskara Elkartearen aurpegi berriak ditugula. Oraingoan, ordea, elkarte, merkatari, ostalari, lantegi... ezberdinei zuzendutako kanpaina jarriko dugu

martxan. Izan ere, herritarrez gain, askotariko eragileak bide-lagun nahi ditugu Bergara herri euskalduna izatera iristeko.

Herritarrek eguneroko egin-behar ohikoenak –lana, erosketak, aisialdia...– euskaraz egin ahal izateko bidea errazteko ahalmen handia dauka komunitate horrek eta euskararen normalizazioan oso paper garrantzitsua betetzen dute. Denok elkarlanean aritzen bagara, gure hizkuntzan bizitzetik hurbilago egongo gara. Adi, laster informazio gehiago.

"Zarata-eremu lasaian" bizi dira bergararren %70

2018tik 2022ra bitartean Bergarako soinu-ingurunea hobetzeko planean jasotzen denez, zirkulazioak eta industria jarduerak eragiten dute kalte handiena; zarata-mapa horretan ez daude jasota, adibidez, gaueko aisialdia, etxe barruko zaratak eta garbiketa zerbitzuarenak

Jokin Bereziartua BERGARA

2018tik 2022ra arteko soinu-ingurunea hobetzeko planean jasotzen da, besteak beste, kaleko zirkulazioa dela Bergarako zarata-iturri nagusia. Hala ere, txosten horretan jasotzen denez, biztanleen %70 "eremu lasaiei dagokien zarata-maila" baten bizi dira; hau da, etxebizitzaguneetarako ezarritako kalitatezko zarata-mailaren barruan. Txostena Udalaren webgunean –bertsio digitalean– eta Laboratoriumen –inprimatuta– kontsulta daiteke. Aintzat hartu behar da, bestalde, kexa asko eragiten duten zarata-iturri batzuk ez daudela bertan jasota –gaueko aisialdia, etxe barruko jarduerak eta garbiketa zerbitzuak–. "Hala ere, ekintza planak zarata-iturri horiek sortzen dituzten arazoak jorratu behar ditu", dio txostenak.

Zirkulazioa eta industria

Zaratagatik kaltetuenak diren eremuei dagokienez, hiru multzo berezitu behar dira: kale zirkulazioa, errepideetako zirkulazioa eta industria jarduerak.

Kale zirkulazioari dagokionez, errepidetik gertuen dauden etxebizitzak dituzten kaleen artean, Ibargarai, Zurradero eta Masterrera nabarmentzen dira. Gainera, sarbide kaleen etxebizitza



Kale zirkulazioak eraginda zarata handien jasaten duen kaleetako bat da Ibargarai. GOIENA

hurbilenak, erdiguneko irteerak eta Ibarra, Aranerreka eta Matxiategi kaleak ere puntu zaratatsuen artean daude. Herri-gunetik kanpoko errepideko zirkulazioari erreparatuta, sailhebidetaren ondorioz –GI-627 errepidea– zarata-maila handia dago Ibarra kalean, Ozaetan, Ortuiarren, Boni Laskurain pasealekuan eta San Martzialerako bidean. Elorregi eta Mekolalde auzoei ere eragiten die errepide horretako zirkulazioak. Eta industria-jarduerari dagokionez, San Juan, San Lorenzo, Agirre,

Askarruntz eta Mekolalde auzoak eta bertako baserriak dira lantegien zaratagatik kaltetuenak.

Gaiari "jarraipen bateratua"

Txostenean, zarata-mapa, egingako neurketak, kontzientziazio eta hezkuntza kanpaina eta ekintza zehatzak jasotzen dira. Besteak beste, planari Udaleko sail ezberdinen artean "jarraipen bateratua" egiteko lantaldea sortuko dute eta, gutxienez, sei hilean behin elkartzeko da. Bost urtean behin eguneratuko dute zarata-mapa.



IMANOL SORIANO

Saria Mujika Burdindegia rendako

Merkataritza Enpresa sariak banatu zituen azaroaren 17an Gipuzkoako Bazkondeak, eta *Hamar bitxiak* izendapenaren barruan, Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa esanguratsuenak saritu dituzte. Horien artean dago Bergarako Mujika Burdindegia. "Merkataritzaren ezaugarri diren balio, irudi eta prestigioa adierazten duelako" saritu dute Mujika Burdindegia.

Sendabiderako "kode erraz bat" aurkeztuko du Lourdes Garitanok

Kattalin elkarteak antolatuta, *El código de curación. Una solución real a los problemas físicos y psicológicos del organismo* izenburu duen hitzaldia eskainiko du Lourdes Garitanok. Bihar izango da saioa, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 11:30etik 14:00etara. Hizlariak aurreratu duenez, lehen partean, "gaixotasunen benetako jatorria" non dagoen azaltzen saiatuko da. Bigarren partean, berriz, gaitzen aurrean sendabiderako erabilgarria izan daitekeen "kode erraz" baten gaineko azalpenak emango ditu. "Oso teknika errazak dira, eta, beraz, edonorendako izan daiteke interesgarria", gaineratu du Garitanok.

Anai-arreben arteko zeloaren gaineko hitzaldia hilaren 30ean

Mireia Centeno psikopedagogo eta psikologoak *Anai-arreben arteko zeloak eta gatazken konponbidea* izeneko hitzaldia eskainiko du azaroaren 30ean Zabalotegi aretoan (18:00).

Hainbat galderari erantzuna ematen saiatuko da Centeno: *Zergatik gertatzen da? Nola kudeatu jarrera jeloskorrak? Zer egin elkar jotzen dutenean?...* Hitzaldia euskaraz izango bada ere, gaztelaniazko aldebereko itzulpen zerbitzua egongo da; horrez gain, hitzaldiak irauten duen bitartean umeentzat zaintza zerbitzua izango da; zerbitzu hori jaso gura dutenek 17:45erako eraman beharko dituzte umeak Zabalotegi aretora.

DANOBATGROUP

Euskara aldean, erabili lanean

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi **bi gaueko egonaldia bi lagunentzat**

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html>

*Parte hartzeko azken eguna: 2017ko abenduak 11





Irizar jauregiko aretoa txiki geratu zen; batzuek zutik jarraitu zuten aurkezpena eta beste batzuek, areto kanpotik. JOKIN BEREZIARTUA

Aurkezpen hunkigarria, lan hunkigarri baterako

Irizar jauregia txiki geratu zen Manu Diazen 'Cien crónicas mahoneras' liburuaren aurkezpenean; kirol kazetari Juanjo Lusak gidatuta eta hitzaurrea idatzi duen Juanjo Alvarezen laguntzarekin, giro ederrean joan zen: "Ohorea da niretzat", dio egileak

Jokin Bereziartua BERGARA

Ukaezina da Manu Diazen *Cien crónicas mahoneras* liburuak ikusmin handia piztu duela herrian. Horren adierazle izan zen martitzen iluntzean Irizar jauregiko areto nagusiak erakusten zuen itxura: eserleku guztiak beteta eta herritar asko zutik zein kanpotik jarraitzen aurkez-

pen osoa. Juanjo Lusa Onda Vascako kirol kazetariak egin zituen aurkezpeneko gidari lanak eta liburuaren hitzaurrea idatzi duen nazioarteko zuzenbidean katedradun Juanjo Alvarez ere bertan egon zen. Lusaren presentziak eraginda, hein batean, irratsaio bateko solasaldi itxura hartu zuen aurkezpenak, tarteka,

bertaratutakoen gozamenerako. "Juanjo Lusa eta Juanjo Alvarez ondoan izanda, halako ekitaldiak askoz errazagoak dira. Ohorea da niretzat. Batzuek uste dute datu historikoetara eta futbol kontuetara mugatzen naizela liburuan, baina ez da horrela. Hunkitzen duten istorio asko daude eta hori aurkezpenean

Zer nabarmenduko zenuke liburutik?



JUANJO ALVAREZ LIBURUAREN HITZAURREAREN EGILEA

"Transmititzen dituen balioak. Izugarri gozatu dut irakurtzen; ze ondo dauden kontatuta bizitza oinarri duten istorioak. Oso lan humanoa da eta feminismitik ere badu, berdintasunaren gaia oso ondo tratatzen du. Kronika bakoitzak dauka bere xarma; istorio txikiak dira, baina oso handiak, aldi berean".



JUANJO LUSA LIBURUAREN AURKEZPENEN GIDARIA

"Sentsibiltate handiarekin dagoela idatzita eta jende arruntari ematen diola protagonismoa. Izen handiez harago, kaleko jende normala. Egoera zailak gainditu dituzten herritarrak. Igartzen da kronika mahonero horiek bihotzetik idatzi daudela. Errealitatearen behatzaile bat da Manu".

bertan ere igarri da", adierazi du Diazek. Izan ere, blog batetik sortutako liburu horren helburu nagusia martitzenekoa bezalakok ekitaldi bat antolatzea zen: "Honetarako idatzi nuen, gaur [martitzenean] Irizarren sentitu izan dugun energia sentitzeko. Kroniketan aipatzen diren asko etorri dira, oso polita izan da". Paperean ez daki bigarren parte bat egongo den, baina *Crónicas mahoneras* blogarekin jarraitzea eta itxura profesionalagoa ematea da Diazen asmoa.

Organoaren aldekoak, oso pozik Etekinak San Pedro elizako Stoltz Freres organoa berreskuratzera bideratuko dira, eta elkarte horretako kide Miren Azkaratek zuzenean hartu du parte lanean: "Oso detaile polita izan da. Bergararen inguruko liburu baten etekinak Bergarako harribitxi bat zaintzeko izatea oso polita da; liburu oso sentimentala da, ederra". Depor eta Ariznoa tabernetan, Ordesa aholkularitza bulegoan eta Ostadar ile-apaindegian dago salgai, 12 eurotan.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Arima eta bihotza

23 urte pasatu dira Bergarako Musika Eskolak lehen musikala estreinatu zuenetik: *Miserableak*. Abentura bat izan zen orduan, eta, hainbeste urte pasa ostean, egin dugun musikal bakoitza abentura bat izan da. Lehen hartan, inesperientziak, ezjakintasunak eta publikoaren erreakzioak sorrarazten zizkiguten kezka nagusiak. Baina sorpresa! Euskal Herriko antzeztoki nagusietan gure lana erakutsi ostean, bide horretatik jarraitzeko indarrak hartu genituen. Eta baita hartu ere!

Gaur, esan dezakegu Bergarako identitate seinalea bihurtu direla musikalak. Gure azken musikala *Alizia* izan da. Esperientzia, urteetan ikasitakoa eta, beste behin, arimarekin eta bihotzarekin eginga. *Alizia* apustu handi bat izan da. Operan zein musikaletan erabiltzen ari diren teknologia berritzaileak erabili nahi izan ditugu. Dekoratu handiak desagertzen ari dira agertokietatik. Baina, adi! Erronka handiena izan da, beste behin, frontoian egitea. *Alizia* istorio klasikoa izanik, gaurkotu egin dugu,

gure gizartean momentu honetan kezka sorrarazten diguten gaiak tratatuz. *Bullying*-a, Interneteko jokoa edota smartphoneen erabilera. Lehen musikalean bezala, publikoaren erreakzioaren zain. Lehenengo barreak, haurren erantzunak eta parte-hartzeak hasierako tentsioa erlaxatzen du. Eta espektakulu on batean gertatzen den bezala, erakargarriena bukaerarako lagata.

Beste behin, lortu dugulakoan gaude.

Mila esker, Bergara!

Danobat Group-ek euskararen aldeko lehiaketa antolatu du

Euskara aldean, erabili lanean lelopean antolatu du lehiaketa Danobat Groupek. Internetez hartu behar da parte, abenduaren 11 baino lehen: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html>. Partaide guztien artean bi txartel zozketatuko dira, Euskal Herriko nekazaritza-etxe batean bi lagunendako asteburu bateko egonaldi baterako. "Danobat Group-en gizartearekiko konpromiso sendoaren barruan kokatzen da euskarerikiko konpromisoa. Kontsultatu webgunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... Osatu ariketa eta hartu parte bi lagunendako asteburuko zozketan".

OHARRAK

'Domeketan' ekimena

Jardun elkartearen eskutik, *Domeketan* familian gozatzen ekimenak beste hitzordu bat izango du etzi. Oxirondo azokako gunean elkartuko dira, 11:30etik 13:30era, mahai jolasez gozatzeko.

Udalaren lan-poltsa

Udalak sei langabe kontratatuko ditu urte erdirako. Hiru, mantentze-lanetarako; bat, artxiboko administratzaile-laguntzaile lanetarako; bat, gizarte zerbitzuetan arreta lanetarako; eta, azkenik, bat, igeltsero lanetarako. Lanbidek egin du aurre-aukeraketa eta Udalak proba bana egingo die; urtarrean hasiko dira lanean.

Lehia bizia iragarri dute Agorrosingo gotorlekuan

Bergararen eta Mondraren arteko derbia izango da bihar (15:30), etxeko taldeak ligako partidu guztiak irabazi dituen Agorrosin futbol zelaian; duela bi urte Ohorezko Erregional Mailara igotzeko lehia bizia izan zuten bi taldeek, eta orduan Mondra irten zen garaile

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara eta Mondra nor baino nor gehiago izango dira bihar, zapatua, Agorrosin futbol zelaian (15:30). Alde batean Bergara, lider sendoa. Lehen hamaika jardunaldietan partidurik galdu ez duen, bigarren sailkatua den Ordiziari bost puntu ateratzen dizkion eta etxeko partidu guztiak irabazi dituen taldea. Eta beste aldean, Mondra; Jorge Davilaren mutilek maila ona erakutsi dute, orokorrean, baina ibilbide irregularra daramate.

Bi taldeek ondo ezagutzen dute elkar, Erregional Preferente mailan bigarren postua lortzeko lehia bizia izan zuten-eta duela bi denboraldi, eta ordutik hona taldearen oinarria mantendu egin dute biek ala biek. Eta horri, derbi guztiek izan ohi duen lehiarako pizgarri berezia gehitu gero, ikuskizuna bermatuta egongo da bihar Agorrosingo gotorlekuan.

Bergara: 33 puntutik 29 lortu

Ohorezko Erregional Mailara igo berria dela jakinda, etxeko taldearen denboraldi hasiera ez sinistekoa da. Bederatzi garaipen, berdinketa bi eta porrotik ez. "Liga hasi aurretik gure helburua salbaziorako 40 puntuak lehenbailehen lortzea zen. Geure buruari jarri genion erronka



2015-2016 denboraldi amaierako derbia, Erregional Preferentean. IMANOL SORIANO

futbol zelai guztietan lehiakorrek izatea izan zen eta hori oso ondo ari gara betetzen. Eta emaitzak hor daude. Orain, 33 puntutik 29 eskuratuta, gure helburua maila mantentzea dela esatea... 40 puntuak lortzen ditugunean, mailak jarriko gaitu bere lekuan eta inongo presiorik gabe gozatzeko aukera izango dugu", dio Mikel Juaristi entrenatzaileak.

Maila berrira horren ondo egokitzearen gako aurreko urteetako lana dela dio Juaristik: "Hiru urte daramatzagu oinarri berarekin lanean eta kontzeptuak

oso landuta ditugu. Kalitatea badago, baina talde lana da arrakastaren gako".

Mondra: islarik ez duen "lan ona"

Sailkapenean zortzigarren postuan dagoela joango da Mondra Agorrosinera. "Taldea ondo ari da lanean, gogotsu. Emaitzetan askorik ez islatu arren, dinamika onean ari gara lanean, geroago eta talde sendoagoa osatzen gabilta", adierazi du arrasatearren entrenatzaile Jorge Davilak. Aurkariak orain arte oso maila handia erakutsi

tuak dira, bost garaipenekin eta lau porrotekin. Etxekoek bihar partidua irabazi eta bi puntuak lortzea beharrezko dute, Gipuzkoako Bigarren Mailatik Lehen Mailara igotzeko lehiaren sartuko diren goiko postuei begira jarraitu gura badute.

Zarautzek, guztiak irabazi

Izan ere, bigarren maila horretako liderrak, Zarautz Sharks taldeak, ez du aurkaririk izan orain arte; jokatuak bederatzi partiduak irabazi dituzte.

Nolako derbia izatea espero duzu?



MIKEL JUARISTI
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Derbi polita espero dut, eta onenak irabaz dezala"

"Orain arte jokatuak partidu guztien moduan planteatuko dugu derbia. Oso indartsu gabilta etxean, eta, sailkapenak ematen digun konfiantzarekin, gure partidua egiten saiatuko gara, betiere, jakinda aurrean talde indartsua izango dugula. Derbia izateak are bereziago egingo du lehia; Arrasate eta Bergara oso lotuta dauden bi herri dira eta badaude elkarrekin ere jokatu duten jokariak, lagunak ere badirenak. Espero dut derbi polita eta ikusgarria izatea, eta onenak irabaz dezala".



JORGE DAVILA
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Intentsitate handiko partidua izango da, ziur"

"Intentsitate handiko partidua izango da, ziur. Guk ahalik eta partidurik serioena egin behar dugu, eta izango ditugun aukerak aprobetxatzen jakin. Hor egongo da gakoetako bat. Mondrak %100a ematen badu, aukera asko izango ditu Bergarari behar den moduan aurre egin eta partidua irabazteko. Aldiz, ez badugu gure bertsiorik onena eskaintzen, oso zaila izango da Bergara menderatzea. Izan ere, aurkariak taldea oso egonkortua dute eta aurrealdean kalitaterik ez zaie falta".

Saskibaloia taldea, goiko postuei begira jartzeko garaipenaren bila

Oiartzungo Saskilagunak taldearen aurka jokatu du bihar Soralue BKE taldeak Labegaraletan (16:30)

J.B. BERGARA

Partidu garrantzitsua jokatu du bihar Soralue BKE saskibaloia taldeak Labegaraletako kiroldegian (16:30). Oiartzungo Saskilagunak taldearen aurka lehiatuko dira bergararrak

—sailkapenean behegaro kokatuta dago talde hori—. Soralue BKE laugarren sailkatua da, sei garaipenekin eta hiru porrotekin, 15 puntu batuta. Oiartzuarrak, berriz, puntu batera bakarrik egon arren, zazpigarren sailka-

Eskubaloia: etxean galdutakoa kanpoan irabazteko asmoz

Zazpigarren sailkatua den Soralue BKE eskubaloia taldeak 21-23 galdutako asteburuan Urnietaren aurka; etxean, eta aurkari zuzena izan daitekeen talde baten aurrean. Porrot mingarri hura arintzeko aukera izango dute bihar Ormaiztegi Zubipe kiroldegian (18:00), hirugarren sailkatua den Ormaiztegi Kirol Elkartearen aurka.

Gazte mailako pala partidua gaur Udal Pilotalekuan (18:00)

Asteburu honetan ere ez da eskaintzarik faltako Udal Pilotalekuan. Gomazko pala modalitatean, gazte mailako Bergarako Arratek eta Idoiak Atzapar taldekoen aurka jokatu dute gaur, egubakoitza (18:00). Bestalde, eskuz binakako nagusien hirugarren mailan, Zazpi Iturri taldearen aurka jokatu dute bergarrek, kanpoan.



Katillu bertsolari ohia sukaldari lanetan. IMANOL SORIANO

Txotxongiloak mugitzeko bost teknika ezberdin

Jau! Haur eta Guraso Asanbladak antolatuta, 'Katillukadak' ikuskizuna aurkeztuko dute domekan kartzela zaharrean. Kontakatillu txotxongilo taldea dago lanaren atzean; eta azken urteetan herriz herri ipuinak kontatzen dabilen Katillu da protagonista

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Kontakatillu txotxongilo taldeak emanaldia eskainiko du kartzela zaharrean. Jau! Haur eta Guraso Asanbladak antolatuta emanaldia izango da. Domekan egingo dute, 18:00etan, 3 euroren truke.

Kontakatillu taldeak *Katillukadak* ikuskizuna eskainiko du. Mikel Ibarzabal bergarra eta Aitor Ormaetxea dira ikuskizuneko aktoreak eta teknikariak. Honela azaldu ditu Ibarzabalek ikuskizunaren nondik norakoak: "Katillu da ikuskizuneko gidaria. Berak istorio bat dauka, eta hori kontatzen duen bitartean, beste zenbait ipuin aurkeztuko ditu".

Katillu bertsolari ohia da

Bertsolari ohia da Katillu. Azken hogeita hamar urteetan herriz herri ipuinak kontatzen dabil Katillu, txotxongiloekin batera. "Katilluk eramango du guztiaren haria; bera izango da burua, eta gu eta txotxongiloak bere menpe egongo gara", dio Ibarzabalek.

Sukaldari, foku teknikari, dantzari, bertsolari... jardungo du Katilluk. Denetarik egiten du eta zeregin baten eta bestearen artean ipuinak aurkeztzen ditu. Hori horrela, ipuin horiek kontatzeko moduan txotxongiloak manipulatzeko bost teknika erakutsiko dituzte.

Lau ipuin, lau teknika, lau mezu Txotxongiloak manipulatzeko bost teknika erakusten dituen antzezlan da Katillukadak. Lau ipuin eta amaierako bertsoa aurkeztuko dute.

Hau nirea da ipuinean, eskularru bidezko manipulazio mugituko dituzte txotxongiloak. Bi pertsonaren arteko elkarriketa izango da haria. *Txuria*

KATILLUK ERAMANGO DU IKUSKIZUNAREN HARIA ETA GAINERAKOAK BERE MENPE EGONGO DIRA

izan nahi zuen belearena ipuinean barilla bidezko manipulazioa erabiliko dute. *Arginaren bidaia* ipuinean itzalak erabiliko dituzte; eta *Logelako amesgaiztoa*-n argi beltza teknika erabiliko dute. Amaierako bertsoa Arkaitz Estiballesena da.

Jau! Asanblada

Ikuskizun familiarra dela nabarmendu du Ibarzabalek, bai txikienek eta baita gurasoek gustura ikusten dutena. Ia ordubeteko iraupena izango du. "Ikuskizuna motz geratzen dela diote ikusleek, askotariko teknikak erabiltzen dituelako".

Jau! Haur eta Guraso Asanblada dago antolakuntzaren atzean: "Normalean, udaletako teknikariek deituta egiten dugu lan; saio gutxi izaten dira horrelako antolakuntzarekin", dio Ibarzabalek. Gaztetxearen bueltan sortutako asanbladari azaro hasieran jarri zioten izena. Abenduaren 2an elkartuko dira berriro, kartzela zaharrean.



Miren Gojenola eta Itziar Ituño taula gainean. REDTEATROSNABARRA.COM

Bi ahizparen arteko harremanak eroango dituzte Zabalotegira

Hika antzerki taldeak 'Koaderno zuri' antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza, 8 euroren truke

A.E. BERGARA

Familia arteko harremanak; bi ahizparena, hain zuzen. Hil berri den amak eurengan utzi duen arrastoa. Hori eta beste hainbat gai eroango dituzte Zabalotegi aretora Hika antzerki taldeko kideek. Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrea idazleen antzezlan taularatuko dute. Eta taula gainean, Itziar Ituño, Miren Gojenola eta Agurtzane Intxaurrea bera izango dira. *Koaderno zuri* antzezlan eroango dute Zabalotegira.

Begoña eta Arrate ahizpak dira. Hogeita bost urteren on-

doren, jaiotetxean egingo dute topo, ustekabean. Begoña Afrikan bizi izan da, urte askoan; Arrate, aldiz, etxean geratu zen amaren itzalean. Bi ahizpak aurrez aurre elkartzean, elkarri kontuak eskatzen hasiko dira. Ezer gutxi dakite amak batengan eta bestearengan utzitako arrastoez. Ituño Arrate izango da eta Gojenola, Begoña. Amaren pamera, aldiz, Intxaurreag egingo du.

Emanaldia 20:00etan da

Emanaldia gaur izango da, 20:00etan, 8 euroren truke.

Ekoizpen mekanikoko prozesuak, lan artistiko bilakatuta

Aroztegi aretoan *Modulares IV* erakusketa dago abenduaren 3ra arte. Susana Jodra eta Patricia Schneider artisten lanak dira; serigrafiak, hain zuzen. Serigrafia teknikaren bitartez ekoizpen mekanikoko prozesuak artelan bilakatu dituzte aipatutako bi artistek. Modu horretan, garai batean argitaratutako irudiak eguneratu dituzte. 2012an hasi ziren *Modulares IV* proiektuarekin Jodra eta Schneider; ordutik hona, Bernan, Bilbon eta Basilean erakutsi dute lana. Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeka goizetan egongo da ikusgai.

Helduendako ipuinak kontatuko ditu Ixabel Agirresarobek

Ipuin kontaketa saioa egingo dute martitzenean, hilaren 28an, Udal Liburutegiak antolatuta. 19:30ean izango da emanaldia, doan, liburutegian bertan. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria izango da helduen ikusmina piztuko duena. Hainbat ipuin eta pasadizo kontatuko ditu usurbildarrak. Euskaraz izango da saioa.

Helduendako bakarrik ez, umeendako ipuin kontaketa saioa ere izango da asteburuan. Hain zuzen, gaur, egubakoitza, Amaia Zinkunegik ipuinak kontatuko dizkiete etxeko txikiei umeen Udal Liburutegian. 18:00etan izango da emanaldia, doan.



Amaia
Txintxurreta
Kantari
aurkezlea.

6. ALDIA

Kantari

Oraindik garaiz zabilta izena emateko!

- Goiena Komunikazio Taldeak KANTARI karaoke-ikuskizuna antolatu du 6. aldiz.
- Urtarriletik aurrera egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoienean bizi bazara, 2006-2010 urteen artean jaio bazinen (biak barne) eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.
- Gutxienez, hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.

Izena emateko:

- Aurten, Goiena.eus atarian sartu eta bertan eman beharko da izena.
- Gogoratu helbide elektronikoa eta telefono zenbakia ongi jarri dituzuela ziurtatzeaz. Zuekin harremanetan jartzeko bide horiek erabiliko ditugu eta.

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04 /
blogak.goiena.eus/kantari

goiena“



Andramanuelak brigada feminista taldea jaio da

Biharko, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna ospatzeko egitarau zabala prestatu du sortu berri den herriko emakume taldeak: Andramanuelak. Helburu garbia dute eta ozen diote ez dutela eraso sexistarik inondik inora onartuko

Maider Arregi ANTZUOLA

Herriko jaietan lehen hazia erein bazuten ere, indartsu dator Antzuolako brigada feminista. Herri gintzatik sortutako taldea da Andramanuelak, eta lehenengoz hartu dute azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna, antolatzeke ardura ofizialki. "Berez, taldearen sorrera iazko herriko jaietan dago. Izan ere, borroka feministak presentzia izan zezan, emakume talde bat batzen hasi zen jaietan. Eta helburu berbera mantenduz elkartzen jarraitu dugu aurten ere", azaldu du Andramanuelak taldeko kide Idoia Ramirez de Okarizek.

Ikuspegi feminista herrian zabaltzeko helburuarekin jaio dela Andramanuelak emakume taldea gaineratu du Ramirez de Okarizek. "Herriarrei begira eta herri gintzan lantzeko beharra egon bazegoela identifikatu genuen. Ikuspegi feminista Antzuolako herrian zabaltzeko gura izan dugu modu horretan".

Eraso sexistarik ez

Iazko iraila ezkerro presentzia izan dute herrian egindako hainbat ekintzatan parte hartuz: "Ekintza txikien bitartez, presente egon gura izan dugu. Esaterako, hamabostean behin elkarretaratzeak egin izan ditugu Zurrategiko plazan. Soilik emakumeon elkarretaratzea izan ohi zen, nolabait, ikustarazteko espazio hori emakumeok okupatzen genuela; eta salatzeke egunerokotasunean gertatzen ziren askotariko erasoak. Horrez gain, herrian badaukagu txoko bat, koadro bat, eta bertan aldarrikapen ezberdinak jartzen joan gara", argitu du.

"Aurtengo uztailean, aldiz, lortu dugu aurreko urteko protokoloa garatzea eta taberna eta herrian banatzea. Eta, nola ez, emakume talde *potente* bat batzea ere lortu dugu". Eta orain, aza-



Andramanuelak taldeko kideak Antzuolako gaztetxean. XABIER URTZELAI

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA SALATZEA DUTE ORAIN HELBURU

roaren 25aren baitan, ez dutela inolako eraso matxistarik onartuko ozen esateko aukerari ez diote uko egingo Andramanuelak taldeko kideek.

Esan behar da taldeak behar zuen bultzada eta babesa jaso-

tzeko Antzuolako Udalaren laguntza izan dutela. "Oso pozik gaude Antzuolako Udalak emandako erantzun positiboarekin. Hasieratik izan du emakume taldeak onarpena eta oso eskertuta gaude, noski", azaldu du Naiara Fernandez kideak.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzea dutela orain helburu nagusi azpimarratu du: "Une honetan indarkeria matxista ozen salatzea dugu helburu; baina aurrera begira -zehaztu gabe dagoen arren- bestelako helburuei ere helduko diegu".

Azaroaren 25a: egitaraua

Bihar, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen hasiko dira antzuolarrak, *Txabela Bargas* antzezlanarekin, 18:30ean, Herriko Plazan -euria balego, Torresoroan-. 19:30ean, aldiz, elkarretaratzea egingo dute plazan, *Biolentzia matxistak milaka aurpegi ditu* lelopean, eta, ondoren, musika izango da protagonista poteo musikatuaren laguntzarekin.

Herriko gaztetxeak ere ateak zabalduko dizkio indarkeria matxistari aurre egiteko. Hala, 21:30ean luntxa egingo dute bertaratzen direnek. Gau giroa berotzeko, berriz, kontzertua izango da Atzoko Ogixa taldearen eskutik, 22:30ean hasita. Eta aldarrikapenez osatutako egunari bukaera emateko, karaokea egingo dute herriko gaztetxean.



LANDATXOPE ELKARTEA

Gaztaina-erre jana Landatxopen

Aurten ere hutsik egin gabe, gaztaina-erre janaz gozatu dute herriko erretiratuek. Guztira, 60 kilo gaztaina gertatu zituzten. Batzuek mahaiaik prestatzen zituzten bitartean, beste batzuek eskolako patioan gaztainak danbolinean erre zituzten udal ordezkarien laguntzarekin. Ehun erretiratu inguru gerturatu ziren gaztaina-erre festara.

Barnekotasuna lantzeko saioa izango da martitzenean

Azaroaren 28an, martitzena, izango da Nigan egitasmoaren barruko saioa. Barnekotasunaren heziketa landuko du Jesus Matak nagusiki saio honetan, eta gurasoendako eta helduendako izango da. Helburua da nork bere barrena ezagutzea eta hobeto sentitzeke baliabideak eskuratzea. Saioa 18:30etik 20:00etara bi-

tartean izango da, Olanan etxean.

Jesus Mataren gidaritzapean, barrua ezagutzeko teknikak gertutik ezagutu eta ikertzeko aukera izango da. Hamar urte pasatxo daramatza Matak barrukotasuna lantzen. Ikastaroan parte hartzen dutenek, baina, euren buruarekin bakean bizi eta zoriontsu izan gura dutela azpimarratu du saioaren gidariak. Izan ere, urteak daramatza adimen espirituala lantzen.

Gaztaina-erre jana egingo dute domeka iluntzean plazan

Antzuolako Udalak antolatuta, 100 kilo gaztaina erreko dituzte azaroaren 29an, domeka, 19:00etan, Herriko Plazan. Alkatea eta zinegotziak bertan ariko dira, bai gaztainak erretzen, baita banatzen. "Dudatan egon gara ekimena egin edo ez. Gaztaina onena erosita ere, ez baitabil batere ona. Baina mantentzea erabaki dugu", dio alkateak.

Jolasenea taldearen eskutik mahai jolasak probatzeko aukera

Antzuolako Mahai Joko Elkar-teak, Jolasenea (@jolasenea) mahai jolasak probatzeko, ikasteko eta horiekin jokatzeko aukera eskainiko du domekan, 16:00etan, Olanan etxean. Elkar-teak adin guztietako herritarrendako ateak zabalik izango ditu -8 urtetik beherakoak gurasoei joatea komeni dela ohartarazi dute-.



Ane Alberdi eta Onintza Legorburu, Antzuolako alkatearekin, martitzen goizean. ANTZUOLAKO UDALA

Bizikidetza positiboa eratzekeo ekimena, abian

Euskal gatazka armatua Antzuolan nola jazo zen eta izan zituen ondorioak ikertzen hasi dira Ane Alberdi eta Onintza Legorburu; bihar, zapatua, 12:30ean, Olanan herriarrei aurkeztuko diete egitasmoa, eta parte hartzekeo dei egingo diete

Maidar Arregi ANTZUOLA

Euskal gatazka armatuaren ibilbide historikoa eta horrek Antzuolan ekarri zituen ondorioak jasotzen hasi berri dira Ane Alberdi eta Onintza Legorburu. Helburua askotariko testigantzak batzea eta bizikidetza positiboa eratzea dela azaldu dute.

Dagoeneko, baina, lanketa hori egiten hasiak dira elkar-lanean herriko erretiratuekin eta Udalarekin. "1958-2011 bitartean Antzuolan nola jazo zen gatazka armatua jaso gura da. Ondorioen gaineko testigantzak biltzeko eta dokumentatzeko lana egin gura da, alegia. Izen batzuekin osatutako zerrenda badute testigantza horiek jasotzeko –erailketak, jazarpenak eta tortura testigantzak batzeko, alegia–, argitu du Landatxoep erretiratu elkartekeo Pilar Etxaniz idazkariak.

"Ideia bat badaukagu gai honen nondik norakoarekin, eta txostena aurrez landuta ere badaukagu. Dagoeneko erretiratuekin

eta alkatearekin batzartu gara eta forma ere eman diogu", azaldu dute egileek. Herri mailan gatazkaren gaineko erreallitate guztiak jasotzea oso aberasgarria dela uste dugu bizikidetza positiboa sustatzeko", azpimarratu dute ekimenaren bultzatzaileek.

Ikerketa horrek bi helburu nagusi dituela azaldu dute: "Batetik, gatazkak berak izan duen ibilbide historikoa aztertzea, eta, bestetik, gatazkak herriko elkarbizitzan izan duen eragina aztertzea. Ibilbide historikoa soilik ikertu beharrean, herri-tarengan horrek sortu dituen emozio eta erreallitate desberdinak aztertu nahi dira, benetan bizikidetzan nola eragin duen ulertzeko. Proiektu honetan

HERRI MAILAKO ERREALITATE GUZTIAK JASOTZEA DA EGITASMO HORREN ASMOA

erabiliko dugun metodologia nagusia elkarriketa izango da; taldekoak edo banakakoak. Hor-taz, proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa da herri-tarren parte-hartzea. Hala, bihar, azaroak 25, aurkezpena egingo dugu, 12:30ean, Olanan etxean". Gatazka bere osotasunean landu gura dute, eta, horretarako, herri-tar orori egin diete dei, bel-aunaldi ezberdinei nola eragin dien aztertzea da-eta asmoa.

Jardunaldiak eta ekintzak

Proiektua 2018ko abenduan aurkeztuko dute. "Idatziz aurkeztuko da, baina ez genduke nahi txosten soilean geratzeko; jardunaldi eta ekintza desberdinekin batera egin gura genduke, azken finean, herri-tarrek osatzen baitute proiektua eta euren txosten bat baino zerbait gehiago zor diegula uste dugulako. Gure ustez, bizikidetza eta aitortza erreala gerta dadin, herri-tarrek lanean jarraitzea ezinbestekoa da", azpimarratu dute.



IKER AIZKORBE

'Lurpeko altxorak' azaleratuz

Urbasako Parke Naturalean dagoen Cristinos kobazuloan Iker Aizkorbe ateratako *Lurpeko altxorak* argazkiak Nafarroa Ezagutu 2017 lehiaketako lehen saria irabazi du. "Zailtasuna duen argazkia da, oso iluminazio gutxi duelako. Toki ezezaguna izatearen aldeko apustua egin nuen eta lehenengoz kobazulo barruan atera nituen argazkiak. Oso pozik nago".



IMANOL SORIANO

Kantaldi goxoa eta gertukoa

Eñaut Elorrietak bere alde intimoa erakutsi zuen Torresoroan. Isiltasunak biluzik utzi zuen abeslariaren ahotsa, eta argia eta gitarra soilik izan zituen bidelagun. Bere ibilbideari errepasoa egiteaz gain, Leonard Cohen eta Mario Benedetti ekarri zituen gogora. Une askotan, txaloak ere ez ziren ausartu gernikararren kontzertua etetere.

Gaztetxoendako Gabonetako marrazki lehiaketa abian da

Xinkonak aurtan ere Gabonetako marrazki lehiaketa antolatatu du, gaztetxoendako. Lanak abenduaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Parte hartzen dutenen artean zozketa egingo dute, eta hamabi marrazkirekin datorren urterako egutegia egingo dute. Egutegiak saldu eta batutako dirua Anelkarrendako izango dela esan dute.

Karta txapelketan izena emateko epea gaur amaitzen da

Astelehenean erretiratuen karta txapelketa hasiko da. Herri mailan sailkatutakoek eskualdeko txapelketan hartuko dute parte. Izena emateko epea azaroaren 24ra arte, gaur arte, zabalik dago. Hain zuzen, azaroaren 27an puntxo txapelketa jotuko da; 28an, briska txapelketa; 29an, tute txapelketa; eta 30ean, mus txapelketa.



Elgetako alkate Iraitz Lazkano, martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioan. L.Z.

"Pozik egoteko moduan gaude"

Hilerriko horma konpontzeko lanak martxan dira eta urte amaierarako iragarri du alkateak nagusiendako parkea. Zailtasunak zailtasun, pozik da egindako lanarekin. Esan du 2018ko inbertsio nagusia kiroldegiko aldagelak berritzea izango dela

Larraitx Zeberio ELGETA

"Uste dut oso pozik egoteko moduan gaudela", esan du Goiena telebistako *Harira* saioan Elgetako alkate Iraitz Lazkanok. "Udalan topatu ditugun baldintza hain eskasekin eta negatiboekin, programan jarritako puntu gehienak bete ditugu edo betetze bidean goaz". Hain zuzen ere, 2017ko aurrekontuari dago-kionez, hilerriko horma konpontzeko lanak martxan daude. "Aspalditik egin beharreko kontua zen. Bidegorri baten kontra dagoen horma da, eta jende asko pasatzen da gertutik. Nahiko arriskutsu ikusten genuen".

Urtea amaitu aurretik, bestalde, nagusiendako parkea egingo dutela aurreratu du alkateak. "Abenduaren 10a baino lehen egitekoa da, eta oso leku aproposa iruditzen zaigu Bolatoki ingurua. Erretiratu pila ibiltzen

da paseoan, eguzkiak jotzen duenean toki epela da neguan, eta kiroldegian astean bi gimnasia-saio eskaintzen ditugu erretiratuendako. Guztia uztartu daitekeela uste dugu". Hala, ariketak egiteko makinak ipiniko dituzte laster kantxaren goiko aldeko berdegunean.

Hobekuntzak kiroldegian

Ez da jarduera fisikorako azpiegiturarako Elgetako Udalak duen egitasmo bakarra; izan ere, berriro egin nahi dituzte kiroldegiko aldagelak. "Aurkeztu dugu 2018ko aurrekontu pro-

posamena eta hurrengo urteko inbertsio garrantzitsuena hori izango da", esan du Lazkanok. Ia 30.000 euroko inbertsioa izango dela esan du. "Kalte-ordainetan 250.000 euro ordaindu behariko ditugu 2018an, eta horrek guztiz baldintzatuko du aurrekontua. Inbertsioetarako izango duguna %7 izango da. Lehentasunezkoen artean daude kiroldegiko aldagelak berritzea, eguneko zentroan inbertsioak egitea eta baserritarren batzordetik egiten diren bide konponketak".

Antzokirako interesaturik ez

Herriko kafe antzokiak ustiatzailerik gabe jarraituko du, oraingoan. Hilaren 15ean amaitu zen esleipen deialdi berrirako eskaintzak aurkezteko epea, eta ez du inork izenik eman. "Uste dut asko dagoela hausnartzeko, eta Kultura batzordean aztertu-

ko ditugu egon daitezkeen aukerak. Ostalaritza zerbitzua izan behar da? Sortzaileendako gune bat izan behar da?", adierazi du Lazkanok. "Garbi duguna da gure kultura proiektua ez dela eraikin batera lotzen. Nahi dugu elgetarrek parte hartzea horretan; izan ere, garrantzitsua da herritarrek sorkuntzara bideratzea. Izan daiteke ipuinak kontatzeko, bertsoak kantatzeko, marrazteko... Baina herritarrek bultzatu behar ditugu sorkuntzara. Bestetik, nahi dugu kultura hori publikoa izatea eta guneak egotea herritar guztiek erabakitzeko zer eskaini. Gune hori, guretzat, kultura batzordea da". Kultura eskaintza jasangarriaren alde egiten du Lazkanok. "Kontuan izanda gaur egun Udalak zein baliabide dituen, horren arabera kultura eskaintza egin behar da".

Erretiratuak Ozkarbin

Elgetako erretiratuak dagokienez, Ozkarbi elkartearen jarraituko dute. "Herrian dagoen erretiratu kopurua kontuan hartuta, guretzat, egokiena beraiek kudeatutako erretiratuaren etxe bat eskaintzea izango litzateke, baina gaur egun garbi dago ez daukagula horretarako baliabiderik. Beti dago ondo erretiratuak zein egoeratan dauden aztertzea, baina uste dut oso gustura daudela Ozkarbin, eta nahi dugu, gainera, ondo egotea".

Energia eta saneamendua

Bestelakoetan, Iraitz Lazkano alkatea oso arduratuta agertu da oraindik ere egiteko dauden Elgetako ur zikinen saneamenduan lanekin eta iragarritako dagoen Gueñes-Itsaso goi-tentsioko lerro elektrikoarekin. "Sesto erreka Elgetako ur zikinek sortzen dute. Errekaren egoera negargarria da. Behin eta berriz jarri gara harremanetan Ura Agentziarekin eta eman diguten erantzuna izan da oso epe luzerako, eta, betiere, aurrekonturik baldin badago. Hurrengo egingo duguna Sesto errekan kutsadura maila neurtzea da", jakinarazi du Iraitz Lazkanok.

UDALAK KULTURA ESKAINTZA JASANGARRIAREN ALDE EGINGO DUELA ESAN DU ALKATEAK

Gueñes-Itsaso goi-tentsioko lerroak, berriz, kezka itzela sortzen diola esan du. "Oraingoan, lanak hasteke daude, baina linea hori geldiarazteko aukera gutxi dugu Elgetak. Aurkeztu ditugun alegazioen erantzuna ere nahi-ko hala moduzkoa izan da".

Aldiz, energia aurrezteko argiteria publikoan hartutako neurriek emaitzak eman dituztela dio. "Kontsumoa nabarmen murriztu da. Neurri proportzionalen ez, baina murriztu egin da baita ere gastua. Azkenean, nahiz eta kontsumoa asko jaitsi energiaren prezioa igotzen bada, bere horretan mantentzen da ordaintzen dugun prezioa", azaldu du. Esparru horretan ahal denean inbertsioak egiten jarraitzeko asmoa agertu du Lazkanok.

Zuntz optiko bidezko Internet konexioa etxebizitzetara hedatzeko aukerari buruz galdetuta, alkatea ez da oso itxaropentsu azaldu. "Erakunde publikoek ekarri dute zuntz optikoa Elgetara, baina operadoreek ez dute hedapena egiteko interesik agertu. Agindu ziguten diru laguntza batzuk egongo zirela horrelako eskaintzak bideratzeko, baina, oraingoan, ez dago horrelakorik, eta uste dut berebiziko garrantzia duela. Elgetan nahiko industrialde garrantzitsua dugu, eta behar du konexio txukuna".

Udal Gobernuak mahai gainean dituen beste gaietako batzuk dira garraio publikoari dago-kionez Bizkaiarekin dagoen konexioa hobetzea eta Bergarako kirol instalazioak erabiltzeko elgetarren baldintzak hobetzea.

Ludotekan bederatzi ume

"Urteko bonua sortu dugu eta prezioak jaitsi, baina ez du inork bonu hori erosi. Hala, ikusten ari garena da jendeak zerbitzu malgua izatea nahi duela", azaldu du alkateak. Zerbitzuak martxan jarraituko duela esan du. "Uste dugu herriarendako garrantzitsua dela, eta poliki-poliki hobetzen goaz. Aurten, Foru Aldundiarekin batera Gaztematika sarean parte hartzen ari gara, eta, horregatik, diru laguntza gehiago lortzen ere bagaitza".

Hainbat galdera erantzun ditu Iraitz Lazkano alkateak Goiena telebistako *Harira* saioan. El-karrizketa osorik dago ikusgai *Goiena.eus* atarian.

Indarkeria matxistari ezezko borobila

Martxan dira Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunarekin lotutako ekintzak Elgetan. Buztin gelan ikusgai dago argazki erakusketa berezia, eta zapaturako lore moreak egiteko tailerra eta elkarretaratzea deitu ditu Udalak, Mendizaleen Plazan

L.Z. ELGETA
Elgetako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak hainbat ekintza antolatu ditu, aurten ere, indarkeria matxista gaitzesteko. Zapaturako, hilak 25, elkarretaratzea dago deituta. Aurretik, lore moreak egiteko tailerra egingo dute Mendizaleen Plazan. Elkarretaratzea 13:00etan egingo dute eta tailerra, 12:00etan.

Argazki erakusketa zabalik
Aurretik, hainbat herritarri ateratako argazkiekin osatutako erakusketa berezia izan da ikusgai buztin gelan. Emakume zein gizon, adineko zein haur, indarkeria matxistaren aurka agertzen dira argazki horietan 23 herritar. Alicia Gartziak egin ditu argazkiak eta erakusketan *Ez ezetz da*, *Guretzat ere ez ezetz da* eta halako esaldiak irakur daitezke. Bide batez, eraso bat gertatzen denean zer egin azaltzen dute erakusketa horretan. Lehen pausoa da emakume erasotua-rengana hurbiltzea ea ondo dagoen edo ea laguntzarik behar duen galdetzeko. *Esan erasotzaileari ez duzula onartzen emakumeak erasotzea, ez zaizula ez dibertigarria ez normala iruditzen*, irakur daiteke. Bestalde, erasoa jasan duenari, laguntza bilatzen lagundu behar zaio;



Buztin gelan ikusgai dagoen argazki erakusketa. L.Z.

BIHAR EGINGO DITUZTE EKITALDI NAGUSIAK, 12:00ETATIK AURRERA, PLAZAN

hainbat bide daude horretarako: Foru Aldundiko Larrialdi Zerbitzua (943 22 44 11, 07:00etatik 21:00etara); aholkularitza zerbitzua (900 84 01 11, 24 ordu); zerbitzu juridikoa (900 10 09 28); eta SOS deiak (112).

Udaleko Gizarte Ongizate Saila, bestalde, horma-irudia eta informazio panelak prestatzen ari da. Gaurtik aurrera egongo dira ikusgai herriko hainbat lekutan.

Lanketa gaztelekuan
Gaztelekuko erabiltzaileekin ere lanketa berezia egingo dute bihar indarkeria matxistaren inguruan. Neska-mutiko gazteek, gainera, lore moreak egiteko tailerrean hartuko dute parte, 12:00etatik aurrera. Hala, ate irekiak dituzte bihar gazteleku zerbitzuan.

Pintxo lehiaketako publikoaren saria Maialde landetxearendako

Argazki lehiaketako irabazlea, berriz, Kepa de Vega izan da eta argazki kamera digital bat jasoko du

L.Z. ELGETA
Herritarrak ere epaile izan dira aurtengo pintxo lehiaketan, eta paper bidez botoa eman dutenek erabaki dute Maialde landetxearendako dela publikoaren saria. Jesus Kalboetxeagak txerri-azpizuna oinarri hartuta egindako pintxoak jaso zituen boto gehien domekan.
Botoa emateko bi bide berri izan dira aurten: Hirix plataforma eta *selfie* lehiaketa. Hirix plataformaren bidez ere Maialde landetxeak jaso ditu boto gehien. *Selfie* lehiaketaren bidez,

berriz, Haizea tabernak. Hiru kasuetan, 30 euroko bonu bana zozketatu ditu Udalak. Sarituak dira, hurrenez hurren, Ibai Etxaniz, Adeel Ahmed Khokhar eta Bakarne Arenaza.

Argazki lehiaketako saritua
Domekako argazki lehiaketako irabazlea Kepa de Vega da. Hamar lagunek hartu zuten parte eta lau gai jaso zituzten: berdea, udazkena, pintxo domeka eta gai librea. Launa argazki aurkeztu zituzten. De Vegak argazki kamera digitala jasoko du.

Herrixa Dantzan saioa domekan eta tailerra abenduaren 7an

Goiena komunitatea
Herrixa Dantzan / ELGETA
Azaroko azken domekarekin dator hurrengo dantzaldia, eta 19:00etan emango diote hasiera Espaloia kafe antzokian. *21 boutons* taldearen azken diskoko piezak dantzatuko dituzte. Horrekin batera, abenduaren 7rako antolatuta dagoen Okzitaniako dantzen tailer baten berri ere eman du Patxi Monterok. Joan Codinak gidatuko du eta prezioa hamar euro da. Interesatuak herrixadantzan@gmail.com helbidean eman behar dute izena. Tailerra 19:00etan hasiko da. Jarraian, talo-jana eta dantzaldia egingo dituzte Escamot Catala taldearekin.

OHARRAK

Ipuinen Ordua, gaur
Boluntario taldearen eskutik bi saio liburutegian: 16:40an 5 urteko gelatik aurrerakoendako eta 17:20an 2-3 urtetik aurrerakoendako, hain zuzen ere.

Gaztelekuan
Bihar ate irekiak. 12:00etan lore moreak egiteko tailerra plazan eta 16:00etan bi bisitari berezi: Xabier Ubera udaltzaina eta Ainara Arantzeta erizaina.

Harri-jasotze kopa
Abenduaren 2an Elgetan jokatu da Gabonetako harri-jasotze kopako hurrengo kanporaketa. Lehian izango da Imanol Albizu *Goikoetxe*.

Tratu onen horma-irudia eskolan

Herriko txikienekin ere lanketa berezia egin zuten atzo Herri Eskolan. Aurreko ikasturteetan moduan, tratu onen horma-irudia osatu dute guztiek batera. Nork bere argazkia ipini du horma-irudi horretan, eta laguntzen, besarkatzen, poza adierazten... agertzen dira. Hainbat neska-mutiko eta irakasle, gainera, more kolorez jantzita joan ziren eskolara.



Tratu Onen Eguna egin dute Elgetako Herri Eskolan. ELGETAKO HERRI ESKOLAN

PILOTA TXAPELKETA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Alberto Telleria-Angel Ibarluzea / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elkoro		6-18
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Jose Mari Zubiaurre-Gorka Bolinaga		18-9
Maitena Mañarikua-Uxue Larrea / Rebeka Ubera-Ainhoa Zeziaga		18-9
Eneko Maguregi-Etor Garate / Eneko Ormaetxea-Alain Valle		12-18
Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Josu Mañarikua-Beriat Arabaolaza		16-18

6. JARDUNALDIKO PARTIDUAK	
GAUR, BARIKUA, 18:30EAN	
1. Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elkoro	
2. Josu Mañarikua-Beriat Arabaolaza / Oskar Sarasua-Andoni Elorza	
3. Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Eneko Ormaetxea-Alain Valle	
4. Rebeka Ubera-Ainhoa Zeziaga / Janire Lazkano-Nagora Ojanguren	



Lur-Ikarak kabareta 17:30ean hasiko da, Foruen plazan, gaur. MUGARIK GABE

Indarkeria matxistari ezetz esateko ekitaldiak

Globo moreak banatuko dituzte gaur ikastetxeetan, eta arratsaldean ikuskizuna egongo da Foruen plazan. Bihar eguerdirako, elkarretaratzea deitu du herriko sare feministak, eta indarkeria jasan duten emakumeak izango dituzte gogoan

Oihana Elortza OÑATI

Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko eta horren aurka norberak egunero egin dezakeena aztertzeke mezuak zabaltzeko gura dituzten ekitaldiak antolatuko dituzte egun hauetan herrian. Sare feministak, esaterako, elkarretaratzea, dokumental emanaldia eta kabaret ikuskizuna antolatu dituzte.

Elkarretaratzea Foruen plazan egingo dute, bihar, zapatua, 13:00etan. Sare feministako ki-deek adierazi duten moduan, ekintza-omenaldia izango da, indarkeria matxista jasandako emakumei zuzendutakoa, eta esaldi hau irakurriko da elkarretaratzean erabiliko duten pankartan: *Zeuen ausentzia gure borrokekin beteko dugu.*

Bertsoak

Udalak ere bat egin du deialdiarekin. "Bat egiten dugu elkarretaratzearekin eta antolatu dituzten gainerako ekitaldiekin ere. Horiez gain, bertso eman-

di bat egongo da. Ane Labaka eta Beatriz Egizabal bertsoariak *Erradikalak gara* emanaldia egingo dute", gehitu du Leire Zumaldek, Udaleko Berdintasun zinegotziak. Emanaldi hori Santa Ana antzokian izango da, bihar, zapatua.

Gaur, egubakoitza, baina, kabaret ikuskizuna egongo da Foruen plazan. Mugarik Gabe taldearen Tipi Tapa kanpainaren barruan Pantzart-Bihotzerren taldearen proiektua da *Lur-Ikarak* kabareta. Bost emakumek hartzen dute parte ikuskizun horretan, eta antzerki foro bat da, eszena bat beste eszena askorekin. Ikuskizuna 17:30ean hasiko da.

**ELKARRETARATZEA
EGINGO DUTE
BIHAR, ZAPATUA,
FORUEN PLAZAN,
13:00ETAN**

Globoak

Herriko ikastetxeetan ere egin dute lan Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira. Elkar Hezin, esaterako, mural bat egin dute ikastetxeko ikasle, senide eta irakasleekin batera eta bihar, zapatua, jarriko dute ikusgai. Zuazola institutuan, berriz, hiru dimentsioko piramide bat egin dute. Ikasleek eta irakasleek hausnarketa egin dute gaiari buruz, eta esaldi bana idatzi gero, piramide osatuz. "Piramide barruan, San Martingo ezkur batetik ernatu den haritz bat sartu dugu. Zaindu egingo dugu eta martxoan landatuko dugu zuhaixka, Martxoaren 8aren bueltan", azaldu du Zuazola institutuko irakasle Ederne Ugartek. Beltzez jantzita joango dira ikastetxera gaur.

Emakumeen indarkeriari ez dioten globo moreak banatuko ditu Udalak gaur ikastetxeetan. Eta eguneko osoko bilkuran adierazpen instituzionala irakurriko dute.

'Herri bizia' eraikitzeko proposamenak landu ditu EAJk

2018ko aurrekontuetan politika parte-hartzaile eta transbertsalak lantzea proposatu du alderdi jeltzaleak

Arantzazu Ezkibel OÑATI

Datorren urteko aurrekontua lantzeko oñatiarrengandik eta eragileengandik jasotako ekarpenak hartu dituztela kontuan adierazi du EAJk prentsaurrekoan, "baita 2015eko hauteskunde programan proposatutakoak ere". Jeltzaleek azaldu dute "adin guztietara egokitutako herri bizia eraikitzeko ekimenak" proposatu dituztela. Horretarako, arlo guztietan "politika parte-hartzaile eta transbertsalak lantzea" proposatu dute.


Ardatzak

Lau ardatz estrategiko nagusi dituzte jeltzaleek: pertsonen ongizatea, kirola eta osasuna, sozioekonomia eta herri biziaren garapena. Pertsonen ongizatea ardatz hartuta, segurtasuna eta bizi kalitatea hobetu eta bermatzea proposatu dute, "bizikleten

eta patineteen arautegia landuta". Horrez gain, Olakua auzoko irisgarritasuna hobetzea eta Bidaurreta-Olapotoko argiteria hobetzea ere proposatu dute.

Osasun eta kirol alorrean, adin guztietara egokitutako kirol osasuntsua sustatzea da helburua. Ritxar Fernandez zinegotziak azaldu du kirola kanpoan egin ahal izateko eremuak sortzea eta atontzea dela euren proposamena; besteak beste, igerileku irekia, San Martinen korrika egiteko bidea egokitzea eta Urrutxun atletismo pista egokitzea.

Urteko kultura sariak sortzea, euskara sustatzea eta 14 eta 20 urte bitartekoen artean gazte plana egiteko azterketa egitea ere proposatu dute. Baita lehen sektoreko beharrei erantzutea eta komertzioak garai berrietara egokitze bideak erraztea.



M.A.

Oinezkoen bidea oztopatuz

San Lorenzo auzoan espaloi gainean aparkatzen ei dituzte sarri ibilgailuak, eta zebra-bidea oztopatu. Hori da, behintzat, hango hainbat bizilagunen kexua, eta argazkia bidali dute hori salatzeke. "Espaloi gainean uzten dituzte automobilak, eta, askotan, gupil aulkian mugitzen direnek edo umea karroan daramatenek buelta eman behar dute", diote.



Jaione Elortza eta Edurne Urteaga turistei arreta ematen San Juan kaleko bulegoan. O.E.

Hamabost urte beteko ditu Turismo Bulegoak

Herriko dendariak, ostalariak, produktoreak eta herritarrak daude gonbidatuta eguaztenean 20:15ean egingo duten ospakizun ekitaldira. Turismo Bulegoa Oñatin egiten diren produktuen erakusleihoa izatea da aurrera begira duten erronketako bat

Oihana Elortza OÑATI

Datorren eguaztenean, azaroak 29, hamabost urte beteko ditu Turismo Bulegoak, eta ospakizun berezia antolatu dute egun horretarako. "Gonbidatuta daude turismoarekin lotura duten herriko agente guztiak. Hau da, ostalariak, dendariak, gidariak, bertako produktoreak eta herritar guztiak. Eurekin egon gura dugu, urteurrena ospatu eta hemendik aurrera ditugun asmo eta erronkez berba egin", azaldu du Ikerne Altubek, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduradunak.

Erakusleihoa

Egungo Turismo Bulegoak hamabost urte beteko baditu ere, duela 27 urte zabaldu zuten lehen Turismo Bulegoa Oñatin. Ordutik hona lanean ibili direla dio Altubek, eta emaitza onak lortu dituztela ere bai. Gaineratu du hemendik aurrera ere asmo berak dituztela, baina baita erronka berriak ere. "Adibidez, gaur

egun Internet bidez hartu dai-teke tokia herrian bisita gidatu bat egiteko, edo Arrikruz kobak ikusteko sarrerak. Orain, horrekin batera, herrian bazkalteko edo lo egiteko erreserba ere eskaini gura dugu; Oñatira datorrenari, dena batera aurrez hartzeko aukera eskura ematea, erraztea. Eta hori laster jarriko dugu martxan".

Bertako produktoreekin batera lan egiteko asmoa ere bada beste erronketako bat. Herriko produktuen erakusleihoa bat ere izango da aurrerantzean Turismo Bulegoa. "Gaur egun badi-tugu herrian egiten diren produktu batzuk salgai, baina beste asko egiten dira, eta horiei ere egin gura diegu tokia. Adi-

DEBAGOIENEO LEHEN TURISMO BULEGOA OÑATIN ZABALDU ZUTEN DUELA 27 URTE

bidez, txakolina, gazta eta ez-tia. Produktuak izango ditugu, baina turistari erakutsi gura diogu non egiten diren produktu horiek. Adibidez, txakolina, gazta, ogia eta ez-tia egiten diren baserrietara joateko aukera eskaintzea eta produktorearekin harremanetan jartzea", azaldu du Ikerne Altubek.

Lehenengoa

Duela 27 urte Foruen plazako arkupeetan zabalduak ziren bulego batean hasi ziren turismoaren gaineko informazioa ematen. Egundik gaur, dagoen eraikinean egon zen ondoren urte batzuetan, eta azken hamabost hauetan San Juan kalean dago, San Juan errotaren interpretazio zentroa osatuz. Debagoieneko lehen Turismo Bulegoa izan zen Oñatikoa eta kalitatezko Q ziurtagiria duen bailarako bakarra da. Eguazteneko ekitaldi herrikoiarekin hasi eta abenduan egingo dituzten bisita bereziekin bukatuko dituzte ospakizunak.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Oñati hiria

Horrela esanda, tren geltoki baten izena izan zitekeen. Eta egon, badago, tren geltokia Oñatin, eta baita tren ere, baina betirako geldituta. Betetzear da mende erdia tren horrek ibiltzeari utzi zionetik, gaur Oñatin bizi garen gehienok martxan egon zela imajinatzea ere ia ezinezkoa egiten zaigun tren. Ordutik errepidez egiten dira Oñatin joan-etorriak eta hortik dator zutabearen izenburua. Hirien ezaugarri aipagarrienetakoa semaforoak dira, eta hor bai, hor hiriaren itxura hartzen ari da Oñati, semaforoak ugaritzen ari direlako. Ondorioz, errepidean itxaronaldi gehiago eta geroz eta leku gutxiagotara eramaten gaituzten autobusek arazo gehiago orduan ailegatzeko. Baina trenik ez, ez Oñatin eta ezta Debagoienean ere. Trenbidea bai, ari dira eraikitzen, baina tren geltokirik ez. Deskarga eta Bergara arteko autobidea bukatutakoan, gipuzkoar guztiek etxetik 15 kilometro baino gutxiagotara edukiko omen dugu autopista edo autobideren bat. Eta tren geltokiak? Etxetik zenbat kilometrotara geratzen zaizkigu Debagoienean bizi garenoi? Askok diote tren etorkizuna dela, etorkizun horrekin bat egiteko Debagoienean ere ez ote genuke tren behar? Ameskeriak izango dira.

Truke azokarako jostailuak batzen hasiko dira

Txaloka ludotekak antolatuta, jostailu truke azoka egingo dute abenduaren 16an ludotekan. Eta azoka horretarako jostailuak batzen datorren astean hasiko dira. Datozen hiru astelehenetan batuko dituzte, ludotekako ordutegian, arratsaldeetan: azaroaren 27an eta abenduaren 4an eta 11n. Trukatu gura diren jostailuek egoera onean egon

beharko dute eta ez dira izango ohiko estereotipoak betetzen dituztenak, ezta biolentziazkoak. Txikiak, kanikak, esaterako, multzoka aldatuko dira.

Aurreko urteetan egin duten moduan, truke azokarako eramaten duten jostailuengatik txartela bat hartuko dute umek eta txartel horrekin beste jostailu bat hartu ahal izango dute abenduaren 16an egingo duten azokan. Ume bakoitzarendako txartel kopurua, baina, mugatua izango da.

Normalean baino beranduago itxiko dituzte dendak gaur

Egubakoitz beltza edo *Black Friday* ospatuko dute herriko hainbat komertzio gaur, eta, ondorioz, normalean baino beranduago itxiko dituzte negozioak. Gainera, eskaintza eta promozio bereziak eskainiko dizkiete bezeroei.

Txanda elkarteko hogeikomertzio bakoitzak erabaki dute gaur, egubakoitza, *Black Friday* ospatzea. Herriko merkatarien elkarteak ez dute estrategia bateraturik finkatu; hau da, ez dute zehaztu zer egin edo nola ospatuko duten, eta denda bakoitzak aukeratuko du zein produktu eta nola promozionatu, baina denek eskaintza bereziren bat egingo dute.

Aurten ere egingo dute Gabonetako erakusleihoa lehiaketa

Dagoeneko hasi dira antolatzen Gabonetako erakusleihoko lehiaketa. Hamargarrena izango da aurtengoa eta sari berezi bat egongo da: parte-hartze saria. Lehiaketan parte hartu eta saririk lortzen ez dutenen artean, zozketa bidez emango den saria izango da. Zazpi sari emango dira, guztiak eurotan, eta banaketa abenduaren 23an egingo dute udaletxeko areto nagusian.

Lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago, abenduaren 1era arte. Parte hartzen duten komertzioek apainduta izan beharko dituzte erakusleihoko abenduaren 6rako, eta horrela egon beharko dute, gutxienez, abenduaren 31ra arte.



Manolo Arregi pilotaria, Eufasio Belategiren kontrako desafioan, 1959an. PLAZAOLA

Mende erdia ospatuko du pilota sailak

Mendi erdia egina duela ospatu guran, hainbat ekintza antolatu ditu Aloña Mendiko pilota sailak biharko. Tartean, sailak izaniko bilakaera azalaraziko duen dokumentala aurkeztuko dute Santa Ana aretoan; 12:00etarako finkatu dute hitzordua

Iker Oñate OÑATI

Herriko pilotazaleek ospakizun eguna dute biharkoa. 50 urte ditu eginak Aloña Mendiko pilota sailak, eta hainbat ekintza antolatu dituzte horren aitzakiapean. Besteak beste, sailaren atzera begirakoa biltzen duen dokumentalaren emanaldia eta bazkaria antolatu dituzte. Ikus-entzunezkoarekin hasiko dute eguna; 12:00etatik aurrera egongo da ikusgai, Santa Anan.

Mende erdiaren errepasoa egin guran, ordubete pasako dokumentala egiten jardun dute azken urtean pilota sailekoek. "Urtebete inguru behar izan dugu dokumentala egiteko. Gehiago izango zen, jendeak erakutsi duen moduko prestutasuna adierazi izan ez balu", azaldu du Kepa Aranburuk, dokumentalaren lantaldeko kideak.

Horrekin lotuta, egitasmoaren bultzatzaileek argi zuten helburua. "Herriko pilota sailak 50 urteotan izaniko bilakaera ikusarazi gura genuen", azaldu du

Josu Osak, saileko arduradunak. Beraz, gaur egungo egoera ere jorratzen du dokumentalak: "Emakumeen pilota taldeaz eta, oro har, egungo pilotariez ere badihardu ikus-entzunezkoak. Beraz, esan daiteke ez garela iraganeko gertaerak azalaraztera mugatu".

Bertsioak oinarrian

Herriko pilota sailaren bidelagun izan direnen –eta, gaur-gaurkoz, direnen– esperientziak ditu oinarrian dokumentalak; jokalaria ez ezik, batzordean jardun dutenak –eta dihardutenak– ere talde horretan leudeke. Besteak beste, Joxe Ramon Azkoitiak esku hartu du horretan, profesional mailan lehiatzea lortu

50 URTEKO HISTORIAREN ERREPASOA EGITEN DUEN DOKUMENTALA AURKEZTUKO DUTE

duen herriko pilotari bakarrak. Bestetik, pilotaren bueltan eza-gun diren protagonisten parte hartzerik ere bada; Joxean Tolsa amezketarra –herriko pilota taldearekin jardun zuen entrenatzen– eta Aitor Elkoro elgetarra –Aloña Mendiko fitxa izan zuen– dira horiek.

Gauzak horrela, egitasmoaren bultzatzaileak "gustura" dira urtebeteko lanak emandakoarekin. "Pozik gaude emaitzarekin. Egia da ezinezkoa dela ordubetean mende erdia azaltzea, baina zertzelada esanguratsuenak eskaini ditugulakoan nago", dio Aranburuk.

Pilota zaleen bazkaria

Dokumental emanaldiaren ostean, bestetik, bazkaria egingo dute herriko pilotazaleek; 200 lagun inguru batuko dira Zubikoako pilotalekuan. Oraindik ere badago txartela eskuratzeko aukera. Gainera, antolatzaileek iragarri dutenez, "hainbat sorpresa izango dira bazkalostean".

Lehen postua sendotu guran arrasatearren aurkako derbian

Arrasatearren kontrako derbia jokatu dute oñatiarrek zapatuan, Mojategi futbol zelaian

I.O. OÑATI

Bolada onari eutsi, eta lidergoa sendotu guran jardungo dute oñatiarrek asteburuan. Zapatuan dute Mondraren aurkako partidua, 16:00etan hasita, Mojategi futbol zelaian. Sailkapenaren erdialdean dira arrasatearrak.

Horren harira, Aloña Mendiko entrenatzaile Gotzon Urzelaik "partidu zaila" aurreikusten du astebururako: "Ziur naiz intentsitate handiko partidua izango dugula. Ezagun dugu aurkaria, eta ezagutzen ditugu bere indargune eta ahulguneak; baina,

horretan itsutu gabe, geureari helduta segituko dugu, geure jokoa eginez".

Gaur arte, partidu bakarra galdu dute Aloña Mendikoek, eta hori nabari da sailkapenean. Lehenengo postuan dira, hogei-ta hiru puntu eskuratuta –hemezortzi puntu ditu hurrengo sailkatuak–. Horrenbestez, badute tarterik hurrengo sailkatuekiko. Dena den, Urzelaik argi du oraindik bide luzea dutela egiteke: "Goian gaude, baina oraindik ez dago ezer irabazita".

Sailkapenean aurrera egiteko partidua du saskibaloit taldeak

Aloña Mendi saskibaloit taldeak ez dio gura moduko hasierarik eman denboraldiari, baina, kildu barik, gogoz dihardute sailkapenean gora egiteko lanean. Gaur-gaurkoz, hamaikagarren postuan dira oñatiarrak; eta gorako bideari heltzeko aukera dute zapatuan. Cafes Aitona Askatuak taldearen aurka jokatuko dute, Donostian, 18:00etan.

350 metro egin dute behera Lizartza1 kobazuloan

Lizartza1 kobazuloaren esplorazioan murgildurik dihardute Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kideek. Bada, aurreko asteburuan ere bertan jardun zuten, eta 350 metroko sakonera duen eremura heldu ziren. Beherago egiteko asmoz dihardute: soka bukatuta, 10 metroko jauzi bat egin aurretik eten behar izan zuten azken esplorazioa.



ARTEMAN

Babesletza estrategia berbegai

Babesletza estrategiaren bueltako mahai-ingurua izan zen eguaztenean, kultura etxean. Mondragon Unibertsitateko, Kirolgi Fundazioko, Ulmako eta Murias-Euskadi ziklismo taldeko ordezkariak esku hartu zuten berbalan. Besteak beste, lurraldeko babesle nagusien estrategiez eta beharrez jardun zuten.

"Musika amerikarraren influentzia du diskoak"

JUAN VALLS MUSIKARIA

Lan berria plazaratu du Juan Valls musikari oñatiarrak. Domekan eskaini zuen aurkezpen birako azken kontzertua, herriko Patrue kalean

Iker Oñate OÑATI

Dena ez dago aurreikusita. Eta hori agerian gelditzen da Juan Valls musikari oñatiarraren istorioarekin: Glasgown (Eskozia) igarotako udako oporraldian grabatu zuen argitaratu berri duen lana. Eta esperientziak utzi du aztarnarik disko berrian; *La Chunky Sessions* bataiatu du –grabazio leku izan zuen La Chunky estudioa-. Izan ere, domekan eskaini zuen aurkezpen birako azken emanaldia, Oñatiko Patrue kalean. Horren bueltan, egitasmo berriaz jardun du Vallsek.

La Chunky Sessions bataiatu duzu lan berria.

Hala da. Horrek grabazio lekua-ri egiten dio erreferentzia; esperientzia berezia izan zen disko berriaren grabazioa. Alegia, Glasgowna joan nintzen uztailean, lagun bati bisita egiteko asmoarekin. Soil horretan. Dena den, arrazoiak arrazoi, bidaia horrek eman zuen fruiturik: abesti batzuk grabatzea erabaki nuen bertako La Chuncy estudioan, Johnny Smillie teknikariaren laguntzarekin. Hortik diskoaren izena. Horrez aparte, kontzertu batzuk ere eskaini nituen zonan. Aurreikusi gabeko esperientzia izan zen.

Beraz, musikari senak ez du atsedenenik hartzen...

Nire kasuan ez. Eskozia toki ederra da musikariontzat. Bada, hainbat kontzertu eskaintzea erabaki nuen uztailetik abuztura bitartean. Bertan, beste hainbat bakarlarirekin batera jardun nuen agertoki gainean; guztira, sei kontzertu eskaini nituen. Badirudi Eskozian oso erroturik dutela musikaren kultura, jende asko joaten baita emanaldietara. Gainera, kontzertua amaituta, hor dirau ikus-entzulearen eta musikariaren arteko harremanak; kantuen inguruko galderak egiten dizkizute, besteak beste. Interesgarria da hori.



Juan Valls, disko berriaren aurkezpen kontzertuan, Patrue kalean. IMANOL SORIANO

"ESKOZIAKO LA CHUNKY ESTUDIOAN GRABATU NUEN LAN BERRIA, UDAKO OPORRALDIAN"

Eta zer-nolako diskoa da?

Lan naturala dela esan daiteke. Oso analogikoa da, instrumentu guztiak batera grabatu nituelarik, zuzeneko emanaldia balitz bezala, neurri batean. Estiloari gagozkiolarik, bestetik, musika amerikarraren influentzia nabari da kantuetan; folk eta rock kutsua dute horiek. Batez ere, gitarra eta ahotsa dira protagonistak, eta harmonika ere entzun daiteke tarteka.

Abeslari orok izan ohi du diskoan kantu kutunen bat. Zein da zurea?

Guztiak ditut gogoko. Baina, bat aukeratzekotan, *Marital Song* aipatuko nuke. Oso identifikatutako sentitzen naiz abestiarekin; oso nirea da. Bide horretan, ezin uka kontzertuetan ere gustura dihardudala kantuekin. Finean, esan daiteke nahiko abesti imajinarioa dela. Harremanen inguruan dihardu; harremanak,

zentzu zabalean, erlazio sentimentaletara mugatu barik. Beraz, ez da istorio konkretu batera mugatzen, hori baino orokorragoa da.

Kontzertuetan hainbat musikariren laguntza ere izaten duzu, ezta?

Hala da. Bakarleri dihardut, baina, sarri, instrumentu berri bat sartzea eskatzen dute abestiek. Bide horretan, kantuak sortzean, horrentzat egoki liritekeen musika instrumentuak aukeratu beharra izaten da. Batzuetan, ez dator gaizki zuzeneko emanaldietan diskoan ez dauden instrumentuak erabiltzea. Gainera, ongi ezagutzen dudak jendea izaten da kontzertuetan esku hartzen duena; beraz, ondo ulertzen dugu elkar. Garrantzitsua da hori, duda barik.

Eta aurrera begira zer?

Gaur-gaurkoz, urtea amaitu artean ez dut emanaldi berririk aurreikusita; urtarilean berrekingo diet kontzertuei. Hori bai, bien bitartean, diskoa eskuragarri izango da Oñatiko Boga, Pako eta Txaketua tabernetan. Bestetik, interesa duenak emanaldietan ere izango du diskoa eskuratzeko aukerarik.

'Soinuaren Bidaia' emanaldia, Musikegunak egitasmoa ixteko

Denborarekin hedatuz joan den egitasmoa taularatuko du Alberto Urretxo arrasatearrak

I.O. OÑATI

Musikegunak egitasmoaren baitako azken kontzertuaz gozatze-ko aukera izango da domekan, Santa Ana antzokian; 19:00etarako finkatu dute hitzordua. *Soinuaren bidaia* bataiatutako proiektua taularatuko dute Alberto Urretxok, Adriana Grigorasek, Amaia Zipitriak eta Miren Urbietta-Vegak.

Denborarekin bilakatuz joan den egitasmoa da hori, hartuz joan den dimentsioagatik. Hori bai, Alberto Urretxo musikari arrasatearrak argitu du "bere

horretan" dirauela *Soinuaren bidaia*-ren izaerak. "Nire bizi-penaren isla izaten jarraitzen dute piezek", argitu du.

Gainera, hainbat berrikuntza izango ditu Oñatiko emanaldiak. Batetik, Jesus Urrutia konpositore eskoriatzarrak eurentzat propio sortutako pieza bat eskainiko dute; Urretxoren alabei eskainia dago hori. Horrez gain, Miren Urbietta-Vega sopranoaren parte hartzea eta Gabriel Loidi konpositoreak proiekturako egokituriko pieza daude berrikuntzen artean.



AITZIBER ARANBURUZABALA

Santa Seziliako kontzertua

Kantuan jardun zuten eguaztenean musika eskolakoek, Santa Sezilia egunean. Bada, herrigunean egin zuten kalejira, hainbat taldetan banatuta. Amaierako ekitaldia, oster, azokan egin zuten; hainbat kantu abestu eta dantzatu zituzten bertan. Bestetik, Musika Bandak eta parrokiako koruek domekan ospatuko dute eguna, Santa Anan, 12:45ean hasita.

'Hozkailua' antzezlanerako sarrerak salgai

Salgai jarri dituzte *Hozkailua* antzezlanerako sarrerak; Huts taldearen lan berria da aipaturikoa. Bada, abenduaren 1ean, egubakoitzean, egongo da ikusgai, Santa Ana antzokian; 22:30erako finkatu dute hitzordua. Interesa duenak aurrez eros dezake sarrera: www.bibe.me webgunean dago horretarako aukera, 10 eurotan.

Eskuragarri daude 'Tomaxen abenturak' ezagutzeko sarrerak

Urgain-Errekaldeko guraso elkarteak antolatuta, *Tomaxen abenturak* bataiatutako pailazo ikuskizunaz gozatze-ko aukera izango da abenduaren 16an; zehatz esanda, Zuazola institutuko aretoan egongo da ikusgai, 16:30ean eta 18:00etan. Hain zuzen, sarrerak Mizken, Kikun eta Txokolateixan daude eskuragarri, 4,5 euroren truke.

Hirugarren probarako, jada zerura begira

ZIKLO-KROSA Abenduaren 3an egingo dute Arrasate Hiria lasterketa; antolatzaileek iazkoa baino eguraldi hobea espero dute, atzean lan handia dagoelako. Parte hartzaileen artean, ospetsu batzuk: Aitor Hernandez, Gorka Izagirre, Markel Uriarte...

Xabier Urzelai ARRASATE

Euria goian behean izan zuten iazko Arrasateko ziklo-kros lasterketan, ondo gogoan dute hori Dorletako Amako antolatzaileek, baita Markuletera gerturatu ziren zaleek ere. Aterkiarekin joanda ere busti egin zen jendea, goiz osoan eguraldiak ez zuen tregorarik eman, ezta haizeak ere: "Lehenengo edizioan eguraldi paregabea izan genuen. Pentsa, nahiz eta Santamas Krosarekin bat egin, jende asko gerturatu zen Markuletera. Baina iazkoa sekulakoa izan zen, oso eguraldi txarra izan genuen. Eskerrak lehenengo edizioak oso zapore ona utzi zigun; izan ere, iazkoagatik izan balitz, ez dakit hirugarren edizioa egongo ote zen. Horregatik, nahiz eta lasterketa datorren astean izan, dagoeneko zerura begira gaude", dio, umorez, Junkal Perezek.

Baina, bromatik harago, eguraldiak asko baldintza dezake halako proba bat: "Askok kostatu zaigu babesleak topatzea, ez da batere erraza. Eta ondoren, lasterketa antolatzeak ze lan duen kontuan izanda, pena da eguraldi txarrak horrela baldintzatzea eguna. Horregatik, babesleei eskerrak eman gura dizkiegu".



Ziklista bat Markuleteko zirkuitu lokaztuan, iaz. IMANOL SORIANO

INFANTIL ETA ALEBIN MAILETAKO GAZTETXOENDAKO LASTERKETAK ANTOLATUKO DITUZTE

Egutegiko hamaikagarrena

Arrasate Hiria III. edizioa egutegiko hamaikagarren lasterketa izango da –asteburuan ziklistek hitzordu bikoitza dute, berriz eta Lezaman dituzte eta lasterketak–. Eta, nobedadeei

dagokienez, masterren (09:45) eta kadeteen (10:30) ostean, neska-mutiko gasetxoendako zirkuitua zabalduko dute, euren bizikletekin lasterketak egin ditzaten: "Asegurua egingo diegu denei, eta ziklo-krosa probatzeko aukera emango diegu. Iaz ere eman genien zirkuituan ibiltzeko aukera, baina ez genituen lasterketak antolatu".

Eguerdian (12:00), berriz, gazteen eta emakumezkoen txanda izango da eta 13:00etan lehiatuko dira elite mailakoak eta 23 urtez azpikoak.



Oihana Kortazar, Aloñako Igoerako helmugan, irabazle. IMANOL SORIANO

Kortazarrek amatasuna eta lasterketak izango ditu berbagai

MENDIA Gaur hasiko dute Oñatiko Mendi Astea, berbaldi, film erakustaldi eta argazki lehiaketarekin

X.U. OÑATI

Hain zuzen, XIV. Mendi eta Natura argazki lehiaketako sari banaketa ekitaldiarekin hasiko dute Mendi Astea, gaur –19:00, kultur etxea–. Eta jarraian, 19:30ean, Julio Villar (Donostia, 1943) mendizale eta idazleak berbaldia egingo du; 2016an argitaratutako *Viaje a pie* izeneko liburuaren gainean egingo du berba.

Azaroaren 28an, berriz, Oihana Kortazar elgetarrak lasterketen eta amatasunaren gainean egingo du berba –19:30, kultura etxea–. Eta badu zer kontatu;

izan ere, mendi lasterketetan erreferenteetako bat dena indartsuago bueltatu izan da haurdunaldien ostean.

Jorge Garcia Dihinx, 29an

Bestalde, *La meteo que viene* blog arrakastatsuko egile Jorge Garcia Dihinx medikua azaroaren 29an izango da Oñatin. Aragoi-koak elurraren egoera eta elurjausiak izango ditu berbagai Oñatin.

Eta azaroaren 30ean Kilian Jornet mendizalearen *Déjame vivir* filma erakutsiko dute (20:00), hori ere kultura etxean.



ALOÑA MENDI

Oñatiko lasterketa, abenduaren 17an

Arrasateko lasterketaren ondoren etorriko dira Zuiako eta Igorreko lasterketak –abenduaren 8an eta 10ean– eta Euskal Herriko egutegiko hurrengo hitzordua Oñatikoa izango da, abenduaren 17an.

Zirkuitua azken urteotako lekuan jarriko dute, Urrutxuko lurretan, eta kategoria guztietako ordezkariak izango dira, masterretatik elite mailara.



Iazko lasterketan, ziklista bat zirkuituko eskailerak gaintitzen. IMANOL SORIANO

Mujika eta Zumalde irabazle

TENISA Joan den asteburuan jokatu zituzten San Migel Txapelketako finalak, Oñatin. Gizonezkoetan, Inko Mujikak irabazi zuen; eta emakumezkoetan, Ainhoa Zumalde izan zen onena. Aitor Magallanes eta Maite Fraile izan ziren txapeldunordeak.

"Zortzi urteko zikloa bete dut, ez da gutxi"

SASKIBALOIA Ointxe!-ko talde nagusiko entrenatzaile Josu Larreategik ez du MU zuzentzen jarraituko. Eskoriatzarrak hamargarren jardunaldian hartu du erabakia; hain zuzen ere, taldeak oraindik erreakzionatzeko denbora duela uste du

Xabier Urzelai ARRASATE

Josu Larreategik ligako hamargarren jardunaldiaren ostean adierazi dio klubari lehenengo taldeak errelebo beharra daukala: "Ziklo bat bete dudala ikusi dut, eta taldeak aldaketa beharra daukala. Zortzi urte hauetan bizipen ezberdin asko izan ditugu, eta hori behar du jokalaria batek hazten jarraitzeko: lidergo ezberdinak, lan dinamika ezberdinak... Eta hori guztia lortzen da entrenatzaile ezberdinekin lan eginda. Akaso, norbaitek usteko zuen betiko egon behar nintzela lehenengo taldean, baina ez, aldatzeko unea iritsi da, oraindik erreakzionatzeko denbora dago eta".



Josu Larreategi, ezkerrean, joan den zapatuko partidua zuzentzen. IMANOL SORIANO

Bi garaipen liga hasiera ezker

MUren denboraldi hasiera ez da ona izan. Hamar partiduetatik bi irabazi dituzte, eta beste bi partidua oso gutxiatik galdu: "EBAn egin ditugun urteetan jokalaria hauek izugarri saiatu dira. Adibide bera jarri ohi dut. Matematiketan asko saiatu ostean bostekoa lortzen duenak meritu handia du. Beste batzuek, aldiz, lan gutxi eginda zortzikoa lortzen dute, berezkoa dutelako. Urte hauetan, MUren kasua lehenengoa izan da, eta orain ere taldea ondo ikusten dut. Hala, gutxiatik galdu ditugun bi partidua horietan zorte apur bat izan bagenu, sailkapenaren erdian egongo ginen. Berritri diot, taldea badugu, baina dinamika aldatzen asmatu behar da".

Agurrean, urte hauetako bizipenen gainean ere egin du berba Larreategik: "Oso momentu onak egon dira, eta ez horren gozoak, normala den moduan. Gainera, denborak aurrera egin ahala, gauzak beste modu batean ikusten dira. Tentsio momentuak izan ditugu, entrenatzaile moduan batzuetan azeleragailua zapaltzeko beharra ikusi dudalako, baina beti jokalariairedo

taldearen hobe beharrez. Poztasunak eta tristorak oso bide laburra dute talde batean. Horregatik, porrota bera baino garrantzitsuagoa da porrotaren aurrean zein jarrera duzun".

Taldea uzteko momentuaren gainean ere egin du berba: "Garaiz dabilta erreakzionatzeko. Nirekin minutu gutxi zituztenek gehiago jokatzeko aukera ikusiko dute, eta dagoeneko estatus jakin bat zutenek entrenatzaile berriari rol hori merezi dutela erakutsi beharko diote".

Taldea 'Arri'-k hartuko du

Josu Larreategiren lekua klubeko entrenatzaile batek hartuko du, Iñaki Ogara Ortiz de Arrik. *Arri* gasteiztarra da, bost urte daramatza klubean –2012an iritsi zen–, eta, lehenengo urtea teknifikazio lanetan egin ostean, gaur egun Euskal Ligako kadete mailan diharduten emakumezkoen entrenatzailea da; alegia, Ointxe Araski taldeko neskekin egiten du lan.

Bada, gasteiztarrek aste barruan jada lehenengo hartu-emanak izan du jokalariairekin.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAK. EUSKAL LIGA

L. Arizmendi-Elorrio

Domeka. 15:30. Moiategi.

OHOREZKO ERREGIONA.

Tolosa-UDA

Domeka. 16:30. Berazubi

Bergara-Mondra

Zapata. 15:30. Agorros.

ERREG. PREFERENTEA

Antzuola-Soraluze

Zapata. 16:00. Eztala.

Aretxabaleta-Tolosa

Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Aloña Mendi

Zapata. 16:00. Moiategi.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña M.-Urki

Domeka. 16:30. Oñati.

Elgoibar-Arizmendi

Zapata. 18:30. Mintxeta.

OHOREZKO GAZTEAK

Urki-Aloña Mendi

Zapata. 17:30. Eibar.

Mondra-Aretxabaleta

Domeka. 17:30. Moiategi.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Muskiz-Aretxabaleta

Zapata. 18:30. Muskiz.

EUSKAL LIGA

Elorrietako-Mondrate

Zapata. 16:15. Bilbao.

Mallabia-Eskoriatza

Domeka. 17:00. Zaldibar.

OHOREZKO GAZTEAK

Eskoriatza-Rodiles

Zapata. Zehaztu barik.

GIP. HIRUGARREN MAIL.

Mondrate-Gamon

Domeka. 10:30. Musako.

GAZTEAK

Mondrate-Summa Al.

Domeka. 11:15. Iturripe.

EMAKUMEZKOAK

Samaniego-Eskoriatza

Egubak. 22:00. Tolosa.

SASKIBALOIA

EBA

Ulacia-MU

Domeka. 18:30. Zarautz.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

MU A-Alter Consulting

Zapata. 12:15. Musako.

GIPUZKOAKO SENIOR

Cafes Aitona-Aloña M.

Zapata. 18:00. Donostia.

Alde Zaharra-Aloña M.

Zapata. 20:00. Donostia.

SENIOR, BIGARREN M.

Bergara Sora.-Oartzun

Zapata. 16:30. Labega.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Ayma

Gaur. 20:15. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Urdaneta-Fagor Indust.

Zapata. 18:30. Bilbo.

Ford Mugarri-Siglo XX

Zapata. 17:00. Iturripe.

EUSKAD. EMAKUMEZK.

Aloña Mendi-Askartza

Zapata. 17:45. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Ormaiz.-Soraluce BKE

Zapata. 18:00. Zubipe.

GIP. BIGARREN MAILA

Arrasate-Orioko

Domeka. 12:30. Labegar.

Egia Kata-Arrasate

Zapata. 18:30. Egiako.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Kanpan. ART-Rioja

Zapata. 16:30. Moiategi.

PILOTA

OÑATI

Gaur, 19:00etan, eskuz

binako bi partidua.

Gazteak eta kadeteak.

ARETXABALETA

Gaur, 19:00etan hasita,

eskuz binako hiru

partidua. Alebin, kadete

eta gazteak.

BERGARA

Domeka. 18:00etan:

Gomazko paletako

partidua bat.

ESKORIATZA

Egubakoitza. 19:30ean:

Eskuz binako partidua bat.

ARRASATE

Egubakoitza. 20:30ean:

Eskuz binako bi partidua.

Kadeteak eta nagusiak.

Hiru puntura dagoen Elorrio hartuko du Leintz Arizmendik

FUTBOLA Bergarak Mondra izango du aurkari Agorrosinen eta Aretxabaletak Tolosan jokatu du

X.U. ARRASATE

Emakumezkoen Euskal Ligan, Leintz Arizmendiko neskek azken lau asteotako bolada txarra eten gura dute. *Titu*-ren eta Ezkurraren taldea ikusgarri ibili zen urrian –lau garaipen–, eta azaroan erabat irauli da egoera; emaitzei dagokienez bai, behintzat –lau porrot–. Bada, domekan (15:30), hiru puntu gutxiago dituen Elorrioren bisita izango dute Moiategin.

Ohorezko Erregional Mailan, lider dagoen Bergarak Mondra hartuko du (informazio gehiago

27. orrian) eta Aretxabaletak kanpoan jokatu du, hirugarren postuan dagoen Tolosaren zelaian –domeka, 16:30–.

Mondra-Aloña Mendi, Preferentean

Erregional Preferentean, berriz, Aloña Mendi ere ikusgarri dabil –partidua bakarria galdu du hamar jardunalditan– eta kategoriako liderra da, bost puntuko aldearekin. Bada, zapatuan (16:00) Mondraren kontra jokatu du, Moiategin. Eta Antzuolak ere etxean jokatu du, 16:00etan, Eztalan, Soraluzeren kontra.



52. Durangoko Azokaren aurkezpena, Landakon. GOIENA

400 berrikuntzarekin dator Durangoko Azoka

Berrikuntzaz beterik etorriko da, beste urte batez, abenduaren 6tik 10era izango den 52. Durangoko Azoka. Aurten, Argizaiola Sariaren tokia *Omenetzetik ereitera* ekitaldian Gerediaga elkarteak aurkeztuko duen sormen bekak hartuko du

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Durangoko Azokaren 52. aldia antolatu du aurten Gerediaga elkarteak, eta asteen bertan izango diren berritasunen berri eman dute. Azokak bost egun izango ditu, azken bi aldietan bezala –abenduaren 6tik 10era– eta Landako Gunea 10:30etik 20:00etara arte egongo da irekita. Abenduaren 7a, egubakoitza, Ikasle Eguna izango da, gainera.

240 stand edo gune egongo dira Landako Gunean, eta, guztira, 200 kultur ekitaldi baino gehiago izango dira. 400 nobedade aurkeztuko dira –257 liburu, 92 disko, 19 aldizkari, 5 bideo eta beste 27 ezberdin– eta 129 parte-hartzaile eta 16 auto-ekoiz-

le egongo dira 52. Durangoko Azokan.

Sormen beka, berritasuna

Aurten, Argizaiola Sariaren orde, sormen beka aurkeztuko du Gerediaga elkarteak *Omenetzetik ereitera* ekitaldian, abenduaren 8an. Bertan, Argizaiola Sariak bizi izan dituen 25 urteei errepasoa egingo diete, eta, "iraganera begira jarri beharrean, Azoka etorkizunari begira jarriko da, bertan aurkeztuko den sormen bekaren bidez".

"Euskarazko kultur sorkuntzari ekarpena egiteko asmoz, sortzaile berriei laguntza eskaini nahi die beka horrekin" Durangoko Azokak. Horregatik,

"euskarazko kultur produktu baten sorkuntzan, hasieratik amaierara, hasi ideiatik eta bere zabalkundera arte, egon dauden fase guztietarako laguntza" eskainiko du Gerediagak.

Deialdia urtero izango da, Azokan lekua duten kultur adierazpenetarako edota diziplina artekoa. Txandakatuz joango dira kultur adierazpenak eta urtero deialdi publiko batean adieraziko da.

Zortzi gune

Durangoko Azokako ekintzak zortzi gunetan banatuta egongo dira, beste behin. Areto nagusian 44 aurkezpen egongo dira, eta Azokako partaideen lanen aur-

kezpenek eta Gogoetaren Plazako solasaldi eta mahai-inguruek osatuko dute bertako egitaraua.

Ahotseneak, bestalde, 10 urte beteko ditu aurtengo edizioan, eta egitarau berezia osatu dute urtemuga ondo ospatzeko. Aurten, 123 sormen-lan berri aurkeztuko dira bertan. Zuzenekoan karpan 70 musikarik eta taldek aurkeztuko dute euren lana kontzertu formatuan eta solasaldien gunean, aldiz, 53 aurkezpen izango dira, hainbat formatutan: solasaldia, mahai-ingurua, errezitaldia, ikuskizuna, emanaldi akustikoa...

Saguanbaran, haurrek eta familiek euskal literaturaz eta euskal kulturaz gozatzeko gunea aurkituko dute, beste behin.

Plateruenan, gainera, formatu handiko kontzertuek tokia izango dute aurten ere. Gauero euskal talde batek bere diskoa aurkeztuko du bertan.

Irudienean, Euskal Herrian eta euskaraz sortutako ikus-entzunezko lanez gozatzeko aukera egongo da. Film laburrek eta luzeek euren tarteak izango dute, eta aurten, dokumentalek, batez ere, izango dute presentzia.

Szenatokian, arte eszenikoen gunea izango da eta bertan antzerki eta erakustaldiak egongo dira. Kabi@, bestalde, kultura digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web garatzaile eta ekin-tzaileen topaleku izango da.

Bukatzeke, Goiena telebistak kudeatzen duen Azoka Telebistak Azokak irauten duen egunetan emisio jarraitua eskainiko du euskarazko tokiko telebistetan. *Amaia DJ* saioa eta *Azokan gaur* magazina eskainiko dira, besteak beste, eta streaming bidez jarraituko ahalko da emisioa *Durangokoazoka.eus* eta *Goiena.eus* webguneetan.

Gazteendako dantza askatu txapelketa Bergaran

Bikote gazteendako 40. Euskal Herriko txapelketa jokatu dute domekan Udal Pilotalekuan

J.B. BERGARA

Euskal Herriko bikote gazteendako 40. dantza askatu txapelketa jokatu dute domekan Bergarako Udal Pilotalekuan (12:30), Bergarako musika Eskolak Gipuzkoako Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin antolatuta.

Txapelketan izena emateko epea azaroaren 17an bukatu zen, eta 16 urtetik beherako 21 bikotek parte hartuko dute. Adibidez, Lezoko Maider Aginaga eta Iker Belintxon pasa den aldiko garaileak berririo irabazten ahalginduko dira. Epaimahai lanetan Ane Anza donostiarra, Karlos Sarriegi hernaniarra eta Nahikari Vizuete lezoarra ari-tuko dira. Bergarako Udalak emandako trofeoa, txapela, zapia eta 180 euro eramango dituzte irabazleek, eta, gainera, sari ugari banatuko dituzte beste dantzarien artean. Jantzi egokienarendako, berriz, garaikur berezia egongo da, azken urteetan bezala.

Debagoieneko bikoterik ez da egongo Bergarako pilotalekuan, baina dantza askatu ikuskizun polita emango dute, ziur, Gipuzkoako beste herri batzuetatik eta Arabatik eta Bizkaitik etorriko diren gazteek.

KULTURRIZKETAK

GOIENA TELEBISTA, DENBORALDI BERRIA

AZAROAK 30, EGUENA 21:30

GONBIDATUA: JOSEBA USABIAGA-ENEO SAGARDOY

goiena
Zu hemen zaude.



'Huhezinema'-ren lehen atala gaur Goiena TBn

Huhezik antolatzen duen jaialdiaren 10. aldiko hainbat film labur ikusteko aukera egongo da, horien egileek aurkeztuta, Goiena telebistan, hamar ataleko saio berezian. Gaur estreinatuko da saioa, 21:00etan, *Basoa* film laburraren emanaldiarekin

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Huhezinema saioa estreinatuko du gaur, egubakoitza, Goiena telebistak 21:00etan eta 23:00etan. Hamar atalez osatutako saioa izango da, eta bertan, Huhezik antolatu duen azken film laburren jaialdiko hamabi lan aurkeztuko dituzte egileek.

"Huheziko 3. eta 4. mailetako ikasleek egin dituzte film laburrak, eta jaialdian aurkeztu zituzten. *Huhezinema* saioan ikasleak izango dira protagonistak eta eurek azalduko dizkigute film laburra sortzeko ideia nola bururatu zitzaizen. Horrez gain, filma egiterakoan bizitako anekdotak ere konatuko dituzte, eta baita eurek dituzten gustu zine-matografikoak ere", azaldu du Imanol Gallego kazetariak.

Guztira, hamabi film labur emango ditu Goiena telebistak, hamar saiotan banatuta. Lehenengoak, gaur estreinatuko denak, *Basoa* film laburra aurkeztuko digu: "Basoak zuhaitzak baino gehiago ezkututzen dituela erakutsiko digu lehenengo atalean eskainiko den lanak. Film labur batzuk narratiboagoak izango dira eta beste batzuk, askoz esperimentalagoak. Izan ere, denetik aurkituko dugu lanen sorta zabal honetan. Azkenean, zeinen anitzak garen



Huhezinema saioaren une bat. GOIENA

ikusiko dugu film laburren bidez", dio Gallegok.

"Hemendik urte batzuetara eurak izango dira zinemagileak. Beraz, etorkizuneko zinemagileen lanak ikusteko aukera aparta izango dugu *Huhezinema* saioan", azpimarratu du Imanol Gallegok.

2018ko kartel lehiaketa abian

Datorren urtean martxoaren 21etik 23ra bitartean egingo den Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdirako kartel bila hasi dira dagoeneko eta martxan jarri dute lehiaketa. Urtarrilaren

12a izango da lanak aurkezteko azken eguna eta 200 euro eta euskal produktuen saskia jasoko ditu irabazleak.

Hamaikagarren edizioaren leloa *Ikusteko jaiok gara* da eta kartelean presente egon behar du horrek. Horretaz gain, honako informazio honek ere agertu beharko du: 11. Huhezinema, Euskal Film Laburren Jaialdia, 2018ko martxoaren 21etik 23ra eta Aretxabaletako Arkupe kultur etxean. Lanak TIFF formatuan eta A3 tamainan aurkeztu beharko dira.

Eneko Sagardoy eta Joseba Usabiaga 'Kulturizketak' saioan

Azaroaren 30ean, egunean, eskainiko du denboraldiko bosgarren solasaldia, 21:30ean, Goiena telebistak

J.B. DEBAGOIENA

Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendutako *Handia* filmeko bi anaia protagonistak izango dira datorren asteko *Kulturizketak* saioko elkarriketatu-kazetariak. Eneko Sagardoy

(Durango 1994) eta Joseba Usabiaga (Tolosa, 1981) aktoreak Migel Joakin Eleizegi *Altzoko handia* eta bere anaia Martin izan dira filmean.

Usabiagak Sagardoyk baino ibilbide luzeagoa du, antzerkian

ere sarri ibili baita; eta, besteak beste, *Pikadero* pelikulan protagonistetako bat izan zen. Hala ere, Durangoko aktorea indartsu heldu da zinemaren mundura, bere lehen rol protagonistan oihartzun handia lortuta. ETBn emititu zen *Goenkale* telesailean parte hartu zuten biek ala biek, nahiz eta ez zuten elkarrekin lan egin.

Euren bizipenak eta *Handia* filmaren bueltan bizitakoak partekatuko dituzte datorren egunean emitituko den saioan.

Goiena Klubaren txokoa

Euroliga eta izarren liga Goiena Klubean!



Vs



BASKONIA - FENERBAHCE

Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu.

Arazoaren 30an, 20:30etan Buesa Arenan jokatu den partidurako. Parte hartzeko sariaren izena: Baskonia



Vs



SD EIBAR- RCD ESPANYOL

Partidurako 2 sarrera bikoitz ditugu.

Abenduaren 3an, 18:30ean Ipuruan jokatu den partidurako. Parte hartzeko sariaren izena: Eibar

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu biltzearen helburu bakarra da indararen dagoen datu-basea egokitzatzea. Eskubidea izango duzu datuak sortze, aldatze, zuzentze edo ezarritzeko. Hobe da horretara idatziz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bertsozale Elkarteari esker

Iruñeako finalaurrera saiorako sarrerak ditugu.

Iruñea, Analetasuna kiroldegian. | Abenduaren 2an, 19:00etan

